ttipi-ttapa

KIROL gehigarria / **25**

SARAKO IZARRA ERRUGBI TALDEA

KONTENT HARTUTAKO BIDEAREKIN

Frantziako ligan 40 urte baino gehiagoz ibili ondotik, aurten Euskal Herriko ligan jokatzen hasi da Sarako Izarra errugbi elkarteko helduen taldea. Horren karietara Patxi Jauregi elkarteko lehendakarietako batekin bildu da Ttipi-Ttapa eta «aspalditik nahi genuena bizitzen» ari direla aitortu du. / **8**

SARAKO IZARRA ERRUGBI ELKARTEA

Uxaneren gaitasun anitza

Urritasuna duten 24 erabiltzaile biltzen dira Berako Uxane okupazio zentroan, ia denak Malerrekakoak eta Bortzirietakoak / **10**

SINADURAK

JOSERRA LOPEZ ROZAS / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA / **4**

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN / **4**

Master Cupeko finalerdia jokatuko du Naroa Elizaldek abenduaren 2an / **20**

Euskararen Eguna ospatuko dute abenduaren 3an Areson / **57**

ZOZKETA / **76**

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

IZEN-EMATEA

www.euskaraldia.eus

euskaltzaleen topagunea

Nafarroako Gobernua

Gobierno de Navarra

NIRE TXANDA

JOSERRA LOPEZ ROZAS

Ekologikoa modan dugu

Produktu ekologikoen kontsumoa modan jarri dela bistan da. Merkataritza-gune haundiek ere ikusi dute dirua ateratzeko bide berri bat produktu horietan, eta gero eta gehiago dira itxuraz ekologikoak diren produktu horiei eskaintzen dizkieten tokiak. Bizi garen garai estresatu hauetan, erosketak egitea ere bertze zeregin bat gehiago da eta lehenbailehen egin nahi izaten ditugu. Horretarako merkataritza-gune haundiek aparteko eskaintza egiten digute: toki bakar batean nahi duguna erosi ahal izatea. Baina ekologiko horren gibelean zer dagoen kontzientzia hartu beharko genuke: zoritxarrez, ekologikotzat saltzen diren produktu aunitz enpresa haundien eskuetan daude, milaka kilometrotara ekoizten dira, bitartekari ugarien bidez komertzializatzen dira, langile baldintzak ez dira onak, eta erosle eta ekoizlearen arteko harremana ez da existitzen. Beraz, produktu ustez ekologikoa edonon erosi baino lehen, ekologiko etiketaren gibelean zer dagoen aztertzea komeniko litzateke.

«ETIKETAREN GIBELEAN ZER DAGOEN AZTERTZEA KOMENI LITZATEKE»

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBITZU

Euskaralaño, eguzki eta laino

Euskaraldian murgilduak gaude eta Euskararen Egunekin edo Euskararen Asteekin geratzen zaidan sentsazioa ez errepikatzea nahi nuke: eta gero zer? Txapa dotoreak kendutakoan ere segituko al dugu dakigunok ahobizi nonahi euskaraz? Eta ongi ez dakitenek adi entzuteko, ulertzeko eta ikasteko belarriprest? Euskaraz uda eta negu, urte osoan!

NABARMENTZEKOAK

PETTI
ABESLARIA ETA MUSIKARIA

ESTHER BURLADA
OSTALARIA

Petti Bonberenean zuzenean 2018/10/20 diska karrikaratuko du Berako abeslari eta musikariak abenduaren 3an. Oholtza gainean eskainitako kantuen artean, kuttunenak aukeratu eta 14 kantuko lana osatu du.

Etxalarko Usategietako Gastronomia Sarien barne, aurten, Arantzako Burlada jatetxeko Esther Burladak egindako uso platera aukeratu du epaimahaiak. Beretzat izan da Urrezko Paleta.

ATZERA BEGIRA

2008-11-27 · TTIPI-TTAPA · 483 zk.

Asketa abesbatzaz Ainara Rodarekin

Duela hamar urte Nafarroako Mendialdeko Abesbatzen Topaketa Leitzan egin zen eta horren harira, elkarrizketa egin zion Ttipi-Ttapak Ainara Roda Leitzako Asketa abesbatzako zuzendariari. Ordurako urtebete zeraman Rodak zuzendari lanetan, eta balorazioa egiteko eskatuta, berri tristea jakinarazi zuen: «koruen topaketarekin bukatuko da Asketaren ibilbidea». Une hartan «18 lagun baino ez» ziren Asketan, eta «hori gutxi da abesbatza baterako. Gainera, mutil gutxi daude». Aitortu zionez, «askotan hitz egin dugu honi buruz eta azkenean bukatzea erabaki dugu. Pena haundiz uzten dugu, eta agian ez da betirako izanen, baina oraingoz atea itxi beharra dago, ezinezkoa delako».

ttipi-ttapa

erran. eus Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · mecna · Baztango euskara · Bortzirietako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Gazteak

Klaseko lan bat egiteko Lesakako erroldaren zenbakiak behar nituen, eta udaletxera jo dut informazio bila. Bortz urteko tartetan banaturik, adin bakoitzeko zenbat lesakar gauden eman didate taula batean; eta informazio hagitz interesgarria harrapatu dut. Izan ere, banituen hainbat uste: gazteei buruz jendeak maiz erraten dituen esaldiak ez direla beti zuzenak. Erraterako, gazteak ez garela ateratzen; edota lehengo gazteek baino gauza gutiago egiten ditugula. Banuen susmo bat: gizarteko joerek eta gazteen pasibotasunak bakarrik ez, demografiak ere eragina zuela. Eta datuek berretsi egin didate ustea.

Herrian erroldatuak gauden gazte kopuruari paratu diot arreta, eta segidan atera zaizkit emaitzak. Gazte izatea zer den adinak bakarrik mugatzen ez duen arren, 16 urtetik 30erako tarteari erreparatuz gero, hona hemen zenbakia: Lesakako biztanleria 2.752 lagunekoa izanik, 16tik 30 urtera artean gaudenak 364 baino ez gara. Alegia, herriko biztanleriaren %13,2 baino ez.

«GAZTE KOPURUARI ARRETA PARATU ETA SEGIDAN EMAITZAK ATERA ZAIZKIT»

Datua argigarriagoa suertatzen da bertze adin multzoekin alderatuz gero. Zaharrei begiratuta, adibidez, 66 urtetik aitzinerako herritarrak gazteak baino gehiago dira: biztanleriaren %21a, zehazki.

Are argigarriagoa da 80. eta 90.eko hamarkadetan gazte izan zirenen kopuruari begiratzea. Alegia, gaur egun 41 urtetik 55era dituzten herritarrak biztanleria guziaren laurdena dira: %25,2. Heldu gisa izendatuko genituzkeenek, berriz, alegia, ez gazte, ez haur, ez zahar ez direnek biztanleriaren ia erdia hartzen dute: hain zuzen, 31tik 65 urtera dituzten 1.372 lagun bizi dira Lesakan, alegia, biztanleriaren %49,8. Haurrak ere gu baino gehiago dira: 0tik 15 urtera, biztanleriaren %15,3. Gazteak gaude, beraz, proportziorik ttikienean.

Orain honi gehitu erroldaren gibelean gordetzen diren bertze zenbait datu: berez Lesakan erroldatuak gauden zenbat gazte bizi gara herrian astean zehar? Ikasketengatik edo lanagatik, zenbat joaten gara Iruñera, Donostiara, Gasteizera, Bilbora edo Euskal Herritik kanpora? Eta, beraz, zenbat gazte gelditzen gara herrian, hemen borrokak edo bertzelako aktibitateak aitzinera atera ahal izateko?

Hasieran erran bezala, ez dut uste hau denik gazteak ez mugitzearen arrazoi bakarra. Baina datuak lagun, esaldi paternalista eta kexatiak bota aitzin, beharbada bi aldiz pentsatu beharko genuke.

MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA

Nafarroako espaziotik hurbil

Pasa den urri bukaeran, iGEM izeneko Biologia Sintetikoaren Mundu mailako Jardunaldietan, zortzi gazte nafarrez osatutako taldearen *Biogalaxy* proiektua saritua izan da DBHko kategorian. Aurkeztutako lanaren muina honakoa da: landareetatik almidoia kantitate handiagoetan eta egun egin ohi den baino era merkeagoan ateratzea lortu dutela. Modu horretan, landare horiek etorkizunean eginen diren bidaia espazialetarako baliabide arras egokiak izanen dira bai eskifaiaren bazkariak egiteko, baita espazioan sendagaiak ekoizteko ere.

Taldea osatzen duten lau neska eta lau mutilek ez zuten elkar ezagutzen lanean hasi aitzinetik, eta hori izan da, nolabait ere, STEM Planetaren 'esperimentua'. Nafarroako Gobernuak zientzia, ingeniaritza, teknologia eta matematiketan bokazioak sustatzeko martxan jarri duen hezkuntza programa da STEM Planeta (diziplina horiek ingelesezko STEM sigletan biltzen dira). Iruñeko Planetariotik koordinatzen da eta horren bidez etorkizuneko ikasketak erabaki aitzinetik, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak ikasketa horietara hurbiltzeko ekimenak jartzen ditu martxan: tailerrak, hitzaldiak, Bertsozientzia, robotika eta zinema uztartzen dituen zikloa…

«ASTRONAUTA EUSKALDUNEN BAT ORBITAN PARATZEA LORTUKO OTE DUGU?»

Iruñeko Planetarioak 25 urte bete ditu aurten eta hori ospatzeko, besteak beste, Mikhail Kornienko kosmonautaren bisita jaso du. Ekitaldira bertaratutakoek zuzen-zuzenean bere testigantza espaziala entzun ahal izan zuten eta galderak egin zizkioten. Kornienko behin baino gehiagotan izan da Nazioarteko Egoitza Espazialean, gure mundua inguratzen duen eta gizateriak inoiz eraiki duen nabe-laborategi handienean. Bere azken misioa erabat ezohikoa izan da, urte oso batez egon baita Lurra orbitatzen –misio arruntek sei hilabateko iraupena izan ohi dute–.

STEM Planetak, aurten, *Fisrt Lego League* jaialdia antolatuko du. Aurtengo gaia *Into Orbit* da, eta beraz, aurkeztutako lanek espazioarekin zerikusia izan beharko dute. Proiektuak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu ahalko dira eta oraindik izena emateko epea zabalik dago. Abenduaren 1ean, inspiraziosaioa eginen da planetarioan, eta espazioa aztertzen duten hainbat aditu izanen dira ikaslegoaren eta publikoaren galderak erantzuteko prest. Azaroaren 30ean, bestalde, Euskal Wikilarien Elkartearekin batera emakume-astrokosmonauten inguruko saioa eginen da Euskaraldiaren barne, eta hurbiltzen direnek Wikipedia editatzen ikasiko dute zientzia-gaiak eskuartean darabilten bitartean…

Honen guztiaren ondotik, astronauta euskaldunen bat orbitan paratzea lortuko ote dugu? Polita litzateke etorkizuneko ekitaldiren batera astronauta bat etortzea, eta bere hitzaldia errusieraz edo ingelesez beharrean, euskaraz aditu ahal izatea. Orbita ona izan dezazuela!

11 GALDERA LABUR

ANDER MARIEZKURRENA SALABERRI ORONOZKO GAZTEA

«Rallya barrenak hustutzeko modu bat da neretzat»

Ander Mariezkurrena eskuinean, joan den urteko Rallysprintean. ARTXIBOKOA

Aurkeztu zure burua.
Sunbillan bizi den oronoztar gaztea naiz, motorzale sutsua, rallyetan ibiltzea eta familiarekin egotea gustuko duena.
Noiz hasi zinen rallyetan?
Aurten arte kopiloto lanetan ibili naiz. Hasieran Ioseba Ibarrarekin ateratzen nintzen eta gero Asier Jaunsarasekin. Lehenbiziko aldia 2015ean izan zen Pays Basque rallyan.
Zerk bultzatuta hasi zinen?
Betidanik izan dudan afizioa izan da eta aukera suertatu zaidanean aprobetxatu egin dut... Beti honen inguruan egonda ezin ezetzik erran!
Zer da rallya zuretzat?
Barrenak hustutzeko modua.
Aurten Malerrekako II. Rallya antolatzen aritu zara...
Bai, Malerreka Motorsport-eko lehendakaria naiz. Diru-laguntzak biltzen, baimenak lotzen, eguna antolatzen, anbulantzia eta bertzelakoak bilatzen... ibili naiz. Hori dena Hodei Ariztegi eta Unai Apezetxearen laguntzarik gabe ezin izanen nuke egin.
Antolakuntzan egonda gozatzeko aukerarik izan al duzu?
Bai, lagun artean egon nintzen eta giroaz gozatu nuen. Gainera, 000 kotxea izan nintzen.
Nolako balorazioa egin duzue?
Aitzineko urtean baino partehartzaile guttiago izan gara. Dena dela, balorazioa arront positiboa izan da. Azken batean, jakin badakigu mundu honetan ibiltzea ez dela merkea eta karrera urte bukaeran izateak ez duela laguntzen. Jendeak ahalegin handia egin zuen, eta hori eskertzekoa da.
Hurrengo lasterketarik baduzu buruan?
Bai, Hondarribin abenduaren 15ean, larunbatean, egitekoa duten I. Bidasoa Rally Klasikoa.
Baduzu hutsik egin gabe joan beharreko lasterketaren bat?
Hazparnen egiten dena, hemengoekin ikusita bertze mundu bat da, han aunitzez gehiago bizi baitute rallya. Dena dela, Pays Basque eta Gernika rallyetan ere gustura ibiliko nintzateke.
Zerk egiten zaitu zoriontsu?
Nire alabak. Nahiz eta ttikia izan, kotxeen mundua gustatzen zaiola dirudi. Zaletasuna berez ekarri behar da, ez da animatuta sortzen.
Amets bat?
Guk antolatzen dugun Malerrekako Rallysprinta estatuko rallyetarako puntuagarria izatea.



GOITI ETA BEHEITI

UTZITAKO ARGAZKIAK

Indarra bertze zerbaiterako erabiliko balute...

Emakumearen Memoriaren Baratzekoak dira ezkerreko bi argazkiak eta Arantzako parkekoa eskuinekoa, azaroko bigarren eta hirugarren asteburuan eginak. Baten bat indartsu dabil, baina ez du behar bezala erabiltzen indarra...

GOITI ETA BEHEITI

UTZITAKO ARGAZKIAK

Berako frontoia zuritua...

Zuri agertu da berriz Berako Eztegara frontoiko kantxa, su-itzalgailua hustu baitute. Gertatutakoa gaitzetsi du Udalak: «eremu publikoak irekiak uzteko asmoa du Udalak, baina horrelako ekintzek hori bertan behera uzteko gogoa ematen dute».

BOTA BERTSOA

KARLOS AIZPURUA ETXARTE
SARAKO BERTSOLARIA

Taldekako Xilaba 2018

Doinua: Antton eta Maria (Batetikan korrozka)

Barreiaturik dabil
Sarako artaldea:
Julene, Ellande, ni...
a ze ahalgea!
Bertsotan zerbait denez
Sarako aldea,
osatuko al dugu,
hauxe da galdea:
lau urteren buruan
Sarako taldea?

Bertsolaritzak hemen
ditu mila traba,
ekinez gainditzeko
badugu parada:
geroan beharko da
bistan da Xilaba,
baina plaza arruntak
ere baitezpada,
bertso-periferia
berpiztuko bada.

IRAKURLEAK MINTZO
Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

Ez jolastu suarekin, gozatu harekin
JARRAITU AHOLKU ERRAZ BATZUK SEGURTASUNA AREAGOTZEKO, ZURE TXIMINIAREN EROSOTASUNARI UKO EGIN GABE
ERAIKITZEKO EDO BERRITZEKO, PROFESIONALAK KONTRATATU
ALDIZKA MANTENTZE-LANAK EGIN
BEHAR BEZALA ERABILI
www.tximiniak.nafarroa.eus
SOS 112
GOGOAN IZAN: Neurri guztiak hartu arren, kea edo sua ikusten baduzu, deitu berehala 112 telefonora. Deitu ondoren, itzali tximinia eta, zure burua gai ikusten baduzu, saiatu sua itzaltzen suhiltzaileak iristen diren bitartean, baina ez jarri inoiz zure burua arriskuan.
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Patxi Jauregik hamabortz urte daramatza Sarako Izarra errugbi elkartean lehendakari lanetan. TTIPI-TTAPA

«Beti euskal taldea izan gara eta orain Euskal Herrian jokatzen dugu»

PATXI JAUREGI SARAKO IZARRA ERRUGBI ELKARTEKO LEHENDAKARIETAKO BAT

Frantziako ligan 40 urte baino gehiagoko ibilbidea alde batera utzita, aurten Euskal Herriko ligan jokatzen hasi da Sarako Izarra errugbi elkarteko helduen taldea. Kontent dira hautuarekin

G. PIKABEA SARA

Aspaldikoa zen ametsa eta eman dute urratsa. Ausartu dira eta kontent dira hartutako bidearekin. 1972an Sarako Izarra errugbi elkartea sortu zenetik, bere urratsak Frantziako Federazioarekin egin ditu, frantziar estatuko ligan. Aurten, ordea, 40 urte baino gehiagoko ibilbide hori gibelean utzita, helduen taldea etxera, Euskal Herrira, begira jarri da: Euskal Errugbi Federazioan sartu eta Euskadiko Ligan jokatzen hasi da. Bigarren mailan sartu da, zazpi taldeko txapelketa batean. Azken 15 urteotan elkarteko lehendakarietako bat den Patxi Jauregi saratarra izan da aldaketa horren lekuko nagusia, bideurratzailea. Jauregirekin batera Stephane Lasaga da elkarteko bertze lehendakaria.

Nola hasi zen guztia?

Helduetan, egoera zaila genuen, inguruko talde guztietan bezala, arazoak genituen jokalariek ez zutelako segitzen. Horri nola buelta ematen ahal genion pentsatzen hasi ginen eta lehendik buruan genuen ideia ukan genuen, euskal ligara joatearena, hain zuzen. Euskal Herriko Errugbi Txapelketa bi aldiz antolatu genuen Saran eta horrek Hegoaldeko bertze taldeekin harremanak egin eta sendotzeko balio izan zigun. Ideia hori buruan izanagatik, ez zen batere erraza jende guztia gurekin etortzea. Azkenean, solas eginez, eta gaur egun helduen taldean diren gazteak euskaldunak direla ikusita, ideia proposatu eta berehala baietz erran ziguten. Beti euskaldunon errugbi taldea izan gara eta orain, Euskal Herrian jokatzen ari gara.

Zaila izan da bidea?

Hastekoz, historia alde batera utzi eta bertze bide bat ireki behar genuenaren mezua esplikatzea konplikatua izan zen. Administratiboki, berriz, Frantziako Federazioarekin harremanak zailak izan dira. Bordelera joan eta euskaldunak ginela errandakoan, hastekoz, ideia ez zuten konprenitu. Bi orenez solastatu ginen beraiekin, gure ideia esplikatu genien eta pixka bat trufatu egin ziren. Haientzat errugbiak maila apalagoa du Hegoaldean, ez da frantziar estatuan bezala profesionala, eta ez dute aldaketaren zergatia sentitzen. Ez dute batere ongi konprenitu guk euskal errugbia bizi dugula. Baina haientzat gu talde ttipi bat izanda, ez da larria izan eta gure artean egiteko erran ziguten. Bertzelakoa izan da Euskal Errugbi Federazioaren jarrera; biziki ongi portatu dira gurekin eta behar genuen guztietan lagundu digute.

Oztoporik jarri dizue Frantziako Federazioak?

Ez dugu haien berririk ukan. Euskal Federazioarekin batera, guk egin dugu dena muntatzeko bidea. Gero, ofizialki gazte guztiak bazoazela erran behar izan nien. Horretaz gain, ofizialki frantsesak izanda, euskal ligan lizentziak hartzeko Frantziako ligaren baimena ere behar nuen, eta 30entzat banaka galdetu behar izan nuen baimen hori. Horretan aspertuak sentitu nituen.

Helduen taldeak hautu garbia egin du, baina haurren errugbi eskolak Frantziako Federazioan segitzen du...

Bai, ttipiekin bai. Haurrak edo aukera hori bakarrik egiten ahal ez zutenak ez nituen nire bidean eraman nahi. Bakoitzak bere bidea hautatzea nahi nuen eta horregatik egin dugu helduekin bakarrik. Berantago ikusiko dugu.

Erabakiak aldeko eta kontrako jarrerak sortu ditu?

Niretzat zerbait naturala izan da, baina bertze batzuentzat beharbada ez. Ideia sortu zelarik, jende ainitzek sobera konplikatua izanen zela eta ez genuela kuraiarik izanen erraten ziguten, baina egin dugu. Iparraldeko herrietan, Euskal Herritik kanpo euskaldunak gara, baina Euskal Herrian berean ez gara euskaldunak. Sara herri partikularra da, herrikoak bertakoak be-

deren euskaldunak gara. Abertzaleak ala ez, hori bertze kontua da, baina herri euskalduna izateak ligaz aldatu behar genuela esplikatzen lagundu digu. Badira euskaldunak izatea onartzen ez dutenak ere, baina horiek bazterrean utzi ditugu. Ez gara hainbertze buruhaustetan sartu. Kirol aldetik eta politikoki egin dugun hautua izan da, naturalki sentitu dugun zerbait. Gehiago ere bai, jokalari gazte guztiek segitu dute gurekin. Gaurko saratar gazte ainitz Hegoaldeko jendearekin harremanetan dira, familiarekin, lagunekin, besta egiteko... Maiatzean Herri Aitada antolatu genuen eta giro hori maite duten gazteak dira. Beharbada, duela sei-zazpi urte lehenagoko taldearekin zailagoa izanen zen aldaketa, baina oraingo gazteekin sinplea izan da.

Sarako errugbi jokalariak urriaren 20an Iruña RCren kontra etxean jokatutako partidan. SARAKO IZARRA ERRUGBI ELKARTEA

Ligaz aldatuta jokalari gehiago sartu dira...

Bai, justuki erabaki hori hartu ondotik. Eta gainera, berant ukan dute ligaz aldatzeko hautuaren berria. Ofizialki agorril bukaeran jakin genuen baimena genuela eta soberan berant zen taldea muntatzeko, ordurako gazte batzuk bertze taldeetan hasiak zirelako. Urte polita egiten badugu eta benetan ongi pasatzen baldin badugu, heldu den urtean euskal giroko gazte gehiago etorriko direla iruditzen zait. Ikusiko dugu urte baten edo biren buruan zer gertatzen den, baina mezua pasatua da, beharbada ez denek konprenitua, baina pasatua da. Urrats haundia egin dugula iruditzen zait eta kontent nago.

Herritarren babesa izan duzue?

Badira beti gurekin izan direnak eta izanen direnak, eta badira zer gertatuko den ikusi nahi dutenak. Jendeak, oro har, kuraia ukan dugula erraten du. Nik, mementuko, bikain atzematen dut hautua hartu izana eta helduen taldean ari diren 30 gazteak kontent ikusten ditut. Bertze giroa sortu da taldean, giro polita.

Babesleak mantendu dituzue?

Bai, mantendu ditugu. Aldaketarako ideia sortu zelarik, hainbat enpresarirekin solas egin nuen eta 'Patxi zoaz lasai, guk segituko zaituztegu' erran zidaten. Sarako auzapezak ere babesa eskaini zigun. Babes hori duzularik errazagoa da aitzinera egitea. Bertze bizpahiru laguntzaile zahar ere baditut eta haiek baietz erraten badigute, lasai sentitzen ahal gara.

Euskadiko Ligan hastearekin batera, bazkide txartelak atera dituzue...

Bai, hutsetik hasi gara honetan, herriko ostatuetan eman ditugu salgai eta erantzuna biziki ona izaten ari da. Euskalduntzea eta Euskal Herriko ligara joatea hautatu dugun talde bat gara eta horrek bere balioa du. Guregandik fitsik espero gabe, izpiritu horrekin bat egiten dutenak bazkidetzen ari dira. Oraindik ere badago bazkidetzeko aukera eta bazkide egiten direnek klubeko berriak eta emaitzak etengabe hartuko dituzte eta zozketetan ere sartuko dira.

Zenbateko aurrekontua du errugbi elkarteak?

Frantzian ari ginenean, 40.000-45.000 ingurukoa genuen. Orain pixka bat igoko zaigu baina inguru horretan ibiliko da. Jokalariak prest daude lizentzia gehiago ordaintzeko eta arno botilak ere salduko ditugu dirua biltzeko.

Ligaz aldatu eta bigarren mailan hasi zarete. Nolakoa izan da hastapena?

Biziki ongi hasi gara, giro polita ukan dugu. Egia da errugbiaren aldetik diferentzia handia badela. Bertze taldeak gazte-gazteak dira eta kirol izpiritu izigarria dute gurekin konparatuz. Baina errespetu haundia sumatzen da, haiek ere konprenitu dute zergatik joan garen eta kontent gara. Biziki ongi pasatzen ari gara.

Zein helburu dituzue ligan?

Gazteek lehenbiziko mailara pasatu nahiko lukete, baina ikusiko dugu. Zazpi talde gara eta emaitza onak lortzen ari bagara ere, Logroñok eta Bilbok ere talde polita dute. Mailaz goititzeko bi toki dira eta nire irudiko, hiru taldek izan dezakegu aukera hori.

Nolako etorkizuna ikusten diozu Sarako Izarra errugbi elkarteari?

Polita litzateke Euskal Herriko ligan segitzea. Gure helburuak plazer handi bat hartzea izan behar du, lasai eta umiltasunez joan eta ongi pasatzea, eta beti errespetuz jokatzea. Iparraldean gazteek salbaiagoak direnaren etiketa hori badute, baina Saran beti izan dugu errespetuaren izpiritu hori eta errespetu hori irabaztea izigarria izanen da. Gu ere euskaldunak gara eta errespetuz aritzen gara.

Lehendakari segituko duzu?

Utzi nahi nuen, baina orain hasitako bideak segida baldin badu, ezin dut hemen utzi. Aspalditik nahi genuena bizitzen ari gara. Milesker segitzen diguten guztiei.

«URRATS HAUNDIA EGIN DUGU ETA KONTENT NAGO HAUTUAREKIN»

«ASPALDITIK NAHI GENUENA BIZITZEN ARI GARA»

«ERRESPETUA IRABAZTEA IZIGARRIA IZANEN LITZATEKE»

Berako Uxane okupazio zentroan dabiltzan lagunak eta monitoreak. TTIPI-TTAPA

Lau hamarkadetan aitzinera begira

Urritasuna duten 24 erabiltzaile biltzen dira gaur egun Berako Uxane okupazio zentroan, ia denak Malerreka eta Bortzirietakoak. Kanpotik heldu zaien lana egiteaz gain, euren ongizatea lantzeko jarduerak egiten dituzte

G. PIKABEA BERA

Irria sumatzen da haien aurpegietan, kontent dauden seinale. Goxo daude, gogotik lanean, koadernatzen, agendak prestatzen edota eskulanetan. Berako Uxane okupazio zentroko lagunak dira. 21-22 urte dituzte gazteenek eta 64 urte zaharrenak eta Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi, Urroz, Oiz, Doneztebe, Sunbilla eta Iruñekoak dira. Astelehenetatik ortziraletara Berako Uxanen egiten dute hitzordua eta goizez eta arratsaldez hortxe egoten dira, bateko eta bertzeko ekintzetan parte hartuz. Beratik kanpo bizi direnek garraio-zerbitzua ere badute Uxanera hurbiltzeko eta etxera bueltatzeko.

Garuneko paralisia eta bertze gaitz batzuk dituzten 18 urtetik goitiko lagunak hartzen dituzte Uxanen eta euren «hazkunde pertsonala, gizarteratzea eta laneratzea» dira helburu nagusiak. Nafarroako Aspace erakundearen barrenean sartua dago, eta 25 lagunentzako tokia du. Gaur egun, 24 erabiltzaile dira. Aitziber Esnaola Urkia, Irati Lujua Etxenike, Nuria Garate San Jose eta Olaia Iantzi Ordoki monitore eta zaintzaileak dira egunero eurekin egoten direnak, eta astean bitan Cristina Garay terapeuta okupazionala eta Yolanda Sanz zuzendaria. «Momentu zailak» izaten badituzte ere, gustuko dute lana, «bokaziozkoa» eta «hagitz polita» dela diote, baita «atsegina» ere.

Ibilbide luzeko zentroa

40 urte baino gehiagoko ibilbidea du Uxanek. Beharra bazela ikusita, 1977an sortu zen Isabel Pardo eta Patricia Garridoren ekimenez. Legalki gauzak errazteko laster sartu ziren Gipuzkoako Aspacen, eta urtebeteren buruan, Nafarroako Aspacen. Hantxe daude geroztik. Hasiera hartan, hezkuntza bereziko zentro gisa hasi ziren, haur ttikiekin, baina 1989-1990 ikasturtean behar bereziko ikasleak ikastetxeetan integratzeko legea indarrean jarri zenean, okupazio zentro bihurtu zen Uxane.

Kanpoko eta barreneko lanak

Uxanek urte osorako duen aurrekontuaren %80a Nafarroako Gobernuko Ongizate Sailak bideratzen du. Gainerakoa Aspacek hartzen du bere gain. Eguneko martxari dagokionez, alde batetik, goizero, kanpoko enpresek edo partikularrek eskatzen dizkieten lanak egiten dituzte: koadernazio lanak, sukaldeko taulen garbiketa, banaketa lanak (Berako Udalak eskatutako fakturak, UEMAko aldizkariak eta bestetako programak etxez

Uxaneko erabiltzaileak diren Joxe Mari eta Luis lanean. TTIPI-TTAPA

etxe eta baserriz baserri banatu)... «Bakoitzak bere ahalmenaren arabera, baina guztiek parte hartzen dute lan horietan», diote monitoreek.

Bertzalde, kanpoko lan horietaz aparte, «beraien ongizatea eta autonomia lantzeko eta aisialdiari begira» ekintzak egiten dituzte: eskulanak, sukaldaritza, informatika, antzerkia, garbiketa, baratze terapeutikoa, kirol egokituak Berako kiroldegian eta Lesakako igerilekuan... Estimulazio kognitiboa lantzen dute eta boluntarioei esker, baita kantua ere. Astelehenetik ortzegunera 09:00etatik 17:00etara egiten dute hori guztia eta ortzirale eta jaiegunen bezperan, 09:00etatik 15:00etara.

Herriko eta inguruko hitzorduetan ere parte hartzen dute. Berako Lurraren Egunean eta Etxalarko Gasna Feria Egunean, erraterako, «Uxanen egindako artisau lanak saltzen ditugu» eta bildutako diru horri esker, «irteerak eta urteko bazkaria» egiten dituzte. Korrikan ere parte hartzen dute eta Berako inauterietako desfilean ere ateratzen dira «aldarrikapen keinuak eginez». Irakasle baten laguntzarekin eta Berako Udalaren antzerki eskola proiektuari esker lortutako diru-laguntzarekin, urte saila daramatzate antzerkia lantzen ere: «urtero ez bada ere, bizpahiru urtetik behin jende aitzinean egiten dugu eta jendeak hagitz ongi erantzuten du». Berako Labiaga Ikastolarekin ere elkarlanean ari dira, baita Irungo Oiasso Musoarekin ere. Bi urtez arteterapia egin dute.

Mugak

Landa eremuko okupazio zentroa da Uxane eta horregatik, «ezgaitasunak dituzten guztiak hemen» sartzen direla diote monitoreek: «hiriguneetan beharren arabera banatzen dute jendea. Hemen, ordea, bertze zerbitzurik ez dagoenez, denak honat etortzen dira». Gaineratu dutenez, «Uxanek lan mundurako sarrera izan beharko luke, hau da, hemendik pasatzen denak Aspacek dituen lan eskaintzetarako urratsa eman beharko luke». Baina «dauden beharretara egokitu» behar dutela adierazi dute. «Hemen badira lan mundura pasatu eta pasatuko ez diren aunitz». Garbi diote: «inguruan eguneko zentroren bat balitz, adinagatik eta ezgaitasunagatik autonomia galtzen joan direnak eguneko zentro batean sartuko lirateke, eta ez okupazio zentro batean. Inguruan horrelakorik ez dagoenez, Uxanera etortzen dira». Halere, «berriki sartu diren gazteek segur aski lanerako bidea» hartuko dutelakoan daude.

Mugak muga, beharretara egokitu eta aitzinera segitzen dute Uxanen. Are gehiago, urteotan ereindakoa emaitzak ematen ari da eta «kontent» daude horrekin. «Herrian eta eskualdean ezagunak» direla diote monitore eta zaintzaileek, «integratuak» daudela eta «maitatuak» sentitzen direla. Herritarrekin «elkarlanean» aritzeak «inklusioan laguntzen» duela uste dute, eta Uxaneren kokapena ere azpimarratu dute: «Berako Udalari esker hagitz toki onean gaude, herri erdian». Patxi Barandiaran zena ere gogoan izan dute: «Uxaneko obrak eta barreneko egokitzapen guztiak berak ordaindu zituen». Gainerakoan, oztopo arkitektonikoak tarteko, Berako karriketan «zer hobetua» badela dioten arren, gaur egun lortua duten «errekonozimendua» dela eta, esker oneko hitzak dituzte, «eskerrak eman nahi dizkiegu Uxanerengan konfidantza duten guztiei».

21 ETA 64 URTE BITARTEKO 24 LAGUN DAUDE UXANEN

KANPOKO LANAK ETA DENETARIKO JARDUERAK EGITEN DITUZTE

«Hagitz kontent gabiltza Uxanen»

Uxaneko erabiltzaile beteranoak dira Mari Nieves Elgorriaga (Bera, 50 urte), Susana Fragoso (Lesaka, 48 urte) eta Bisi Gorostidi (Bera, 64 urte). «Aspalditik» dabiltza Uxanen, eta han eta hemen parte hartuz, «hagitz kontent» joaten direla kontatu digute. Halaxe islatzen du euren aurpegiak ere. Denetariko jarduerak egiten dituzte eta ez dute aspertzeko astirik izaten. Elgorriagak «libretak eta gimnasia egitea eta paseoak ematea» ditu gustukoen. Fragosok, berriz, artisautza maite du: «giltzariak edo betaurrekoentzako sokak bolatxoekin egitea eta koadernatzea». Era berean, «igerilekura joatea eta gimnasia egitea» ere atsegin ditu. Gorostidik maite dituen ekintzak ere aunitz dira: «giltzariak egitea gustatzen zait baita koadernatzen aritzea ere». Horiez gain, «gimnasia egitea, igerilekura joatea eta antzerkia lantzea» ere gustuko du.

Elgorriaga eta Fragoso, asteguneko goizak eta arratsaldeko lehenbiziko orduak Uxanen pasatu ondotik, gurasoen etxera erretiratzen dira. «Uxanetik atera eta trikitixa jotzen dut, eta amarekin eta attarekin paseatzera joaten naiz. Gero, afaldu eta ohatzera». Asteburuak, berriz, «amari etxeko lanetan laguntzeko» aprobetxatzen ditu Elgorriagak.

Ezkerretik hasita, Elgorriaga, Fragoso eta Gorostidi. TTIPI-TTAPA

Fragoso «Uxanetik ateratzean, normalean amarekin ateratzen» da, «baina neguan ilundua izaten denez, ez». Asteburuetan, «goizez eta arratsaldez amarekin» ateratzen dela dio. Gurasoei etxeko lanetan ere laguntzen die: «erosketak egiten, etxea garbitzen, ohatzeak egiten...». Eta herritik kanpora ateratzea ere maite du: «nire hiru ahizpak kanpoan bizi dira eta etortzen direnean, toki aunitzetara eramaten naute. Aunitz gustatzen zait kanpora ateratzea».

Gorostidi, ordea, Maddi egotetxean bizi da, urritasunak dituzten pertsonak elkarrekin bizi diren Aspaceren baitako etxebizitzan, hain zuzen. Eta «kontent» da Maddin. «Uxanetik atera ondotik, meriendatu» egiten duela dio. Baina ez hori bakarrik. «Pianoa jotzen dut». Horrez gain, «dutxatu, telebista ikusi eta afaldu egiten dugu». Urteotan guztiotan oporretan ibiliz «toki aunitz» ezagutzeko aukera ere izan du.

Mintzodromoak borobilduko du Euskaraldia

Abenduaren 3an eginen da Bortzirietako akabaila ekitaldia Ricardo Baroja ikastetxean

TTIPI-TTAPA

Akabaila indartsua eman nahi diote Bortzirietan Euskaraldiari. Horretarako ekitaldi jendetsu bat antolatu dute Rikardo Baroja ikastetxean, abenduaren 3an, 11:00etan. Ekitaldiaren muina Mintzodromoa izanen da, eta bertan hamaika egunetan bizitako esperientzia partekatzeko aukera izanen da. Mintzodromoa behar bezala antolatzeko, beharrezkoa da parte hartuko dutenek aitzinetik izen ematea: *euskara@bortziriak.eus* / 948 634125/ *euskaraldiabortzirietan@gmail.com* / 610 920 673. Izen-ematea azaroaren 30era arte izanen da. Gehienez ere 120 lagunek parte hartu ahal izanen dute.

Erran bezala, ekitaldiaren muina Mintzodromoa izanen bada ere, horrez gain ekitaldian musika, bertsoak, zozketak… ere izanen dira. Eta akabailan, 12:30 aldera, parte hartzaile guztientzako luntxa izanen da.

Bidasoa karrikako eta Agerra auzoko argiteria berritzeko lanak eman dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko 2017-2019 azpiegitura planaren barrenean bertze inbertsio bat esleitu du Udalak, Bidasoa karrika eta Agerra auzoko argiteria berritzeko.

Obra horrekin zaharkitua dagoen argiteria kendu eta LED teknologia duen argiteria jarriko da. Gainera, argi kontsumoa jaitsiz, urtean 6.000 euro aurreztea espero da.

Obrak 217.044,29 eurotan esleitu dira eta %60ko dirulaguntza dute Nafarroako Gobernuaren aldetik.

Bidasoa karrikan, espaloian zehar argiteriaren kableentzat tuboak sartu behar direla aprobetxatuz, espaloi osoa moldatzeko asmoa du Udalak.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Santa Zezilia ospatu dute musikariek

Santa Zezilia ospatu dute herriko musikariek. Azaroaren 16an, abesbatza eta musika banda elkarrekin atera ziren Altzate karrikan barna. Biharamunean, garai bateko Zizkuitz txarangako kideek ospatu zuten eguna, karrikaz karrika musika joz eta Gure Txokoa elkartean bazkalduz.

Euskal mitologiaren inguruko arte proposamenak

Euskal mitologiaren inguruko proposamena artistikoak izenarekin, zenbait ekimen prestatu dituzte abenduaren 7rako. Ortziralean 15:00etan *Zubilanak eginez* ikuskizuna eskainiko dute Areto Nagusian eta 15:30ean ibilaldi-erakusketaren estreinaldia erakusgelan.

Nafarroaren Eguna eta Olentzeroren prestaketak

Nafarroaren Eguneko kontzertua eskainuko du abenduaren 3an, astelehenean 13:00etan Iruñeko ahots baxuen abesbatzak San Esteban elizan. Bertzetik, Olentzero kalejira herrikoia prestatzeko entsaioa abenduaren 12an eginen dute musikariek (18:00).

Argaitzen paratutako panelari buruzko azalpenak eman zituen Nahia Senperrek.



1936an lekuko izan ziren hiru lagun, Herriko Etxeko eskulturaren ondoan.

Omenaldi hunkigarria eskaini diete 1936ko biktimei eta senideei

Panela eta murala bistarazi dituzte Argaitzeko harrobian eta Mikel Iriarteren eskultura lanak Herriko Etxeko Plazan

TTIPI-TTAPA

Udalak omenaldi hunkigarria eskaini zien 1936ko gerrako biktimei eta beraien ondorengoei, azaroaren 18an egindako ekitaldian.

Ekitaldiak bi gunetan banatu zituzten, Argaitzeko harrobian eta Herriko etxeko plazan. Harrobian lore-eskaintza egin zitzaien biktimei, harresian Nahia Senper, Nerea Fagoaga eta Andrea Gouraud herriko artistek margotutako murala bistaratu zuten, Pettiren ahots bikaina aditu zuten eta harrobian gertatutakoaren informazio panelaren aurkezpena ere egin zuten. Gertatutako testigantzen pasarte batzuk ere irakurri zituen Jon Abril aurkezleak. 1936ko irailetik 1937ko urtarrilera 130 lagun baino gehiago fusilatu zituzten harrobian, Nafarroan fusilatu gehien izan ziren lekua toki memorialistiko izendatzea espero du Udalak. Izan ere, 96 urterekin ekitaldian egon zen Paco Perez Lusarreta, Gernika Bataloiko gudariak bere garaian erran zuen bezala, «memoriaren etsaia ez da denbora, isiltasuna baizik».

Mikel Iriarteren eskultura

Harrobitik herrira, eguerdian Herriko Etxeko plazan, Donamariako Mikel Iriarte Antxorena eskultoreak egindako oroitarri baten inaugurazioa egin zuten eta egileak berak artelanean irudikatu nahi izan duena azaldu zuen: «Korten altzairuan egindako lan honetan, elkar besarkatzen duten bi pertsona irudikatu nahi izan ditut, eta plazako harlauzetan, ahantzien oroigarri diren xafla batzuk ere ezarri ditugu, baita Ibardin aldera bideratuak dauden oinatzak ere, 1936an ihes egin behar izan zutenen bidea irudikatuz». Nafarroako Gobernuko Bake, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiak, Alvaro Baraibarrek eta Josu Iratzoki alkateak eta Aitor Elexpuru kultura zinegotziak hartu zuten hitza, baita errepresaliatuen senideek eta ondorengoek ere, Bergaran bizi den Ane Miren Seminario, 1936an fusilatu zuten Cesareo Seminario taxi-gidariaren bilobak eta Silvia Mazizior, ihes egin behar izan zuen Eloy Aldazabalen bilobak, hain zuzen. Ohorezko aurreskua, Kattalin Berasain Goia eta Suharri Iratzoki Senper, errepresaliatuen birbilobek dantzatu zieten omenduei, Katti Irastortzaren bibolinaren doinupean eta bukatzeko abesbatzak ere I*sidoro Fagoaga* (hau ere, Gursen preso egon zen) eta *Agur Jaunak* abestu zituen. Ekitaldi hauek Udalak antolatu ditu, herritar talde batekin batera eta Nafarroako Gobernuak ere diruz lagundu du.

Hasieran, Bidasoa karrikako etxebizitza batzuetan oraindik ageri diren ikur frankistak kentzeko asmoa zuten, baina lan hori egunotan eginen dutela aipatu zuten.

XIV. Keinu Leihoak antzerki zikloa larunbatean hasiko da

Bi antzezlanez gain, Asier Gogortza argazkilari beratarraren 'Mendebalde' erakusketa ikusgai izanen da Harriondoan

AITOR AROTZENA

Mairu Antzerki Tailerrak *Keinu-Leihoak* antzerki jardunaldien hamalaugarren edizioa antolatu du. Aurten, berrikuntza moduan, argazki erakusketa batekin abiatuko da. Abenduaren 1ean, Asier Gogortzaren *Mendebalde* argazki erakusketa irekiko da larunbatean 19:30ean Harriondoan. Berako argazkilariaren proposamen honetan, baserriaren atzealdeak bakarrik ageri dira, kasu gehienetan mendebaldeko horma izaten den hori. Segidan, larunbatean bertan 20:00etan, Ximun eta Manex Fuchs anaiek osatzen duten Axut! Taldeak *Zazpi senideko* antzezlana eskainiko du, Ander Lipusen zuzendaritzapean. Bi aktore, bi anaia eta anaitasun ebatsiaren inguruko zazpi istorio antzerkira ekartzen ditu antzezlanak, tartean Gaizka Sarasola herritarrarena.

Bukatzeko, Miren Tirapu zuzendari eta antzezle duen Beheko Larraineren proposamen berria, *Manifestu bat* antzezlana taularatuko dute abenduaren 16an, 18:00etan Kasinon.

Su-egur lotea eskatzeko aukera ireki du Udalak

Etxerako su-egur lotea nahi duenak *www.lesaka.net* webgunetik edo 948 63005 telefonora deituz eman dezake izena abenduaren 31 arte. Loteak bortz tona ingurukoak dira eta Zambrara garraiatuko dira. Lote bakoitzak 200 euro inguru balio du.

San Nikolas eguneko kalejira abenduaren 6an

Gerra ondotik galdu zen ohitura berreskuratu zuten duela urte batzuk herrian eta aurten ere, abenduaren 6an, herriko neska-mutikoak kopla zaharrak kantari ibiliko dira karrikaz karrika arratsean. Horietako bat, asto gainean ibiltzen da mozorroturik.

UTZITAKOA/OSCAR GASKON/JAVIER GERNANDEZ/J.M ROMERO/JON MARTINEZ

Argazki lehiaketako sariak eman dituzte

Beti Gazteren argazki lehiaketako lehen saria Irungo Oscar Gaskonek eskuratu du (*Comunidad de vecinos*), bigarrena Kantabriako Castro Urdialesko Javier Gernandezek (*La revolution*), kirol argazki onena Ordiziako Jose Miguel Romerorena (*Ciclocross-1*)eta herriko argazki onena, Jon Martinezena (*Bere tokian*). Aurkeztutako 89 lanak igandera bitarte ikus daitezke, Kultur Etxeko komentuan.

68 dozena eta bi uso harrapatu dituzte aurten sareetan

Pirinioetako 9 sarezko usategien artean laugarren gelditu da Etxalar eta larunbatean eginen dute bazkaria Napalen

IRUNE ELIZAGOIEN

Azaroaren 20ean bukatu zen sarezko uso harrapaketa tradizionalaren denboraldia. Behe-laino eta hego-haize egun aunitz izan direnez, aurtengoa «ez da batere sasoi ona» izan. 68 dozena eta bi uso harrapatu dira sareetan. Bisita gidatuei dagokienez, 300 lagun baino gehiago hurbildu dira Usategietara, gehienak Hego Euskal Herritik etorritakoak. Pirinioetako bederatzi sarezko usategien harrapaketen zerrendari dagokionez, aurten Etxalar laugarren postuan gelditu da.

Uso gehien harrapatu duen usategia eta txapel haundia eramanen duena, Napal izan da 1.374 uso harrapatuta, bigarren Lanne 1.200 usorekin, hirugarrena Oskix, 1.015rekin, laugarrena Etxalar, 818rekin, bosgarrena Lantabat 582rekin, Lekunberri 207rekin, Behorlegi 104rekin, Aldude 93rekin eta boneta ttikia Sarako usategientzat, 77 usorekin. Datorren abenduaren 1ean, Pirinioetako sareetako usazale guztien urteroko bazkaria ospatuko da Napaleko usategietan.

Herriko Ostatuaren hirugarren urteurrena

Abenduaren 1ean 20:00etan opari gaua eta kontzertua (Orihen), abenduaren 24an ilunabarrean poteoa taloekin, abenduaren 28an 22:00etan Performance musikala margolariekin eta abenduaren 31n 19:30ean poteoa txokolate iturriak eta fruta brotxetekin.

Bazkideen Eguna Larraburuan abenduaren 3an

Astelehenean Bazkideen Eguna ospatuko dute Larraburuan eta aurten 80 urte bete dituztenak omenduko dituzte: Virginia Arburua, Maria Luisa Larrañaga eta Santiago Sainz. 12:00etan hildako bazkideen aldeko meza izanen da eta segidan bazkaria Larraburuan.

ETXALARKO USATEGIAK

Usategietako VII. gastronomia lehiaketa

Usategietako VII. gastronomia lehiaketan zortzi jatetxek parte hartu zuten azaroaren 9an. Urrezko paleta Arantzako Burlada jatetxeak, zilarrezkoa Sarako Hordagok eta berrikuntzarena Iruñeko El Bonitok eskuratu zuten. Zozketako lehen saria (12 uso bizirik) atera gabe dago: 3.013 da zenbaki saritua.

LANDAGAIN ESKOLA

Xorroxin Irratia Landagain eskolan

Landagain eskolako ikasleek irratsaio bat egiteko beharrezkoak diren lanak ezagutzeko aukera izan zuten azaroaren 13, 14 eta 15ean. 5. eta 6. mailako ikasleak lanean aritu ziren eta Ainhoa Almandoz tutoreak bideratuta, eduki politez gauzatutako programazioa eskaini zuten.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINBERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

USOA
Nekazari kooperatiba
ORAIN GASOLINA ERE
T. 948 635 214 ETXALAR

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

IGANTZI

'Desentxufatiak' antzezlana eskainiko du Tartean Teatro Taldeak. UTZITAKOA

Ongi hornitutako Kultur Egunak datoz aurten ere

Abenduaren 5etik 9ra bitarte antolatu dituzte eta hondar egunean Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus ariko dira kantari

TTIPI-TTAPA

Aurtengoan ere egitarau zabala prestatu du herriko euskara batzordeak, bertakoen, Udalaren eta eskolaren laguntzarekin.

Abenduak 5, asteazkena

Errementari filmaren emanaldiarekin hasiko dira Kultur Egunak. Emanaldia Erretorbaitan izanen da, 19:00etan.

Abenduak 6, ortzeguna

12:00etan herriko dantzarien saioa, karriketan barna. Kasu honetan 12 urte bitarteko dantzariak ariko dira.

Arratsaldean, berriz, 16:30ean hasita, *cooki*eak (gailetak) egiten ikasteko tailerra izanen da, haurrentzat, Biltokin. 18:00etan, haurrentzako ipuin kontalaria izanen da gimnasioan. Estitxu Mentaberriren eskutik izanen da, eta *Betaurreko moreak jarri eta mundua irauli* ipuina eskainiko du. Eguna borobiltzeko, eskaladari buruzko solasaldia eta ikus-entzunezkoa eskainiko dute Andoni Arregi eta Imanol Amundarain eskalatzaileek Biltokin, *Madagaskar, eskalada aitzaki* emanaldiarekin, 19:00etatik aitzinera.

Abenduak 7, ortziralea

Ekitaldi bakarra izanen da egun honetan: helduentzako antzerki emanaldia: Tartean Teatro Taldeak *Desentxufatuak* antzezlana eskainiko du. Emanaldia Baratzondon izanen da, 21:00etan.

Abenduak 8, larunbata

Aurten, eskolak antolatuta, Arantza, Etxalar eta Igantziko eskoletako ikasleen arteko bertsopaper lehiaketa izanen da. Hiru eskoletan bertsolaritza lantzen ari dira Estitxu Arotzenarekin. Ikasleek beraien bertsoak prestatu eta lehiaketa horretara aurkeztuko dituzte. Abenduaren 8an, 16:30ean, sari-banaketa eginen da, eta saritutako bertsoak aditzeko aukera izanen da. Lehiaketara aurkeztutako bertso guztiekin erakusketa osatuko dute, eta ikusgai egonen dira Baratzondon, Kultur Egunetan. 17:00etan, haurrentzako txalaparta tailerra izanen da. Eguraldi ona eginez gero frontoian izanen da; bertzela, gimnasioan.

Abenduak 9, igandea

Kultur Egunei akabaila borobila emanen zaie aurten. Gaztain- eta opil-jatea izanen da Baratzondon, 17:30ean, puntako bertsolariekin: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gai jartzaile Josu Sanjurjo ariko da. Helduek sarrera bortz euro ordaindu beharko dute, eta hamabi urte bitarteko haurrek bi euro.

Garbitu beharreko eraikinen artean mediku kontsulta dago. O.TXOPERENA

Herriko eraikinak garbitzeko kontratazioa

Bi lagun kontratatzeko epea ireki du Udalak. Lanaldi erdiko kontratua eginen zaie eta aldi baterakoa. Euren zeregina herriko zenbait eraikin garbitzea izanen da: eskola, mediku kontsulta, Herriko Etxea... orain arte egiten diren lanak guztiak. Abenduaren 7an, ortzegunean, 14:00etan akabatuko zaie epea lan honetarako izena eman nahi dutenei.

Udazkeneko bazkaria eginen dute Baratzondon

Abenduaren 1ean bazkaria izanen dute Baratzondo Elkarteko bazkideek. Garai honetan urtero egiten duten ekitaldia da eta, ordurako akabatuak izanen dituztenez, mus eta partxis txapelketen sariak banatzeko bazkalondoko giroa aprobetxatuko dute.

Urte xaharra *Churrut Jatetxean*, bai ederki!!

Hotel Churrut HOTEL ***

Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40
T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

EGUNEKO MENUA
TALDEENTZAKO MENUAK,
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK eta BATAIOAK

2018ko Urte Zahar Gaueko Menua

Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin,
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin,
Ganboiak plantxan.
******
Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.
******
Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.
******
Etxeko kremazko tututxoak,
txokolate bero eta praline-izozkiarekin.
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.
******
Pata Negra ardo ondua, Las Campanas ardo gorria
Las Campanas Chardonnay ardo zuria,
Codorniu Brut cava, kafea eta likore kopa.
******
Prezioa: 78€ BEZ barne

JANTZIGINTZA | GORTINAK
MOLDAKETAK | JOSKINTZA
TEJIDOS MARINA
GORTINAK eta hauek egiteko oihalak
BASERRITAR JANTZIAK egiteko oihalak
Almirante Arizmendi, 4 - behea
20302 • IRUN
T. 943 62 22 10
tejidosmarinairun@gmail.com

Gazteei begirada morea sortzeko espazioa ortziralean

Emakumeen kontrako indarkeria identifikatu eta horri aitzin egiten ikasteko saioa izanen da

NEREA ALTZURI

Azaroaren 25aren baitan, hainbat ekimen antolatu dira Emakumeen Kontrako Indarkeria gaitzesteko. Aste honetan, 12 eta 18 urteko gazteentzat, begirada morea sortzeko espazioa antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Arantzako Guraso Elkartearen laguntzarekin. Saioa, ortzirale honetan, azaroak 30, izanen da, 18:00etan Baskulan.

Tailerra parte-hartzailea izanen da eta genero indarkeriari buruz gogoeta egiteko espazioa sortuko da hainbat material erabiliz: pelikulak, abestiak, iragarkiak... Behaketa trebatuz, ikuspegi eta jarrera kritikoa bulkatu nahi dituzte. Zehazki, gazteek bikote harremanetako indarkeriak identifikatzen ikastea nahi dute, baita indarkeria sinbolikoa identifikatzen ere eta horrela horiei aitzin egiteko baliabide pertsonalak eraikiko dituzte.

Izena gurasoen bitartez eman daiteke, Whatsappez 637 32 08 82ra idatziz edo 948 63 50 36 telefonora deituz.

IKTetan sakontzen segitzen dute DBHko ikasleek

Informazioa eta komunikazioaren teknologiak egunetik egunera aldatzen ari dira. Hala, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailetik, DBHko ikasleek Chrome Book bana jasoko dute IKTetan sakontzen segitzeko. DBHko irakasleak ere formakuntza egiten ari dira.

'Denboraren joana' proiektuarekin eskolan

Iaz abiatu zuten *Denboraren Joana* proiektua eskolan eta ikasturte honetan ere Arantzako bizimodua urteekin nola aldatu den aztertzen segitzen dute. Horretarako familiekin elkarlanean ari dira; hainbat atautxi-amatxiri elkarrizketak egiten eta abar.

Eskolako ikasleen antzerkiak abenduaren 14an eginen dituzte

N. ALTZURI

Urte saila dira eskolan antzerkia landu eta jende aitzinean erakusten dela. Eta aurten ere horretan ari dira, Estitxu Mentaberri adituarekin antzerki topaketak prestatzen. Bi emanaldi eginen dituzte: lehenbizikoa, abenduaren 14an, herritarrentzat; eta bigarrena abenduaren 19an, Etxalar eta Igantziko eskoletako ikasle eta irakasleetzat. Hiru antzerki taularatuko dituzte.

Eguberritako zarea ere prest dute eta boletoak salgai daude. Zozketa abenduaren 14ko antzerki emanaldian eginen dute.

Eskolako patioan egin duten rokodromoa. UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako patioan hainbat joko egokitu nahi dituzte

N. ALTZURI

Hainbat lan egiten ari dira azken urteotan eskolan. Azken aldian, patioko espazioa berrantolatzeko proiektuaren barrenean, jokoak eta atalak egokitzen ari dira.

Patioan, lehendik frontoia eta saskibaloian aritzeko saskiak baldin baziren ere, proiektu honi esker, haurrek, eta batez ere ttikienek, bertzelako jolasak ikasi eta praktikatzeko aukera izanen dute. Rokodromoa prest dago eta dena aurreikusi bezala ateratzen bada, jolas gehiago ere eginen dituzte patioan. Guraso batzuk ari dira hori guztia koordinatzen.

Mendi abesbatzak kontzertua emanen du abenduaren 3an

Nafarroaren Eguneko emanaldia eskainiko du astelehenean 13:00etan elizan, Nafarroako Gobernuak antolatuta

MAIDER PETRIRENA

Abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko Egunean, hain zuzen ere, kontzertua eskainiko du Mendi abesbatzak elizan 13:00etan, Nafarroako Gobernuaren gonbidapenari jarraiki. Emanaldi honetarako Nafarroarekin zein euskararekin zerikusi berezia duten kantak aukeratu dituzte, egun berean ospatzen baitira Nafarroaren Eguna eta Euskararen Nazioarteko Eguna. Tartean izanen dira egile nafarren lanak edota Nafarroako doinuen gainean sorturiko obrak; Lorenzo Ondarraren *Herri Behera*, Elizondon jasotako melodiaren gainean Xabier Sarasolak sorturiko *Neskatx' Ederra* edo Aita Donostiaren *Hiru Txito*, baita hainbat doinu ezagun ere; *Baratze bat* eta *Xalbadorren Heriotzean*, erraterako. Kontzertua Nafarroako Ereserkiarekin hasiko da, Gobernuak eskatuta, Nafarroako hainbat herritan bertze musika taldeek eginen duten moduan.

Ariztigain kanpinaren denboraldi bukaerako besta abenduaren 15ean

MAIDER PETRIRENA

Ariztigain kanpinaren denboraldi bukaerako besta abenduaren 15ean ospatuko dute. 16:00etan haurrendako jokoak izanen dituzte, 17:00etan Mus tximista, 17:30ean txokolatada, 18:00etan bingoa eta 21:00etan denboraldi bukaerako afaria (magra, arrain pudina, ahate entsalada, txanpinoiz betetako krepak, entrekota eta pantxineta helatuarekin, ardoa, ura, sagardoa, ogia, kafea eta koparekin hornitua. Bazkariaren prezioa 30 eurokoa da eta apuntatzeko 948 450 540 telefonora deitu behar da, abenduaren 12a bitarte. Afal ondoan Mariachis Tierra de Oro taldearen emanaldia izanen da.

ITZIAR ERASUN ERAUNZETAMURGIL

Kenpo-kai azterketak eginen dituzte

Abenduaren 15ean Oiartzunen kenpo-kai azterketak izanen dituzte Jone Bertiz Ariztegi, Aroa Ibarra Jaimerena, Sugoi Irazoki Arroyo, Nahikari Gonzalez Goikoetxea, Aurkene Iturralde Ezkurra, Ainhoa Armendariz Aizkorbe, Nahia Bertiz Babaze, Ekiñe Bertiz Ariztegi eta Eneritz Iturralde Ezkurrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Unai Bertiz arpana txapelketa mistoan

Doneztebeko ferietan urteroko moduan, aizkora apustu ederra izan zen ikusgai. Aurtengoan Nafarroako arpana txapelketa mistoa ere jokatu da eta bertan Unai Bertiz herritarrak Iruñeko Esti Gastearenarekin parte hartu du hirugarren postua lortuz. Zorionak bikote eta segi horrela.

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Alberto RETEGI
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

PSIKOTERAPIA - PSIKOANALISI
ZERBITZUA
650 654 209
psizerbitzua@gmail.com
Rosa Seminario 6 (B)
Doneztebe

Joan den urtean Karmentxu Mariezkurrenak jaso zuen Zilarrezko Titarea.

Abenduko agenda poliki-poliki betetzen ari da

Erreka Kirol Taldearen eskutik, eskubaloiko taldeen aurkezpenarekin abiatuko da

MARGA ERDOZAIN

Abenduak hitzordu aunitz dakartza. Abenduaren 1ean Erreka Kirol Taldeak eskubaloiko talde guztien aurkezpena eginen du, sorpresaz beteriko ekitaldia izanen da. Abenduaren 9an, berriz, zinema emanaldiak izanen dira, 16:30ean eta 18:30ean. Bertzeak bertze, *Campeones* filma pantailaratuko dute. Antzerkizaleek ere izanen dute gozameneko tarterik. Izan ere, abenduaren 15ean *Lau aulki hirurendako* antzezlana ikusteko aukera izanen da, 18:30ean. Egun berean, 20:00etan Mendi Abesbatzak eta Donostiako Txistulariek Eguberrietako Kontzertua eskaintzea aurreikusi dute. Bien bitartean, Santa Luzia Egunean, hilaren 13an, ohi bezala, Zilarrezko Titarearen ekitaldia eginen dute.

Ez dira antolatutako ekitaldi bakarrak: abenduaren 16an artisauen erakusketa eta bertako merkatarien tonbola eginen dute; hilaren 22an herri-kirolak eta crossfit-en arteko desafioa... Hurrengo zenbakian ekitaldi horien guztien zehaztapenak emanen dira; baita Eguberrietako egitarauarenak ere.

Liburutegiko digitalizazioa aitzinera doa eta akitu bezala ateak irekiko dituzte

MARGA ERDOZAIN

Nafarroako Gobernua egiten ari den digitalizazio-lanek aitzinera segitzen dute. Dagoeneko helduen literatura digitalizatua dago eta abendurako haur eta gazteena akituko dute. Ikus-entzunezkoak ere abenduan zehar digitalizatuko dituzte. Lan horiekin gela nagusiko ale guztiak digitalizatuak izanen dira. Hori burutzean, liburutegia zabalduko da.

Hurrengo urratsak honako hauek izanen direla aurreikusi dute: bazkidetza txartelak egin, maileguan dauden aleak itzuli eta digitalizatu eta zerbitzua ohiko funtzionamendura itzuli.

Liburutegiaren ixteak eragozpenak sortarazi dituen arren merezi duela uste dute. Izan ere, zabaltzen denean erabiltzaileek katalogoa sarean ikusteko aukera izanen dute; eta horretaz gain, liburutegitxartelarekin liburutegien arteko mailegua erabiltzeko aukera izenen dute. Era berean, plataforma digitalei esker, aldizkari eta filmak eskuratzeko aukera ere eskainiko dute.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Ezkurra eta Mindegiaren lorpenak

Bi kirolari handi horiek hamaika berri on jasotzera ohitu bagaituzte ere, pozgarria da aitortzak jasotzen segitzen dutela ikustea. Zorionak Koteto eskuratutako dominagatik eta Niko zuk ere gozatu Frantziako eskubaloi ligan urriko jokalari onena izendatu zaituztelako!

Merkatari elkarteak 'Eguberrietako estra' zozketatuko du

Azaroaren 19an abiatu zen kanpaina eta abenduaren 13a bitarte indarrean egonen da. Horrela, egun horietan txartel bat banatuko dute eta hori zigiluz betetzen dutenen artean 700 eta 300 euroko balioa duten bi erosketa-txartel zozketatuko dituzte.

DONEZTEBE

Joan den urtean Bonozorrotzera egindako ateraldian. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Errekaren eskutik Mendiaren Eguna abenduaren 15ean

Urtasun eta Errandoneak *Manaslu: o elegir entre valores* proiekzioa eskainiko dute

MARGA ERDOZAIN

Bertze urte batez, Mendiaren Eguna antolatu du Erreka Kirol Elkarteak, eskualdeko hainbat merkatari eta zerbitzuren laguntzari esker. Aurten Alberto Urtasun eta Julen Errandonea mendizaleak izanen dira herrian eta mendizaleen gozamenerako egun osoko egitaraua antolatu dute.

07:30ean autobus geltokitik abiatuta, Bonozorrotzera joanen dira. Mendi-itzulia egin ondotik, 13:00etan poteoan ibiliko dira eta 14:00etan mahaiaren bueltan bilduko dira. Eguna Iruñeko Alberto Urtasun eta Julen Errandonea beratar mendizaleek eginiko *Manaslu: o elegir entre valores* bideo-proiekzioarekin akituko dute. 19:00etan dute hitzordua, zineman eta sarrera dohainik izanen da. Proiekzioak beratar gaztearen Himalaiako lehenbiziko espedizioa eta iruñearraren 17. itzulia ardatz, himalaismoa, etika, baloreak... jorratuko ditu.

Bazkari-txartelak

Dagoeneko salgai daude Titi ostatuan. Abenduaren 12a, asteazkena, arte erosi ahal izanen dira.

MALERREKA

Azaroaren 14an aurkeztu zuten Malerrekako Hamaikakoa. MAIALEN BELARRA

Euskaraldian 600 lagunek eman dute izena

Ortziralean Euskaraldia Kantuz eta astelehenean bukaera ekitaldia izanen dituzte

MARGA ERDOZAIN

Aurreikuspenak gainditu dira. Ia 600 lagunek izena eman dute. Kike Amonarrizek aurkezpenean helarazitako mezua ederki zabaltzen ari dira.

Azaroaren 23an hasiera altxaferoa bota eta trikipoteoarekin ederki hasi zuten hamaika eguneko erronka.

Azaroaren 28rako Mintzodromoa aurreikusi zuten. Kafe eta pintxo batzuen bueltan mingainak eta belarriak dantzak jartzekoak zituzten. Abenduaren 1ean, Malerreka Kantuz, Euskaraldia Kantuzekin ordezkatuko da. Hitzordua Ezkurran dute, 12:00etan eta plazatik abiatuko dira.

Abenduaren 3an meriendatxoa

Abenduren 3an, astelehenean, ekimenari bukaera sinbolikoa emanen zaio; amaiera hasieraren berpiztea izanen da eskualdeko herritarrentzat. Izan ere, hamaika egunez euskaraz bizi ondotik, Ahobizi edo Belarriprest rolarekin jarraitzeko helburuz bilduko dira. Egun horretan ospakizuna borobiltzeko meriendatxoa izanen dute, 17:30ean, Herrigunean.

Kontsumo ardurduratsuari buruzko tailerrak abendura arte eskolan

TTIPI-TTAPA

Nilsaren eta Mankomunitateko adituen elkarlanari esker, Pulunpa eskolan hondakinen trataerari eta kontsumo arduratsuari buruzko tailerrak egiten ari dira. Abendura arte eginen dituzte.

Egindako saioen artean, bisitarik izan dute. Zehazki, azaroaren 14an, Nilsako adituak eskolan izan ziren. Ikasleak taldeka banatu zituzten eta ordu batez, gai beraren hainbat alderdi landu zituzten. Zehazki, Haur Hezkuntzako ikasleek *Zaindu dezagun ura* tailerra egin zuten; Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoek, berriz, *Erabiltzen dugun ura* izan zuten hizpide; bigarrenekoek *Uraren bidaia* ikasi zuten; eta hirugarrenekoek *Argi ibili urarekin* saioa egin zuten. Mailaren arabera banatuta landu baziren ere. guztiak uraren erabileraz hausnartzeko saioak izan ziren.

Dagoeneko ikasitakoa praktikan jartzen hasiak omen dira. Kontsumo eta hondakinen trataera arduratsura bidean urrats garrantzitsu bat eman dute Pulunpariek.

AINARA MINDEGIA

Sanmartin parte-hartzaileak Aurtizen

Trikitilarien eta panderojoleen emanaldia, dantzarien saioa, aizkora apustua, herri-bazkaria, haurrendako jokoak... haur, gazte eta helduendako hainbat ekitaldi izan zituzten sanmartinetan. Giro ederra eta parte-hartze handia izan dute lau egunetan.

Izeta Sariketan parte hartu du Egoitz Gorosterrazuk

VIII. Izeta Sariketan 12 gaztek parte hartu dute; tartean izan da Egoitz Gorosterrazu. Lizarrako kanporaketan aitzinera egitea lortu ez bazuen ere, bikain aritu zen. Hemendik aitzinera ziur burua datorren urteko Nafarroako txapelketan izanen duela!

Javier Seinek denboraldi borobila egin du

Txirrindulari gazteak bukatu ditu aurtengo lasterketak. Hainbat txapelketetan hartu du parte eta batzuetan bertzeetan baino emaitza hobeak lortu ditu. Diario de Navarrako Openean eta Caja Ruraleko kopan, erraterako, hirugarren postua lortu du.

ZUBIETA

Partida ikusgarriak eskaini zituzten Lemoan azaroaren 17an. UTZITAKO ARGAZKIA

Elizaldek finalerdiak jokatuko ditu Amezketan

Abenduaren 2an, igandean, ariko da Azkoitiko pilotalekuan jokatuko den finalerako txartela eskuratzeko lehian

FERMIN ETXEKOLONEA

Promozio mailako Master Cup txapelketaren azken txanpan sartuak dira. Finalerdiak erabakita daude. 80 lagunek hasi zuten ibilbidean lauk lortu dute txartela. Elizalderekin batera, Amaia Aldaik, Araitz Eizagirrek eta Oihana Orbegozok lortu dute lehiarako sarbidea. Abenduaren 2an, heldu den igandean, aurrez aurre ariko dira, Amezketako pilotalekuan, lau eta erdiko finalerako sailkatzea lortzeko norgehiagokan. Egun horretan erabakiko da nork jokatuko duen Azkoitiko pilotalekuan.

Ibilbide ikusgarria

Ibilbide polita egin dute. Partida ikusgarriak eskaini dituzte. Bereziki azaroaren 17an, Lemoako pilotalekuan ikusmira handia eragin zuten Agirreren, Eizagirreren eta Elizalderen arteko partidek. Ikusleek emozioz bizi zituzten. Zubietarrak bat irabazi eta bertzea galdu zuen: 18-17 larri-larri gailendu zitzaion Naroa Agirre eta ondotik 14-18 irabazi zion Araitz Eizagirreri. Finalerdietarako txartelak tanto aldeari begira erabaki behar izan zituzten, eta horri esker sailkatzea lortu zuen herritarrak.

UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaraldia sustatzeko bideoklipa

Euskaraldiko batzordeetako batek hala eskatuta, egitasmoa sustatzeko bideoklip bat grabatzeko ardura hartu zuen Julietak. Euskaraz Zubietan ikasi zuenez, esker on gisa, herrian grabatzea erabaki zuen eta azaroaren 18an egin zituzten grabaketak eta laster Youtuben izanen da ikusgai.

Beñat Ripodas da Zubieta eta Iturengo Udaleko idazkari

Epaimahaiak proposaturiko pertsonak, Jon Etxaguek, postuari uko egin ondotik, prozeduran bigarren gelditu zen Beñat Ripodas Beroiz izanen da Zubieta eta Iturengo Udalen Elkartzeko idazkaria. Horrela bada, abendutik aurrera idazkaria izanen da herrian. Bide batez, deialdia enplegu poltsa osatzeko aprobetxatu dute. Hala, geroko beharretarako, honakoa da osatu duten zerrenda, dei hurrenkeran: Xabin Juaristi Arrieta eta Izaskun Etxeberria Larraburu.

Euskaraldian murgilduta daude herritarrak

Datuak dira lekuko. 57 lagunek eman dute izena. 16 urte baino gutxiago dituztenek izenik eman ezin dutela kontuan harturik, bada zoriontzekoa!

Juliana Mutuberria herritarra hil da

Hamahiru urtez Xorroxin irratiko berriemaile izan zen Juliana Mutuberria herritarra hil da, 87 urte zituela. Doluminak familiakoei.

Sanandresen harira, abenduaren 1ean bazkaria izanen da

Bezperan goizean luntxa eta arratsaldean txokolate beroa eskainiko dituzte

Trinketean bilduko dira bazkarian.

TTIPI-TTAPA

San Andres Egunaren harira, ekitaldiak antolatu dituzte herrian. Heldu den ortzirale eta larunbaterako, azaroaren 30erako eta abenduaren 1erako, zehaztu dute hitzordua. Herriko gazteek haur, gazte eta helduen gozamenerako ekitaldiak antolatu dituzte.

Ortziralea, azaroak 30

11:00etako mezarekin abiatuko dute eguna eta mezondoan luntx gozo-gozoa dastatzeko aukera izanen dute. Arratsaldean, berriz, hotzari aitzin hartzeko txokolate beroa eskainiko dute, herriko plazan.

Larunbata, abenduak 1

Biharamunean ospakizunekin segiko dute. 11:30ean herriko ttikiendako ipuin-kontaketa izanen da. Ameli eta Xirrikituen jostunek kontalarien eskutik irudimenak martxan jartzeko aukera izanen dute.

Eguerdian mahaiaren buelta bilduko dira, bazkaltzeko. Aitzineko urteetan ez bezala, aurten trinketean dute hitzordua, 14:00 aldera. Bazkalondoan, Hauspolariek taldearen musikak girotuko du herria. Nahi duenak besta luzatzeko aukera izanen du.

Bazkari-txartelak

Bazkari-txartelak eskuratzeko azken eguna azaroaren 25a bazen ere, oraindik orain, joan nahi duenak badu aukerarik, bortz euro gehiago ordainduta (30 euroren truk). Interesdunek herriko gazteren batekin harremanetan jarriz eman dezakete izena.

Euskaraldiarekin bat

Aurten San Andres Eguneko ospakizunak badu ukitu berezi bat. Izan ere, herritar aunitzek Euskaraldiarekin bat egin du, Ahobizi edo Belarriprest gisa.Beraz, hilaren 23an hartutako Ahobizi eta Belarriprest rolei eutsiko diete.

Arraioz parean azterketak egin dituzte Baztan ibaian

Lan horiek eta bertze hainbat aurkeztu dituzte ibaiak lehengoratzeko bioingeniaritzako jardunaldian

TTIPI-TTAPA

H2O Gurea Planaren baitan, Kantauriko arroetako ibaien egoera ekologikoa hobetzeko helburuarekin, bioingeniaritza arloko irtenbideei buruzko jardunaldia egin zen azaroaren 15ean Iruñean, eta Euskal Herriko, Aragoiko eta Asturiasko ehun profesional eta teknikari baino gehiago bildu ziren. Bioingeniaritzak landareak elementu nagusitzat hartzen ditu paisaia eraikitzeko eta birsortzeko.

Planaren barne presak eraitsi dituzte.

Hainbat adituk eta ordezkarik hartu zuten hitza jardunaldian. Eva Garcia Balaguer Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak jardunaldiaren garrantzia azpimarratu zuen: «teknika horiek aplikatzeko bertze urrats bat da, eta modu honetan, ibaietako ekosistemetako presioen eta inpaktuen aitzinean irtenbide berriak proposa daitezke, horien ondorioz, hondamen ekologikoa eta ingurumen arlokoa gertatu baita, eta beraz, gizakia ibaietatik urrundu da».

Paola Sangalli Paisaiaren Bioingeniaritzako Europako Federazioko lehendakariak, bere aldetik, paisaiaren bioingeniaritzak ikuspegi integratutik esku hartzen duela adierazi zuen: «ibaiertzetako landareak berreskuratzeko, ibai bazterrak egonkortzeko eta ibaietako habitatak birsortzeko prozesu naturalak bizkortzen dituen motorea da».

Jardunaldi berean, Nafarroako Gobernuko, Euskal Hirigune Elkargoko, Gipuzkoako Foru Aldundinko eta Uraren Euskal Agentziako teknikariek bioingeniaritzako teknikak erabilita ibaiak lehengoratzeko hainbat proiektu pilotu azaldu zituzten.

Jose Igancio Bergarak, Nafarroako Gobernuko Ibaiak Lehengoratzeko eta Arrainen Hazkuntzaren Kudeaketa Atalekoak, Arraiozen, Baztan ibaian egindako lanen berri eman zuen: «ibaiaren ia kilometro bateko zati bat aztertu eta zortzi teknika erabiltzea erabaki dute. Horietako bi berriak dira gure lurraldean: estratu bizia eta arrabota bizia».

Jardunaldia borobiltzeko Nafarroako Ingurumen Kudeaketako Maria Diez de Arizaletak Bioingeniariatzako Eskuliburua aurkeztu zuen.

H2O Gurea

Mugaz haraindiko uren kudeaketaren proiektuan bortz emari nagusi biltzen dira: Bidasoa, Urumea, Oria, Urdazuri eta Araxes. Plana 2016ko udaberrian jarri zuten abian, eta 2019ko maiatzean bukatzea aurreikusi dute. Ordurako bi helburu nagusi bete nahi dituzte: mugaz haraindiko arro guztien gaineko ikuspegia eraikitzea eta Europako legediak ezarritako helburuak lortzeko lan egitea.

Bertizko Libanoko zedroa artelan bihurtua

130 urte zituen Bertizko jaurerriko natur parkean dagoen Libanoko zedroak, baina idortua zegoen. Zuhaitz hori baliatu dute Iruñeko Arte Eskolako ikasleek beraien artelana egiteko. 6.600 euro kosta da *Bizi berri bat Bertizko zedroarentzat* izeneko proiektua eta zedroan paratu dituzten eskulturak animalienak dira. Azaroaren 9an egin zuten aurkezpena Nafarroako Gobernuko ordezkariak bertan zirela.

UTZITAKO ARGAZKIA

Jabier Salaberriak ateratako argazki hori izan da saritua.

Jabier Salaberriaren argazkia saritu dute ehiza jardunaldietan

TTIPI-TTAPA BERTIZ

Jabier Salaberriak ateratako argazkia izan da aurtengo Baztan-Bidasoko XXVI. ehiza jardunaldi gastronomikoen baitan antolatutako argazki lehiaketako irabazlea. Aipatzekoa da, joan den urtean ere bera izan zela irabazlea.

Laugarren argazki lehiaketan parte hartzeko, jardunaldietan parte hartzen duten jatetxeren batean otordua egin eta bidenabar ehiza platerei argazkia atera behar zitzaien. Hori eginez, 19 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara, eta epaimahaiak Salaberriak Elbeteko Posadan ateratako argazkia aukeratu du irabazletzat. Bi lagunendako otordua irabazi du sari gisa, ehiza jardunaldietan parte hartzen duten jatetxeren batean egin beharreko otordua, hain zuzen. Horrekin batera, urteko jardunaldiak ilustratuko ditu argazki saridunak.

Gogoratu, bertzalde, ortzirale honetan, azaroak 30, akituko direla Baztan-Bidasoko ehizari buruzko XXVI. jardunaldi gastronomikoak. Tarte horretan, eskualdeko bederatzi jatetxetan ehiza platerak dastatzen ahalko dira.


En la vida,
como en el
deporte,
Bizitzan,
kirolean
bezala,
IGUALDAD_
_BERDINTASUNA
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Baztango Kirol Taldeak lauko finala helburu

Senior taldeaz gain, harrobi sendoa mantentzen du, ia 200 neska ari baitira eskubaloian

Baztango BKT eskubaloi talde nagusia lider da Nafarroako ligan. ARGAZKIAK: EDURNE BIGURIA

SENIORRAK

Nagore IRIGOIEN IBARRA	ELIZONDO
Leire RAMOS IRAOLA	BERROETA
Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Nerea ETXEBERRIA OSKARIZ	ELIZONDO
Ainhoa ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Leire ORGANBIDE ELIZAGOIEN	ARRAIOZ
Nekane ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Jone LARRALDE CORDOBA	ELIZONDO
Ainhoa GALAIN ELIZALDE	IRAIZOTZ
Alaia IRIBARREN GONZALEZ	DONEZT.
Paula URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Naroa BERHO SANTOS	ORONOZ
Ane BERHO MIGELENA	ORONOZ
Oihane IRIARTE ELIZAINTZIN	ARIZKUN
Leire MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Miren GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO
Itxaso ETXENIKE BIGURIA	IRURITA
Maider ALTXU AIZPURU	ORONOZ
Lucia TRANCHE URTASUN	ELIZONDO
Andrea LIZASOAIN	ELIZONDO
Entrenatzailea: Ion MEDRANO	IRUN

Hamasei urtez eskubaloian jokatu ondotik (Bidasoan edo Errekan, bertzeak bertze), lehen aldiz talde bat entrenatzeari ekin dio Ion Medrano irundarrak. «Aulkitik eskubaloia ikustea arraro» egiten zaiola onartu arren, ezin erran gaizki ekin dionik ibilbide berriari, Baztango BKT eskubaloi taldea lider baita. Hori ikusita, helburu garbia dauka Medranok: «lauko finalean sartzea da lehen helburua, eta orain arte ikusitakoa ikusita, lortzeko moduko helburua dela uste dut. Neskak bere lana bikain egiten ari dira, bai bere kabuz, baita entrenamenduetan ere». Behin hori lortuta, ez du liga irabaztea baztertzen. Medranoren erranetan, «aukerak ikusten ditut, Malkaitz iruditzen zait talderik sendoena, eta ligan berdindu egin genuen».

Talde nagusiko lanaz gain, BKTko harrobian egiten den lana ere azpimarratu nahi izan du: «aurten 194 bat neska ari dira eskubaloian eta horiek ikusiz ere ikasi egiten da. Afizio handia dago».

Ttikienen taldeetan mutiko bat edo bertze ari bada ere, zail ikusten du duela urte batzuk bezala mutilen talderen bat sortzea Baztanen: «futbolak eta pilotak gehiago agintzen dute inguru honetan. Eskubaloia banatua dago eta badirudi eskubaloian aritu nahi duten mutilek Doneztebe aldera jotzen dutela».

BAZTANGO KT **JUBENILAK**

Nerea BARBERENA URRUTIA ERRATZU
Elena URRUTIA GOIENETXE ELBETE
Maialen ITURBIDE LAZARO ELIZONDO
Izaro DENDARIETA ESCUDERO IRURITA
Nahia BAYLON URTASUN IRURITA
Haizea EUGI GAMIO IRURITA
Leire ARRAZTOA ALEMAN IRURITA
Elena SOBRINO ETULAIN ARIZKUN

Saioa ETXART ETXEBERRIA ERRATZU
Ane BAYLON ITURRALDE ELIZONDO
Leire GONZALEZ GALARREGI ELIZONDO
Amaia ARIZALETA ITURBIDE ERRATZU
Hana IRISARRI URRUTIA ELBETE
Maria ORTIZ ESTABOLITE GARTZAIN
Goreti LANA DONEZTEBE
Ent.: Iñaki URIARTE-Pali GARMENDIA

BAZTANGO KT **KADETEAK**

Olatz ITURRALDE ARRETXEA ZOZAIA
Naroa BALLARENA GOIENETXE ELIZONDO
Naia IRIARTE ARRIETA ARIZKUN
Cecilia ADIN URTASUN ELIZONDO
Laura URTXULUTEGI ANTXORDOKI ERRATZU
Miren IRIGOIEN INBULUZKETA ELIZONDO
Haize OIARZABAL AIZPURU IRURITA
Julene BAYLON URTASUN IRURITA

Ainara GOÑI ALMANDOZ ELIZONDO
Maialen BERTIZ ORBEGOZO ELIZONDO
Naroa IRIARTE ELIZAINTZIN ARIZKUN
Amaia ETXABE AIZPURUA ERRATZU

Entrenatzaileak:
Nekane ASTIZ GOÑI LEKAROZ
Jone URIARTE JAIMERENA ERRATZU

BAZTANGO KT **INFANTIL A**

Nerea SANZ AZPIROZ ZIGA
Nahia GARAIKOETXEA LOBEIRAS BERROETA
Ane TRANCHE MORENO ELIZONDO
Patricia DEL CAMPO PELLICER ELIZONDO
Kandela IBAIBARRIAGA AGRA ELIZONDO
Haizea MARITORENA ERROZ ANIZ
Irati IPARRAGIRRE MEOKI ELIZONDO
Valeria ADIN URTASUN ELIZONDO

Ainara DENDARIETA ELIZAINTZIN IRURITA
Olaia MEOKI MUÑOZ ELIZONDO
Leire BALLARENA GOIENETXE ELIZONDO
Nahia JUANENEA FRIAS ELIZONDO
Joana BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
Entrenatzaileak:
Enrique PETRIRENA ELIZONDO
Rafa MITXELENA ELIZONDO

BAZTANGO KT **INFANTIL B**

Amaia GARATE APEZTEGIA ORONOZ
Leire MIHURA HABANS ELIZONDO
Ekiñe LAURNAGARAI ROS ELIZONDO
Elixabet BAYLON URTASUN IRURITA
Janire GARATE OPOKA IRURITA
Uxue ZABALETA ZAMORA ORONOZ
Maialen P. DE NANCLARES ETXABE ELIZONDO
Araitz ZABALETA ZAZPE IRURITA

Jone ETXEBERRIA ZABALETA ELIZONDO
Ane BARRENETXE BERTIZ ELIZONDO
Raika BALLARENA JUANBERRIA ELIZONDO
Nahia GARATE BARDECI IRURITA

Entrenatzaileak:
Begoña DURRUTI, Andres RODRIGUEZ,
Leire MUGIRO eta Oihane ELIZAINTZIN

BAZTANGO KT **ALEBIN A**

Naxara ALEMAN IRISARRI ELIZONDO
Meselech IRISARRI URRUTIA ELBETE
Irati BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
Nahia GALLEGO LEIZAGOIEN ELIZONDO
Miren ARRAZTOA GARBALENA GARTZAIN
Auza IPARRAGIRRE ITURZAETA ELIZONDO
Mikele JUBERA IDOATE LEKAROZ
Iraide ITURREGI ZELAIETA ELIZONDO
Jon GONZALEZ GALARREGI ELIZONDO
Natalia ROQUÉ AGUILERA ELIZONDO
Irune ITURRALDE GOÑI ELBETE
Maialen MIGELTORENA GASKUE BERROETA
Eider ERASO ETXENIKE IRURITA
Marina MENDIBURU OHARRIZ GARTZAIN
Marta DA SILVA TEIXEIRA ELIZONDO
Entrenatzaileak:
Miren GONZALEZ GALARREGI ELIZONDO
Paula URRUTIA GOIENETXE ELBETE

BAZTANGO KT **ALEBIN B**

Ane URREAGA ESCUDERO IRURITA
Uxue BIKONDO ARRETXEA IRURITA
June URRUTIA ERIZE IRURITA
Ioana BEOLA VELICHKOVA ALMANDOZ
Lur OIARZABAL AIZPURU IRURITA
Eider ERASO ETXENIKE IRURITA
Izaro LAKOSTA MARIEZKURRENA IRURITA
Naiara BRAÑA GAMIO IRURITA
Enara MINDEGIA ARGAIN IRURITA
Iraia GARATE OPOKA IRURITA
Oihana GAMIO EUGI IRURITA
Iradi GAMIO JUANKORENA IRURITA
Jasone BAYLON URTASUN IRURITA
Elaia VAQUERO ALEMAN IRURITA
Saioa PEROTXENA DANBORIENA IRURITA
Elisa ITURRALDE OLABE IRURITA
Aroa KORTARI ORONOZ
Clara EGURROLA OLABE ELIZONDO
Entrenatzaileak: Izaskun DANBORIENA eta Izaskun AIZPURU

BAZTANGO KT **ALEBIN C**

Iraide OBREGOZO MARTIRENA ELIZONDO
Ilazki IBARGARAI IRIBARREN ERRATZU
Naroa IPARRAGIRRE MEOKI ELIZONDO
Ane MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
Uxue GOÑI BIDEGAIN ELIZONDO
Nora GALLEGO IZETA ELIZONDO
Irati NEOL BURLADA ARIZKUN
Maddi LAZARO GARMENDIA ELIZONDO
Lucia BALDANTA ARRUIZ ELIZONDO
Entrenatzaileak:
Maider ALTXU eta Ane BERHO

BAZTANGO KT **ALEBIN D**

Saioa BARRENETXE BERTIZ ELIZONDO
Onintza GOROSABEL IRISARRI ELIZONDO
Jon IRIGOIEN INBULUZKETA ELIZONDO
Axular ALEMAN IRISARRI ELIZONDO
Maialen BALLARENA RIPA ELIZONDO
Kaiet ALEMAN UNANUA ELIZONDO
Aimar TRINIDAD DANBORIENA ELIZONDO
Iker GALARREGI GOENAGA ELIZONDO
Nahia ALZUGUREN ELIZONDO
Lorea LIZARDI MUGIKA ELIZONDO
Irati MEOKI BALLARENA ELIZONDO
Ent: Leire GLEZ-Ane BAYLON-Ainhoa ASTIZ

BAZTANGO KT **PREALEBIN A**

June DENDARIETA ESCUDERO IRURITA
Eider BIKONDO MARITORENA IRURITA
Ane GARAIKOETXEA OPOKA ORONOZ
Olaia OTXANDORENA PETRIRENA ORONOZ
Naroa ZABALETA ZAMORA ORONOZ
Ane MUGIKA BERTIZ ELIZONDO
Izaro YANCI IRIGOIEN GARTZAIN
Maite PRUAÑO GOÑI ELIZONDO
Uxue MINDEGIA ETXENIKE ORONOZ
Olaia AVILA DURAN ELIZONDO
Eider ZAMORA ETXABARRI ORONOZ
Entrenatzaileak:
Izaro DENDARIETA, Nahia BAYLON, Haizea EUGI eta Leire ARRAZTOA

BAZTANGO KT **PREALEBIN B**

Oihana LAURNAGARAI ROS ELIZONDO
Olaia ALEGRE HUARTE ELIZONDO
Itziar ZIAURRIZ GOÑI ELIZONDO
Saioa BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
Olatz GOÑI MEDRANO ELIZONDO
Aimar GALARREGI RIPA ELIZONDO
Eiara ARREGI SANSIÑENA ELIZONDO
Itsaso BALLARENA RIPA ELIZONDO
Izadi MIURA HABANS ELIZONDO
Janire SAROBE SANSIÑENA ELIZONDO
Ariane GARCIA SANSIÑENA ELIZONDO
Entrenatzaileak:
Izaro DENDARIETA, Nahia BAYLON, Haizea EUGI eta Leire ARRAZTOA

Erreka taldea lider sendoa da ligan

Doneztebeko eskubaloi talde nagusiak orain arte jokatutako partida guztiak irabazi ditu

Denboraldi hasiera bikaina egiten ari da Errekako eskubaloi talde nagusia. ERREKA KE

SENIORRAK

Adei IBARGARAI AGIRRE	NARBARTE
Alberto ETXAIDE RIPODAS	MUTILOA
Ander BERASATEGI ELIZONDO	DONEZ.
Asier ARANGUREN OKIÑENA	BARAÑAIN
Asier AROZENA MARIEZKURRENA	DONEZ.
Emilio ZABALA EZKURRA	DONEZ.
Ibai MARIZKURRENA SAGASETA	DONEZ.
Iñigo OSKOZ GAGO	DONEZ.
Javier APEZTEGIA ITURRIA	DONEZ.
Javier GAGO BALDA	DONEZ.
Joao DA SILVA PEREIRA	IRUÑEA
Joseba BENGOTXEA SAPUPPO	DONEZ.
Kepa MIGUEL ETXEBESTE	DONEZ.
Mattin JAUNSARAS SANTXOTENA	DONEZ.
Mikel LANA ALBERRO	DONEZ.
Oier BERASATEGI ELIZONDO	DONEZ.
Oier URRUTIA BALLARENA	ERRATZU
Otito ROQUE AGUILERA	ELIZONDO
Peio MITXEO TELLETXEA	GAZTELU
Entrenatzailea: Iban MINDEGIA ELIZAGA	
Lag.: Jose Fco REKARTE JUANIKORENA	
Lag.: Santiago Jaime ITURRALDE RGUEZ	
Lag.: Julen ETXEBESTE HILINGER	

Ez sinisteko moduko denboraldi hasiera egiten ari da Doneztebeko Erreka eskubaloi talde nagusia. Hau idazterakoan, kopan nahiz ligan jokatutako partida guztiak irabaziak ziruen eta azken urteetan ligako txapeldun izandako Iruña eskubaloi taldeari nagusitasunez gailendu zitzaion Donezteben (28-20). Hau ikusita, txapeldunen fasean sartzea ez ezik, lauko finalerako urratsa emateko ahalik eta puntu gehien pilatzea da Iban Mindegia entrenatzailearen helburua, «baina jakina, partidaz partida joan behar dugu, oinak lurrean ditugula. Orain artean maila ona ematen ari gara, baina denboraldia luzea da, lesioek errespetatu behar dute eta sasoi puntu honi eutsi. Zaleak ilusioz ikusten ditut (150 lagun bildu ziren Doneztebeko kiroldegian Iruñaren aurkako partidan) eta hori ona da, baina pausoz pauso joan behar dugu».

Aurtengo emaitzen oinarrian «defentsa sendoa» dagoela uste du Mindegiak eta «lehen lerroa ere indartu dugu. Iruñean eta Alemanian urte batzuk egin ondotik, Errekara bueltatu dira Iñigo Oskoz eta Ibai Marizkurrena, erraterako, eta horrek, «esperientzia ez ezik, partida osoan intentsitatea mantentzeko aukera ematen digu. Talde osoa entxufatua dago eta egiten duen lanarekin gustura».

ERREKA KADETE MUTIKOAK

Ander AROZENA OTXANDORENA	ELGOR.
Asier ARREGI PEREZ	DONEZ.
Asier LANZA GARCIA	SUNBILLA
Asier NOSELLAS ALDABE	OIEREGI
David MITXEO ZOZAIA	DONEZ.
Ekaitz SAN MARTIN MAYLIN	DONEZ.
Eñaut SETOAIN GARTXITORENA	DONEZ.
Iker LOIARTE OTXANDORENA	ZUBIETA
Ioritz MITXEO OSKOZ	DONEZ.
Jose Luis SALVADO JUSTINO	ELIZONDO
Julen AVILA DURAN	ELIZONDO
Marko SAN MIGUEL GRANDE	DONEZ.
Martxel URRUTIA ESEBERRI	ELIZONDO
Mikel PRIETO ETXEGARAI	BERA
Oihan IRIARTE JAUREGI	DONAMARIA
Unai OSLE SANCHEZ	B.LABAIEN
Unai TORRES ALEMAN	ORONOZ
Xabier MARCOS HUALDE	ELIZONDO
Xuban ILLARREGI ARIZTEGI	DONEZ.
Zorion ZELAIETA ILARREGI	OIZ
Hector HICIANO LUIS	DONEZ.

Entrenatzaileak: Javier APEZTEGIA, Ander BERASATEGI, Txomin MINDEGIA eta Leire TELLETXEA

ERREKA KADETE NESKAK

Ainhoa OTXANDORENA PIKABEA	ELGOR.
Ainhoa ARRIETA BERGARA	DONEZ.
Andrea SAN MIGUEL GRANDE	DONEZ.
Ane ETXARTE JUANENEA	DONEZ.
Elisa URROZ KOVALIK	DONEZ.
Itxaso OIARZABAL ZOCO	DONEZ.
Maialen URROZ GONZALEZ	URROZ
Maitane SUBIZAR QUISPE	NARBARTE
Marina ZABALA SARASOLA	DONEZ.
Naroa HUARTE JUANOTENA	NARBARTE
Saioa IRIARTE IBARROLA	DONEZ.
Yaiza GONZALEZ GAMIO	DONEZ.

Entrenatzaileak: Maider OMAR, Iñigo OSKOZ eta Jabier APEZTEGIA

ERREKA INFANTIL NESKAK

Ane ETXALAR ZUGARRAMURDI	SUNBILLA
Ane MARTINEZ ITURRALDE	DONEZ.
Bidane LASA SAGASETA	NARBARTE
Helene REKARTE KORTA	SUNBILLA
Ilargi MARTINEZ LEITZA	ITUREN
Irune URROZ GONZALEZ	URROZ
Lara RIBEIRO CORDEIRO	SUNBILLA
Maddi JUANENA ETXEBERRIA	DONEZ.
Magaly MARIÑELARENA IRAZOKI	SUNB.
Maialen ARRETXEA OTXANDORENA	SUNB.
Nere ARREGI ETXARTE	DONEZ.
Paula ZABALA SARASOLA	DONEZ.
Saioa SAN MIGUEL ZELAIETA	DONEZ.
Uxue ILARREGI ARIZTEGI	DONEZ.

Entrenatzaileak: Felipe GANBOA ZABALO eta Joseba LEGARRA ERASUN DONEZ.

ERREKA ALEBIN MISTOA

Aimar BERASATEGI ELIZONDO	DONEZ.
Alaine HUARTE JUANOTENA	NARBARTE
Carla IRIBARREN JUANENA	DONEZ.
Gaizka SANTOS LUZURIAGA	DONEZ.
Hodei GASTESI ETXEBESTE	SUNBILLA
Iker LANZA GARCIA	SUNBILLA
Jone GANBOA ANZIZAR	DONEZ.
Leire MARTINEZ AGINAGA	DONEZ.
Lorea AGESTA TELLETXEA	DONEZ.
Mikel URROZ GONZALEZ	URROZ
Nahia SARRATEA ETXEKOLONEA	DONEZ.
Nerea AGESTA MARTIKORENA	DONEZ.
Nerea APEZETXEA GOÑI	DONEZ.
Nerea SATRUSTEGI MIKELARENA	DONEZ.
Oihan ELORZA REKARTE	DONAMARIA
Olaia HUARTE JUANOTENA	NARBARTE
Olaia RUIZ JUANENA	DONEZ.
Irati BELARRA ARRIETA	DONEZ.
Unax ZULAIKA IRIGOIEN	DONEZ.

Ent.: Alaia IRIBARREN-Melanie TELLETXEA

ERREKA BENJAMINAK

Aimar GARTXITORENA ZABALETA	DONEZ.
Amaia MARTINEZ AGINAGA	DONEZ.
Ander RETEGI AZPIROZ	DONEZ.
Ander APEZTEGIA MARTINEZ	SUNBILLA
Asier AGESTA TELLETXEA	DONEZ.
Asier HUARTE SANZ	DONEZ.
Beñat IRIBARREN MAIA	DONEZ.
Ekai ELORZA REKARTE	DONAMARIA
Enaitz GOÑI IGUZKIAGIRRE	DONEZ.
Enea ERKIZIA AMOROS	DONEZ.
Gabriela LOPES DE PAULA	DONEZ.
Galia MO HSALEN	DONEZ.
Garaine IRIARTE PETRIRENA	SUNBILLA
Ibai ELIZONDO UTERGA	DONEZ.
Ibai PETRIRENA GOROSTERRAZU	SUNB.
Iradi OPOKA	NARBARTE
Iraide IRIARTE PETRIRENA	SUNBILLA
Irune OIARTZABAL AGIRRE	DONEZ.
Leire GALLEGO MONTOYA	DONEZ.
Markel PIKABEA	DONEZ.
Martxel ETXEBESTE FUENTES	ZUBIETA
Martxel URROZ TORRECILLAS	URROZ
Mattin INDA LUZURIAGA	GAZTELU
Mikel URREAGA ELIZONDO	DONEZ.
Mikel VILLAMEA SARALEGI	DONEZ.
Nahia ZIGANDA BENGOETXEA	DONEZ.
Oihan SALABERRI	NARBARTE
Olaia JUANABERRIA	NARBARTE
Pedro SOUSA	OIZ
Saioa OTEIZA ELIZONDO	OIZ
Udane ARREGI MARTIN	ELGORRIAGA
Unai IRIGOIEN SANZ	DONEZ.
Urtzi MENDIBURU ERASUN	DONEZ.
Xabi BAKEDANO JUANIKORENA	DONEZ.
Xabier OIARTZABAL AGIRRE	DONEZ.
Xuban JAUREGI GARTXITORENA	SUNB.
Zuhaitz BARBARIN LEGAZKUE	DONEZ.
Entrenatzaileak:	
Itxaso ESTANGA OTXANDORENA	DONEZ.
Ainhoa LEIZA GARRIDO	DONEZ.

ERREKA AURREBENJAMINAK

Aimar BERTIZ ETXEBERRIA	ELGORRIAGA
Aimar OPOKA	NARBARTE
Amaia BELARRA ARRIETA	DONEZ.
Andrea ISIANO	DONEZ.
Araia ANDUEZA AZPIROZ	DONEZ.
Asier TELLETXEA REKARTE	DONEZ.
Beñat TELLETXEA GOGORZA	DONEZ.
Eider BERISTAIN	GAZTELU
Elaia OTEIZA OTXANDORENA	DONEZ.
Haizea FLORES JAUREGI	DONEZ.
Iraia MARTIN	NARBARTE
Irati OIAREGI SAGASETA	NARBARTE
Ione MARTINEZ IRIBARREN	DONEZ.
Jokin MARIEZKURRENA MIGELTORENA	ELGORRIAGA
Juan DAVID COSTA	DONEZ.
June GASTESI ETXEBESTE	SUNBILLA
Kemen VILLAMEA SARALEGI	DONEZ.
Naroa MUTUBERRIA SALABERRI	DONEZ.
Oihan BAÑARES ZIGANDA	DONEZ.
Oñatz EZKURRA IRAZOKI	DONEZ.
Rafaela LOPES DE PAULA	DONEZ.
Saioa IRIGOIEN SANZ	DONEZ.
Santiago MITXEO SIERRA	SALDIAS
Sara GARCIA	SUNBILLA
Sara GUERRA URKAREGI	ELGORRIAGA
Unai OTEIZA ELIZONDO	OIZ
Xanti ELIZONDO UTERGA	DONEZ.
Entrenatzaileak:	
Ane ETXARTE JUANENEA	DONEZ.
Ainhoa ARRIETA BERGARA	DONEZ.
Itxaso OIARZABAL ZOCO	DONEZ.

Uztaipean indartsu dabiltza Beran orain ere

51 neska eta 12 mutiko ari dira Toki Ona Bortziriak taldearekin

Neska juniorren taldea da gaur-gaurkoz Berako saskibaloi talde nagusia. AITOR AROTZENA

JUNIOR NESKAK	
Leire RUIZ ALTZUGUREN	BERA
Eider MOLINERO BARRETO	BERA
Ekhiñe ZAPIAIN ARLEGI	BERA
Kattalin BERASAIN GOIA	BERA
Lorena PEREZ CUEVA	BERA
Lizar ELEXPURU MITXELENA	BERA
Eneritz ZAPIAIN ABUIN	BERA
Eloisa RODRIGUES FERREIRA	ARANTZA
Julia ARTIEDA VILA	BERA
Ane OSUA CABIDA	BERA
Olaia OTXOTEKO TELLETXEA	BERA
Katti IRASTORZA URDANITZ	BERA
Maialen RUIZ ALTZUGUREN	BERA
Onintza ZAPIAIN ABUIN	BERA
Irati FAGOAGA EUGI	BERA
Entrenatzaileak:	
Hodei UNSION MENDIGUTXIA	BERA
Fernando ARTIEDA IRAZOKI	BERA
Egoitz EIZAGIRRE BURLADA	BERA

Berako Toki Ona Bortziriak saskibaloi elkartearen izenean bortz talde hasiak dira Nafarroako kantxetan lehian. Berako elkartetik adierazi digutenez, «horiek dira txapelketan sartuak diren taldeak. Horietaz gain, bertze talde bat badugu entrenatu egiten duena soilik eta hor bertze 20 neska-mutiko inguru badira saskibaloiko oinarriak ikasten».

Izan ere, saskibaloia konpetizioa baino aunitzez gehiago da Toki Ona Bortziriak osatzen dutenentzat. Lehenik jokalari eta azken aldian entrenatzaile, urteetan lanean ari den Imanol Etxeberria lesakarrak aipatu digunez, «azken urteetan bezala guraso, jokalari ohi eta klubeko partaideak biltzen dituen talde bat ere badugu. Horien helburua elkartu, kirola egin eta ongi pasatzea da». Bukatzeko eta urtero bezala, Toki Ona Bortziriak taldetik aipatu nahi dute «zeinen garrantzitsua den guretzako gurasoen laguntza. Beraiek gabe ezinezkoa litzateke etxeko partidak aitzinera eramatea». Izan ere, anotazio-mahaian laguntzaile eta epaile lanak ere egiten dituzte gurasoek.

Toki Ona Bortziriak jokoan.

TOKI ONA BORTZIRIAK KADETE NESKAK

Nahia ITURRIA GARCIA	BERA
Mendi ZUBIETA ITURRIA	BERA
Leire ARNAIZ PIZZIO	BERA
Irati ELIZONDO BENGOETXEA	BERA
Leire UGALDE GARCIA	BERA
Katixa SARALEGI ZUBIETA	BERA
Uxune OTXOTEKO TELLETXEA	BERA
Amaia LAGOS OIARTZABAL	BERA
Ainhoa ALZUGARAI GARRO	BERA
Izaro ETXEPARE ELRIO	BERA
Sara TXOPERENA LACAR	LESAKA

Entrenatzailea:

Jon IRAZOKI MARTIKORENA	BERA

TOKI ONA BORTZIRIAK INFANTIL NESKAK

Ihintza UDAETA ZUBIETA	BERA
Ihintza DAGERRE DIEGUEZ	BERA
Uxia DAGERRE DIEGUEZ	BERA
Zaira RICO IGOA	BERA
Ziortza GOIA MITXELENA	BERA
Naroa OTAMENDI ABRIL	BERA
Iraia ZAPIAIN ARLEGI	BERA
Maddi NAVARIDAS CUESTA	BERA
Ane MOLINERO BARRETO	BERA
Nahia PIKABEA ELIA	BERA
Maider MITXELENA DIAZ	BERA
Maddi ALZUGARAI GARRO	BERA
Kattalin TXOPERENA LAKAR	LESAKA

Ent.: Esther MENTABERRI ZUGARRAMURDI

TOKI ONA BORTZIRIAK MINIBASKET NESKAK

Sara KHABA EDDOURAIRI	BERA
Intza ZUBIETA ITURRIA	BERA
Onintza GOIA MITXELENA	BERA
Amaia GARRO UNSION	BERA
Saioa LAGOS OIARZABAL	BERA
Saioa GARTZIA GARRAUS	BERA
Ainitze ZUBIETA ARANGIBEL	ETXALAR
Katixa ETXENIKE TOLEDO	BERA
Oihana NUÑEZ PEREZ	BERA
Ninbe LIZARDI ARTOLA	BERA
Garazi HUIZI MATXIARENA	BERA
Axuri ZAPIAIN ARLEGI	BERA

Entrenatzaileak:

Imanol ETXEBERRIA GARCIA	LESAKA
Mikel ZUBIETA ERKIZIA	BERA
Loli OIARZABAL ZUBIETA	BERA

TOKI ONA BORTZIRIAK AURREINFANTIL MUTIKOAK

Joanes ARIZTIMUÑO MUTUBERRIA	BERA
David BERGMAN	ETXALAR
Oihan PIKABEA ELIA	BERA
Joel PRENDES PIKABEA	BERA
Oier SAROBE ROMAN	BERA
Unai RUIZ GONZALEZ	BERA
Aimar SAROBE SIMON	BERA
Urko RUIZ MARTIKORENA	BERA
Mihai CTITOR	BERA
Kemen RUIZ ZAPIAIN	BERA
Hegoi LLUCIA BEORLEGI	BERA
Aimar MARTINEZ SEOANE	BERA

Entrenatzaileak:

Roger BERGMAN	ETXALAR
Maite ELIA MITXELENA	BERA
Txuma ANDRES DE LA FUENTE	BERA

Aurrera futbol talde nagusia, Arkiskil zelaian ateratako argazkian. ARGAZKIAK: PABLO FEO

Aurrera futbol taldeak igoera fasean sartu nahi du

Joan den urtean baino jokalari gehiago dituzte lehen taldean, baina jubenilen taldea desagertu egin da eta «segidarik eza» da arazorik handiena, Jose Luis Arrizurieta entrenatzailearen ustez

Nafarroako Erregionaleko lehen mailan, igoera promozioan sartzeko borrokan dabil Aurrera futbol taldea. Jose Luis Arrizurieta entrenatzaileak aipatu digunez, «hamabi taldeko multzoan lau lehenengoek dute horretarako aukera eta, diferentziarekin, multzorik gogorrena egokitu zaigu, Preferentetik jaitsitako talde gehienak gurean ditugu, baina borroka horretan sartuak gaude. Hasieran etxeko partidak ateratzea kosta egiten zitzaigun, baina kanpoan joan den urtean baino hobeto ari gara». Promozioan sartzeko aukera badela uste du entrenatzaileak, «jokalariak gogotsu daude eta pauso bat aurrera eman dute. Lau lehenengoetan sartzen ez bagara ere, deskolgatu gabe, bukaera bitarte borroka horretan egon nahi dugu. Aukerarik ikusten ez duzunean baino serioago hartzen dute jokalariek ere». Joan den urtean baino talde zabalagoa du aurten Aurrerak eta horrek itxaropena ematen dio Arrizurietari. «23 fitxa baditugu eta hori kopuru polita da, joan den urtean murritzago ibili ginen eta hori kate bat da: jende gutxi daudenean denek badakite deialdian sartuko direla eta batzuk jokatuko dutela, entrenatzera joan gabe ere. Jende gehiagorekin, entrenamenduetan irabazi behar dute postua».

Aurten jubenilen talderik ez du zelairatu Aurrerak eta hor ikusten du arazoa Arrik: «atzetik ez dago segidarik eta oinarria ez da lantzen. Oso gazterik uzten dute futbola».

ERREGIONALA

Iñigo ITURRARTE MIHURA	MENDILLORRI
Imanol ARRATIBEL GIMENO	BERROBI
Asier GIL ZUBILLAGA	LEITZA
Iker SAGASTIBELTZA PERURENA	LEITZA
Mañel WOISCHWILL VIGUERA	LEITZA
Martxel INTXAUSTI LASARTE	LEITZA
Joanes OSKOZ AIETXU	ARRARATS
Asier BARRIOLA ZOZAIA	LEITZA
Ander ESKUDERO ORBEGOZO	LEITZA
Iñigo ZABALETA HERNANDEZ	LEITZA
Julen ITURRALDE TORRES	MENDILLORRI
Jon Mattin SUKUNTZA TELLETXEA	LEITZA
Ander ALDUNTZIN IBAÑEZ	LEITZA
Joanes LASARTE ARRUZA	LEITZA
Manex MORENO UHARTE	LEITZA
Mikel SAGASTIBELTZA EGUES	LEITZA
Oier GOIKOETXEA SAGASTIBELTZA	LEITZA
Jon PERURENA LABAIEN	LEITZA
Jon VAZQUEZ URANGA	LEITZA
Iñaki ETXEBERRIA ARANAZ	GOIZUETA
Ibai ZUGARRAMURDI ELIZALDE	GOIZUETA
Markel BARRIOLA HERNANDORENA	LEITZA
Oinatz MARIEZKURRENA BALDA	LEITZA
Entrenatzailea:	
Jose Luis ARRIZURIETA BILDARRAZ	LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA GIPUZKOAKO SENIOR 1. MAILA

Eneko ZABALETA RENTERIA LEITZA	Unai TIJERO ZABALETA LEITZA
Beñat ZABALETA ALDUNTZIN LEITZA	Miel OLANO ZABALETA LEITZA
Andoni ZABALETA MARIEZKURRENA LEITZA	Inaxio PERURENA AIZKORBE LEITZA
Eden GASTEARENA ERREGERENA LEITZA	Garikoitz EIZMENDI ASTIBIA LEITZA
Jon Denis KALONJE AZPIROZ LEITZA	Patxi ETXEBERRIA ARANAZ GOIZUETA
Iñigo ALDUNTZIN GARCIA LEITZA	

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA JUBENILAK

Aritz CAMPOS SAGASTIBELTZA LEITZA	Aitor FUERES BURGA LEITZA
Diego BIURRARENA ORTIZ LEITZA	Oier ALDUNTZIN AZKARATE LEITZA
Eñaut ZUBIRI ARBURUA LEITZA	Asier JUANENEA LABAIEN LEITZA
Joseba AZKUE BARRIOLA LEITZA	**Entrenatzailea:**
Xabat ILLARREGI MARZOL LEITZA	Tomas SAGASTIBELTZA LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA KADETEAK

Ibai SAGASTIBELTZA URANGA LEITZA	Aitor ARRARAS SAGASTIBELTZA LEITZA
Adei ZUBILLAGA CEBALLOS LEITZA	Egoi BARAIBAR GOÑI ARESO
Jon Mikel AGIRRE CABALLERO LEITZA	
Ander GARRO HERNANDORENA LEITZA	**Entrenatzaileak:**
Egoitz BARAIBAR ETXARRI LEITZA	Luken CASARES ARRETXEA LEITZA
Ekaitz MUTUBERRIA GASTESI LEITZA	Mikel ZABALETA UNANUA LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA INFANTILAK A

Unax AGIRRE MAESTRE LEITZA	Marcos ITURRARTE ESLAVA LEITZA
Aitor ERBITI RUIZ LEITZA	Xuban GOIKOETXEA ARRIZURIETA LEITZA
Imanol BIURRARENA ORTIZ LEITZA	Oihan MARITORENA ETXEBERRIA LEITZA
Ibai REMIREZ ORMAETXEBARRIA ARESO	Asier MONTERO ARRIZURIETA LEITZA
Manex ZABALETA BALANZATEGI LEITZA	Eki MATEORENA ZOZAIA LEITZA
Razvan LIBER IONUT LEITZA	**Ent.:** Amets CAMPOS SAGASTIBELTZA
Ibai IRIARTE ALDUNTZIN LEITZA	**Ent.:** Iñigo ZABALETA HERNANDEZ

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA INFANTILAK B

Eneko BARRIOLA ZOZAIA LEITZA	Eder SAGASTIBELTZA URANGA LEITZA
Beñat BALEZTENA OTXOTORENA LEITZA	Aitor LIZARTZA RODRIGUEZ LEITZA
Amets AMUNDARAIN GARRIDO LEITZA	Ugaitz UGARTEMENDIA MENDIZABAL LEITZA
Ibai OTERMIN GURUTXARRI LEITZA	**Entrenatzaileak:**
Hodei ANAUT OTXOTORENA LEITZA	Egoitz SANCHEZ LIZEAGA LEITZA
Kemen DERTEANO GARTZIARENA LEITZA	Asier BARRIOLA ZOZAIA LEITZA

AURRERA ARETO-FUTBOL TALDEA ALEBINAK

Paul FEO MIGUELA LEITZA	Joritz DORRONSORO IPARRAGIRRE LEITZA
Jon ITURRIOZ BELAUNZARAN LEITZA	Janitz SAGASTIBELTZA BENGOETXEA LEITZA
Maddi AGIRRE CABALLERO LEITZA	Arkaitz LOIARTE ZABALETA LEITZA
Luna ALONSO SANZ LEITZA	Ander REKONDO LEITZA
Eneko MARIÑELARENA EGUES LEITZA	Iraitz ZABALETA LASARTE LEITZA
Inhar ALTADILL LAZKANO LEITZA	**Ent.:** Jabier ARANBURU LEITZA
Oiher ARANBURU KANFLANKA LEITZA	**Ent.:** Elias ALONSO LEITZA

Baztan Futbol taldeak hirugarren mailan sendotu nahi du

Kategoria handiko taldeak badaude ere, lortzeko moduko helburua dela uste du Jesus Pilar-ek

Hirugarren mailari eusteko sendo lanean ari da Baztan futbol talde nagusia. BAZTAN FT

Nafarroako hirugarren mailan ari da aurten ere Baztan Futbol Taldea, kategoria handian. Lau bat urtez jubenilak gidatu dituen Jesus Pilar txantrearrak hartu du aurten talde nagusiaren ardura eta horrela azaldu du: «Osasuna B edo Peña Sport bezalako taldeek aurrekontu handia daukate eta bertze maila batean dabiltza, horiei aurre egitea ez da batere xamurra». Halere, lehia hortan murgildua dabil Baztan, beti ere maila mantentzeko helburu argiarekin. «Azkeneko hirurek galtzen dute kategoria, baina beti gaude 2.B Mailatik jautsi edo hirugarren mailatik igo daitezkeen talde nafarren menpe, horrek ere eragiten duelako», dio entrenatzaileak. Liga hasiera txukuna egin du Baztanek eta hortaz, gauzatzeko moduko helburua ikusten du mailari eustea. «Halere, etxetik kanpo gehixeago ematea falta zaigu» onartu du Pilarrek. «Etxean ederki gabiltza, zaleen babesari esker partida bikainak egin ditugu. Batez ere ortziralе arratsetan jokatu ditugun partidetan giro polita sortu da Giltxaurdin». Lauzpabortz jokalarik taldea utzi badute ere, jubeniletatik pasatutakoek bete dute hutsune hori. Alde horretatik, gazteen taldea liga nazionalean izatea «abantaila» dela uste du entrenatzaileak.

HIRUGARREN MAILA

Mikel SAGASETA URRUTIA	IRURITA
Patxi BENGOETXEA IBARRA	ELBETE
Iñigo BERHO SANTOS	ORONOZ
Imanol AZPIROZ GOIKOETXEA	IRURITA
Mikel AZPIROZ GOIKOETXEA	IRURITA
Antton ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Asier LIZARTZA ESPARTZA	ARIZKUN
Javier URRUTIA KARRIKABURU	ELIZONDO
Luis ITURRIRIA EGURROLA	ELIZONDO
Joseba MARTINEZ SAN JOSE	ELIZONDO
M.Javier AGERREA IRIBARREN	ELIZONDO
Xabier DANBORIENA BIKONDOA	ELIZONDO
Julen AGIRRE URSUEGI	ZIGA
Iñigo DENDARIETA ELIZAINTZIN	IRURITA
Xabier GIL ZIAURRIZ	ELIZONDO
Andoni GOÑI IRIBARREN	ELIZONDO
Javier MAYLIN LARRUY	ELIZONDO
Luis URRUTIA IÑARREA	ELBETE
Elur MEOKI MTNEZ. DE ICAYA	ELIZONDO
Jokin GARMENDIA IRIARTE	ELIZONDO
Mikel UNANUA ARIZMENDI	GARTZAIN

Entrenatzailea: Jesus J. PILAR OLITE
Taldeko delegatua: Oier ZELAIETA
Zelaiko delegatua: Agustin SANSIÑENA
Prestatzailea fisikoa: Mikel ALTZURI
Laguntzailea: Fermin PILAR

BAZTAN FT JUBENILAK MAILA NAZIONALA

Jubenilak ere kategoria handian ari dira, maila nazionalean, eta hau idazterakoan azkenak dira sailkapenean. BAZTAN FT

Jaime QUEVEDO ZIAURRIZ	ELIZONDO
Imanol BURGETE GOIENETXE	ELIZONDO
Unai BIKONDO ELIZALDE	IRURITA
Ibai MERINO FAGOAGA	ELIZONDO
Alvaro FDEZ. DEL PUERTO	ELIZONDO
Jaime EGURROLA ALDABE	ELIZONDO
Oscar ELORZA SALABERRI	ORONOZ
Gilen QUERTIER AMIANO	ELIZONDO
Adrian BURGETEGOIENETXE	ELIZONDO
Unai GOÑI ALMANDOZ	ELIZONDO
Egoi ZELAIETA GAMIO	ELIZONDO
Jaime URRUTIA IÑARREA	ELBETE
Josu DAGERRE MARTIRENA	ELIZONDO
Ibai GARAIKOETXEA ARRETXEA	ELIZONDO
Dio VIDES ALVES	ELIZONDO
Unai ETXEBERRIA GOÑI	ELIZONDO
Urki ARISTU VIELA	ELIZONDO
Aritz MAISTERRENA LARREGI	AMAIUR
Beñat ERRO MUJIKA	ELIZONDO
Haritz NUÑEZ GOÑI	ELIZONDO
Aaron DANBORIENA BIKONDOA	ELIZONDO
Julen TRANTXE MORENO	ELIZONDO
Entrenatzailea: Sergio ZABALZA	
Del.: Mikel ADIN eta Ignacio LOPEZ	

BAZTAN FT EMAKUMEAK ERREGIONALA

Emakumeak ere futbol handian ari dira Baztanen, gero eta emaitza hobeekin. BAZTAN FT

Naroa BLAS IRISARRI	ELBETE
Naiara ZALDAIN ARRIBILLAGA	AMAIUR
Garazi SAROBE SANSIÑENA	ELIZONDO
Ana QUEVEDO ZIAURRIZ	ELIZONDO
Leire REKALDE LAZARO	ELIZONDO
Nerea SALABURU ETXANDI	LEKAROZ
Olaia MENDIBURU TELLETXEA	ELIZONDO
Olaia ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Kattalin ARIZMENDI ANDUEZA	ELIZONDO
Andrea AMORENA URTEAGA	ELIZONDO
Nerea SARRATEA ETXEBERRIA	ALMANDOZ
Usoa AGERRE ETXEBERTZ	ALMANDOZ
Irene MEOKI MUÑOZ	ELIZONDO
Maitane ETULAIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Garazi IRIARTE GOIENETXE	ARIZKUN
Ingrid D. OSEGUERA FLORES	GARTZAIN
Saioa IGOA ARRIETA	ZIGA
Claudia PALACIN VEGA	ZIGA
Ane CASILLA LACOSTA	IRURITA
Alazne AIZPURU IRIARTE	NARBARTE
Andrea VAZQUEZ AYUSO	ZIGA
Irati ELIZALDE GARAIKOETXEA	ELIZONDO
Entrenatzailea: Gemma MARTIARENA	
Entrenatzailea: Laureano CALVO	

BAZTAN FUTBOL TALDEA **KADETEAK**

Kadeteen taldea ederki ari da eta partida guztiak irabazi ditu. BAZTAN FT

Imanol DEL CAMPO PELLICER	ELIZONDO
Xabier LOPEZ ZABALETA	ELIZONDO
Jon ARRETXEA ZIAURRIZ	BERROETA
Xuban OSKARIZ URSUEGI	ELIZONDO
Julian URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Txomin ALTXU URTASUN	ORONOZ
Mikel ARIZTIA GOIENETXE	AMAIUR
Aitor VERDE MUGIRO	ELIZONDO
Beñat ETXEBERRIA JAUNARENA	ARIZKUN
Hodei ALEMAN AZKARRAGA	IRURITA
Garai DENDARIETA ESKUDERO	ERRATZU
Julen URREAGA ESKUDERO	IRURITA
Iker AZKARRAGA MENDIBURU	ELBETE
Unai BENGOETXEA AGERRE	ERRATZU
Anjel TELLETXEA KARRIKIRI	ELIZONDO
Jon SAGASETA URRUTIA	IRURITA
Imanol ZOKO ARGAIN	IRURITA
Unax ELIZAINTZIN IRUNGARAI	GARTZAIN
Aritz URRUTIA ITURRALDE	ELIZONDO
Iker OTEIZA ALTZUGUREN	ELIZONDO
Ander ZELAIETA GOÑI	ELIZONDO
Aimar VAZQUEZ AZKARATE	ELIZONDO
Martin ROQUE AGUILERA	ELIZONDO
Unai OLAIZOLA GOÑI	ELIZONDO
Martin ETXABE AIZPURUA	ERRATZU
Oihan ALTZUART ARANBURU	ERRATZU
Eneko DAGERRE MARTIRENA	ELIZONDO
Oihan KARRASKEDO ARREGI	ELIZONDO

Entrenatzailea: Iñaki TELLETXEA
2. Entrenatzailea: Xabier MAIA
Delegatua: Peio URRUTIA

BAZTAN FUTBOL TALDEA **INFANTIL A**

Iñaki LAZARO GARMENDIA	ELIZONDO
Carlos VIDES ALVES	ELIZONDO
Xabier BENGOETXEA AGERRE	ERRATZU
Beñat ZAMORA ZELAIETA	ORONOZ
Mikel LIZARDI URSUEGI	ELIZONDO
Antton IPARRAGIRRE ITURZAETA	ELIZONDO
Mattin ORGANBIDE TELLETXEA	ELIZONDO
Mikel PRUAÑO GOÑI	ELIZONDO
Julen TRANCHO AZKARATE	ELIZONDO
Jon VERDE MUGIRO	ELIZONDO
Julen MEOKI BALLARENA	ELIZONDO
Elur MURATORI UNANUA	ERRATZU
Mikel ARRETXEA ZIAURRIZ	BERROETA
Xuban TELLETXEA KARRIKIRI	ELIZONDO
Unax BIDEGAIN ELIZALDE	ARIZKUN
Xuban BENGOETXEA BIDEGAIN	ERRATZU
Imanol GOIENETXE MIGUELEZ	ELBETE
Zena IRISARRI URRUTIA	ELBETE
Oier ZELAIETA GOÑI	ELIZONDO

Entrenatzailea: Manolo LIZARDI

BAZTAN FUTBOL TALDEA **INFANTIL B**

Urko JUBERA IDOATE	LEKAROZ
Aritz ZOKO ARGAIN	IRURITA
Jon GARBALENA BARRIO	ELIZONDO
Ugaitz APEZTEGIA BIDEGAIN	ELIZONDO
Xabier SAROBE HERRERA	ELIZONDO
Oihan ZAPATA ZEBRIAN	ARIZKUN
Asier ARIZTIA GOIENETXE	AMAIUR
Aimar OBREGOZO MARTIRENA	ELIZONDO
Dayana MALES PINTO	ELIZONDO
Alvaro ALTZUGARAI ZAPATA	ELIZONDO
Aimar DEL MORAL ZARATIEGI	ELIZONDO
Patxi ERASUN MUÑOZ	ELIZONDO
Javier EGURROLA OLABE	ELIZONDO
Iker TELLETXEA DIAZ	ELIZONDO
Berta MUGIRO ESEBERRI	ELBETE
Xuban ZELAIETA ALEMAN	ELIZONDO
Mikel GOROSTEGI MORAL	ELIZONDO
Daniel DA SILVA MOTA	ELIZONDO

Entrenatzailea: Mikel GARBALENA

BAZTAN FUTBOL TALDEA ALEBIN A

Iker ETXEBERRIA JAUNARENA ARIZKUN	Ugaitz GARAIKOETXEA ARRETXEA ELIZONDO
Markel TORRES ALEMAN ORONOZ	Oihan ALEMAN AZKARRAGA IRURITA
Aitor BARAIBAR GORTARI ORONOZ	Garikoitz SANTESTEBAN GOÑI ELIZONDO
Ekai MARITORENA APEZETXE ELIZONDO	Mattin MAIORA AZANZA ELIZONDO
Haritz BIDEGAIN ELIZALDE ARIZKUN	Mattin MARITORENA AGERREA ELIZONDO
Mateo LERTXUNDI FLOREZ ELIZONDO	Asier BARBERENA OPOKA ELIZONDO
Javier ETXAIDE LOPEZ ELIZONDO	Ibai MINDEGIA ETXENIKE ORONOZ
Izaro URRUTIA ITURRALDE ELIZONDO	Mikel JAUREGI BAJO ELIZONDO
Antton TELLETXEA QUERTIER ELIZONDO	Ander SAENZ ESCARCIA ELIZONDO
Mikel BAYLON ITURRALDE ELIZONDO	**Entrenatzailea:** Roman GARAIKOETXEA

BAZTAN FUTBOL TALDEA ALEBIN B

Xabier URRUTIA ESEBERRI ELIZONDO	Julen ALEGRE HUARTE ELIZONDO
Kaiet IRIBARREN OTEIZA ELIZONDO	Mikel SANSIÑENA LARRAMENDI ELIZONDO
Aimar DYIAN GARATE IRURITA	Eneko URROZ GOÑI ELIZONDO
Aitor ESKUDERO BARRENETXE GARTZAIN	Gaizka TELLETXEA QUERTIER ELIZONDO
Usoa MEOKI MUÑOZ ELIZONDO	Ander TELLETXEA DIAZ ELIZONDO
Jon PRUAÑO GOÑI ELIZONDO	Jorge VAZQUEZ VELASCO ELIZONDO
Ekain PERUGORRIA ALDAKO ELIZONDO	Ahjman ELIZONDO
Brayan CHAMBA VASQUEZ ELIZONDO	**Entrenatzaileak:**
Emilio MARTINEZ CRUZ ELIZONDO	Julio PERUGORRIA ELIZONDO
Cristhofer DE OLIVEIRA ORTEZ ELIZONDO	David ALEGRE ELIZONDO

BAZTAN FUTBOL TALDEA BENJAMIN A

Xabier DEL CAMPO PELLICER ELIZONDO	Ekaitz FRANZESENA ORONOZ ELIZONDO
Eneko MAIORA AZANZA ELIZONDO	Arantxa ETXEBERRIA ZABALETA ELIZONDO
Iker MARITORENA AGERREA ELIZONDO	Aimar LIZASOAIN APEZTEGIA ORONOZ
Iraitz MARITORENA APEZETXE ELIZONDO	Oihan AZKARATE ELIZEGI ANIZ
Carlos ALZUGARAI ZABALZA ELIZONDO	Gorka GOÑI MENDIBURU ELBETE
Pepe MALES PINTO ELIZONDO	Oihan GOÑI GALARZA ELBETE
Oier GARAIKOIETXEA URROZ LEKAROZ	Iban MURU ANDREU IRURITA
Julen ELIZAINTZIN ALTZUARTE IRURITA	Ander GARATE BARDECI IRURITA
Markel TELLETXEA KARRIKIRI ELIZONDO	**Entrenatzailea:**
Iker GALARREGI GOENAGA ELIZONDO	Josetxo GALARREGI ELIZONDO

BAZTAN FUTBOL TALDEA BENJAMIN B

Lizar ZABALETA ZAZPE	Urko ITURRALDE GOÑI
Matias RIVAS ROTELLA	Aitor RIPA ERICE
Joanes JAUREGI BAJO	Izai URRUTIA ERICE
Izaro KORTEA IPARAGIRRE	Igor BIELA ZELAIETA
Iñaki ALAÑA ZIAURRIZ	Haritz ZABALZA GARCIA
Mikel BARBERENA OPOKA	Marko JUBERA IDOATE
Eneko ZELAIETA MIGELTORENA	Josu LARRAIOZ ALTZURI
Mikel ETXABARRI GAZTELU	Aitor BENGOETXEA GOÑI
Adriel ESCORCIA LOPEZ	**Entrenatzailea:** Julen TRANCHE
Eneko IRAZOKI BIELA	**Entrenatzailea:** Haritz NUÑEZ

Mailari eusteko lehian berriz ere Beti Gazte

Azken urtetako jokalari taldea mantendu du, baina kategoria gero eta indartsuagoa da

Gipuzkoako Ohorezko Mailan mantentzea du helburu aurten ere Lesakako futbol talde nagusiak. AITOR AROTZENA

GIPUZKOAKO OHOREZKO M.

Aitor ALZUGARAI ZUBIRI	LESAKA
Jonan ARBELAIZ HERAS	LESAKA
Mikel ARRIOLA ALAVA	LESAKA
Andoni ARRIOLA ALAVA	LESAKA
Xabier ARRIOLA PEREZ	LESAKA
Beñat CONDE ORUBE	LESAKA
Iñigo ETXEGARAI ALDABE	BERA
Fernando ETXEGARAI LOPEZ	LESAKA
Joel GIL GOIENETXE	LESAKA
Igor GURRUTXAGA ERRANDONEA	LESAKA
Oier IANTZI ORDOKI	LESAKA
Ander MAIA ARAKUES	LESAKA
Jabier MAIA SADABA	LESAKA
Ander OLAIZOLA ETXEGARAI	LESAKA
Ander ORDOKI AYNETO	LESAKA
Paulo RAMOS ZUMALDE	LESAKA
Iker RODRIGUEZ DE LOS FRAILES	IRUN
Unai SAGARZAZU SALDIAS	IRUN
Josu SANJURJO ALTZURI	LESAKA
Peio TELLETXEA IGOA	LESAKA
Julen TELLETXEA PERUGORRIA	ETXALAR
Julen TREKU ROSELLON	IRUN
Urki TXOPERENA ELOSEGI	LESAKA
Jon UBIRIA SARASOLA	LESAKA
Mikel CHAMORRO OSES	IRUN
Gorka SANJURJO ALTZURI	LESAKA
Entrenatzailea:	
Ibai AMEZKETA LIZARRALDE	MUGAIRI
Delegatua:	
Endika MENDEGIA IANTZI	LESAKA

Azken urteotako helburu bera izanen du Beti Gazteko futbol talde nagusiak: Gipuzkoako Ohorezko Maila handiari eustea. Ibai Amezketa entrenatzaileak onartu digunez, «gero eta helburu zailagoa da, Lesaka bezalako herri ttiki bateko taldea, herriko jokalariekin, Donostia, Irun edo Arrasate bezalako herri handietako taldeen kontrako lehian ari delako». Gainera, azken urteetan kategoria indartu egin dela uste du. «Behetik igotzen diren taldeak berriz igotzeko helburua izaten dute batzuetan, aurten Eibar B taldearekin gertatzen den bezala, eta 3. Mailatik jautsi direnek ere berriz igo nahi dute. Horiekin borroka egin behar dugu eta ahal bezain azkar, jautsierako azken hiru postuak gibelera utzi». Horretarako, nahiz eta lesio batzuk izan, azken urteetako «jokalari bloke bera» mantendu du Lesakako taldeak eta «hori garrantzitsua» dela uste du Amezketak. Futbola lanarekin eta ikasketekin bateratu behar dute jokalariek eta «hori batzuetan zaila suertatzen da» eta pixkanaka min hartutako jokalariek «martxa hartzea eta futbolerako berreskuratzea» espero du.

Zaleen laguntza ere garrantzitsua da. Izan ere, orain arte lortutako 11 puntuetatik 10 etxean lortu ditu Lesakako taldeak. Beraz, horri eutsi eta etxetik kanpo egiten den lana (edo lortzen dituen emaitzak bederen) hobetu beharko du Beti Gaztek.

BETI GAZTE EMAKUMEAK F11 GIPUZKOAKO GORENGOEN MAILA

Lehen aldiz Gipuzkoako Ohorezko Mailan hasiak dira Beti Gazteko emakumeak. AITOR AROTZENA

Mayi ARRIOLA AGIRRETXE	LESAKA
Nahia GARCIA IRAZOKI	BERA
Garazi MITXELENA TOLOSA	ETXALAR
Maider OLAZIREGI URKIOLA	BERA
Amaia TELLETXEA MENDIGUTXIA	LESAKA
Vanesa VALVERDE LEIZA	LESAKA
Amaia ZAPIRAIN MARIEZKURRENA	LESAKA
Uxue ESCUDERO GARMENDIA	LESAKA
Idoia GARDE GARDE	DONEZTEBE
Maddi ITURRIA POMBAR	LESAKA
Maialen JAURENA ETXART	URDAZUBI
Nerea ORDOKI ETXEPETELEKU	LESAKA
Ane RENAUD ANZIZAR	LESAKA
Izaro ALDABE TELLETXEA	LESAKA
Irati IRIARTE ALTZUGARAI	LESAKA
Olaia IANTZI ETXARTE	LESAKA
Olatz ARAKUES MIKELAJAUREGI	LESAKA
Naroa BERTIZ ARANBURU	LESAKA
Natalia GOIENETXE GONZALEZ	LESAKA
Medhanit IGARZABAL ELIZALDE	LESAKA
Izaro IPARRAGIRRE IRIGOIEN	LESAKA
Ane ORDOKI TELLETXEA	LESAKA
Nerea IPARRAGIRRE IGOA	BERA
Ent. Jose Luis ALZUGARAI IANTZI	LESAKA
Del.J.Angel ORDOKI FAGOAGA	LESAKA
Lag. Ainara OTXOTEKO LARRARTE	LESAKA

BETI GAZTE JUBENILAK GIPUZKOAKO OHOREZKO MAILA

Beti Gazteko gazteak Gipuzkoako Ohorezko Mailari eusteko lehian ari dira. AITOR AROTZENA

Josu ELIZONDO GOIA	LESAKA
Beñat IANTZI ETXARTE	LESAKA
Mikel IRAZOKI ZELAIETA	BERA
Xabier LARRETXEA ALTZUGARAI	LESAKA
Unai LEIZA PEREIRA	LESAKA
Bogdan Marian MARTON	LESAKA
Aimar ZAMORANO DUARTE	LESAKA
Iker IRIARTE ALTZUGARAI	LESAKA
Joel ESPINO MENESES	LESAKA
Mikel INDABURU LOIDI	ETXALAR
Mikel MAYORDOMO IRIGOIEN	BERA
Iñaki PRIETO GARMENDIA	LESAKA
Igor RODRIGUEZ LANZ	LESAKA
Jon ZABALA IPARRAGIRRE	ARANTZA
Andoni OTXOTEKO PERUGORRIA	ETXALAR
Jokin TELLETXEA REYES	BERA
Iosu TXOPERENA IRIBARREN	HENDAIA
Garikoitz TXOPERENA SALDIAS	IGANTZI
Entrenatzailea:	
Miguel TXOPERENA MENDIGUTXIA	IGANTZI
Laguntzailea:	
Mikel Aitor FLORES COMPAINS	LESAKA
Delegatua:	
Manuel ZAMORANO AGUILAR	LESAKA

BETI GAZTE KADETEAK 1. MAILA

Kadeteen taldea liderra de Gipuzkoako lehen mailako bere multzoan. A.AROTZENA

Unai ARBURUA ITURRIA	ETXALAR
Orti AROTZENA PORTU	LESAKA
Jonan BERROZPE MITXELENA	LESAKA
Xuban ELIZONDO GOIA	LESAKA
Joritz EUGI URTXEGI	IGANTZI
Xuban FERNANDEZ GUTIERREZ	IGANTZI
Aimar IGARZABAL JAUNSARAS	LESAKA
Jon IRIGOIEN UBIRIA	LESAKA
Asier LARRALDE KORTA	LESAKA
Mattin LEKUONA OIARTZABAL	LESAKA
Mikel MARITXALAR GARAIAR	LESAKA
Manex RAMOS ZUMALDE	LESAKA
Imanol UGALDEBERE ZUBIZARRETA	LESAKA
Julen URDANGARIN TABERNA	LESAKA
Jontxu URROSOLO ELGORRIAGA	LESAKA
Iker AGIRRETXE BIKONDO (inf.)	LESAKA
Jon Ander RUIZ SARASOLA (inf.)	LESAKA
Miguel UBIRIA ALZATE (inf.)	LESAKA

Entrenatzaileak:

Kotte IANTZI AIERTZA	LESAKA
Julian ORDOKI FAGOAGA	LESAKA

BETI GAZTE INFANTILAK 1. MAILA

Infantilak ere liderrak dira bere multzoan. A.AROTZENA

Iker AGIRRETXE BIKONDO	LESAKA
Xabier APEZTEGIA GRASSA	LESAKA
Jon APEZTEGIA LARRALDE	LESAKA
Aritz ARANBERRI GOIA	LESAKA
Markel ERKIZIA CONDE	LESAKA
Josu ETXEPETELEKU BURGETE	LESAKA
Aitor GALARDI TXOPERENA	LESAKA
Ion GALARDI TXOPERENA	LESAKA
Eñaut LAKA MITXELENA	IGANTZI
Aritz LIZARRONDO ETXARTE	IGANTZI
Ekaitz MAIZ BAÑOS	ETXALAR
Aitor PAGADIZABAL IGARZABAL	LESAKA
Eñaut LAKA MITXELENA	IGANTZI
Jon Ander RUIZ SARASOLA	LESAKA
Eloi SANCHEZ ARAKUES	LESAKA
Manex SARASOLA ZELAIETA	IGANTZI
Iñigo TXOPERENA SALDIAS	IGANTZI
Miguel UBIRIA ALZATE	LESAKA
Manex UBIRIA GARCIA	LESAKA
Oihan URROZ OIARTZABAL	LESAKA
Luken URTXEGI URRA	IGANTZI

Entrenatzaileak:

Justo AGIRRETXE MAZIZIOR	LESAKA
Igor GURRUTXAGA ERRANDONEA	LESAKA

BETI GAZTE ALEBINAK A

Unax ETXARTE ETXEBERRIA	IGANTZI
Eneko IRAZOKI CARAMAZANA	LESAKA
Iker IRIGOIEN UBIRIA	LESAKA
Oier ORDOKI FAGOAGA	LESAKA
Iker ROBLEDO PACCINI	LESAKA
Ibon RUIZ SARASOLA	LESAKA
Julen UBIRIA SUNSUNDEGI	LESAKA
Elixabet TAPIA ITURRIA	LESAKA
Unax BEREAU IRIGOIEN	LESAKA
Urko OLAIZOLA MENDEGIA	LESAKA
Aimar OTXANDORENA MITXELENA	LESAKA
Gaizka SEIN ARBURUA	IGANTZI
Alex URROSOLO ELGORRIAGA	LESAKA
Ent. Ainara OTXOTEKO	LESAKA
Ent. Izaro ALDABE	DONEZTEBE
Ent. Idoia GARDE	DONEZTEBE

BETI GAZTE ALEBINAK B

Leire ARIZTEGI ANTXORDOKI	LESAKA
Beñat CRIADO ARRUABARRENA	LESAKA
Beñat ETXEPARE AIESTARAN	LESAKA
Unai IÑARREA IGUZKIAGIRRE	IGANTZI
Gerard OROZCO RODRIGUEZ	LESAKA
Joel OROZCO RODRIGUEZ	LESAKA
Enaitz OSKOZ ANZIZAR	LESAKA
Unax OSKOZ ANZIZAR	LESAKA
Hegoi SILVEIRA ARRIETA	LESAKA
Laida TABERNA URRA	LESAKA
Uxue UBIRIA GARCIA	LESAKA
Mikel URDANGARIN TABERNA	LESAKA
Eneko URKIOLA MARTIN	LESAKA
Peru URRA IEKORA	LESAKA
Beñat ZELAIETA EGIA	LESAKA
Maddi ZUBIETA ENETERREAGA	LESAKA
Entrenatzaileak: Iker IRIARTE, Julen ARAKUES eta Igor RODRIGUEZ	LESAKA

BETI GAZTE BENJAMINAK A

Luken ANSALAS MAIZ	ETXALAR
Unai ARANGUREN MUTUBERRIA	LESAKA
Oinatz AIESTARAN EIZMENDI	LESAKA
Janitz IRIARTE ITURBIDE	IGANTZI
Oier LAKA MITXELENA	IGANTZI
Matixa LOPEZ TAPIA	LESAKA
Ekhi ROJO RODRIGUEZ	LESAKA
Oier SANCHEZ ELISSALT	LESAKA
Ulises SARASUA CANO	ETXALAR
Jon SEMPER IRASTORZA	LESAKA
Oier TAPIA ITURRIA	LESAKA
Kemen TELLETXEA SEIN	IGANTZI
Oihan TELLETXEA SEIN	IGANTZI
Entrenatzaileak: Ander MAIA, Jon UBIRIA, Ibon eta Urki TXOPERENA eta Mikel TELLETXEA	LESAKA

BETI GAZTE BENJAMINAK B

Oier ARRUABARRENA IRURZUN	LESAKA
Beñat AIESTARAN BERRUET	LESAKA
Beñat BEREAU ARRIBILLAGA	LESAKA
Enaitz BEREAU IRIGOIEN	LESAKA
Adur ERKIZIA ARBURUA	LESAKA
Alain ETXEPARE AIESTARAN	LESAKA
Markel IRATZOKI AGIRRE	LESAKA
Ekaitz IRAZOKI MENDIZABAL	LESAKA
Mikel LEGASA GOIA	LESAKA
Xuban MAGAÑA GARCIA	LESAKA
Akior MARTINEZ NUÑEZ	LESAKA
Aitor MITXELENA SUNSUNDEGI	LESAKA
Kemen MITXELENA ZUBIETA	LESAKA
Danel URTXEGI URRA	IGANTZI
Beñat TELLETXEA SEIN	IGANTZI
Ioritz ZUBIAURRE AGIRRE	IGANTZI

BETI GAZTE AURREBENJAMINAK

Eneko ALMANDOZ URBISTONDO	IGANTZI
Alazne ALTXU MITXELENA	IGANTZI
Aiert AROTZENA PORTU	LESAKA
Elorri AROTZENA PORTU	LESAKA
Anartz ARSUAGA TAPIA	LESAKA
Telmo BADIOLA GARRIDO	LESAKA
Julen CANAL ARTOLA	LESAKA
Ibai CRIADO ARRUABARRENA	LESAKA
Unax GAJATE ALEMAN	LESAKA
Kemen GARRO ORDOKI	LESAKA
Olaia GOIENETXE ZUBIETA	LESAKA
Xuban IGOA ALMANDOZ	LESAKA
Beñat IRAZOKI CARAMAZANA	LESAKA
Oneka OLAIZOLA MENDEGIA	LESAKA
Oihan OIARZABAL LARRALDE	LESAKA
Eneko PINTADO RIVERO	LESAKA
Kaiet PORTU TELLETXEA	IGANTZI
Jon RODRIGUEZ IRIGOIEN	LESAKA
Adur SANCHEZ ELISSALT	LESAKA
Arhane SILVEIRA ARRIETA	LESAKA
Urko TELLETXEA SEIN	IGANTZI
Oier TXOPERENA SALDIAS	IGANTZI
Eneko URROSOLO ELGORRIAGA	LESAKA
Unax URTXEGI RODRIGO	IGANTZI
Eneko VALVERDE LEIZA	LESAKA
Entrenatzaileak: Ander MAIA, Jon UBIRIA, Ibon eta Urki TXOPERENA eta Mikel TELLETXEA	LESAKA

Helduen bi talde zelaira atera ditu Doneztebek

Preferentekoak igoera postuetatik hurbil ibiltzea du xede eta Erregionalekoak jokalariak trebatzea

Nafarroako Preferente mailan lehian ari da Doneztebe Futbol Talde nagusia. FOTO ZALDUA

NAFARROAKO PREFERENTE

Jaime SEIN OSINAGA	DONEZ.
Jon SEIN OSINAGA	DONEZ.
Irail ZESTAU CASTRO	DONEZ.
Beñat LEIZA GARRIDO	DONEZ.
Ibon LEIZA GARRIDO	DONEZ.
Borja ARREGI MUÑOZ	DONEZ.
Mikel RETEGI URROZ	DONEZ.
Julen RETEGI URROZ	DONEZ.
Fermin ESTANGA SANTESTEBAN	DONEZ.
Javier OSTIZ ESCALADA	DONEZ.
D.Armando ROJAS OLANO	DONEZ.
Xabier ERASUN ELIZONDO	DONEZ.
Joritz OIARTZABAL CEBALLOS	LEITZA
Sergio LARRAINZAR ERIZE	ELTSO
Oier ALDABE ERDOZAIN	DONEZ.
Adrian GOÑI MIRANDA	IRUÑEA
Jorge OSTIZ ESCALADA	DONEZ.
Lander MINDEGIA ARES	OIZ
Iñigo ZUBIRI ZIAURRIZ	IRUÑEA
Ali MEFTI	BERRIOZAR
Entrenatzailea:	
Mikel MAIA HERNANDORENA	SUNBILLA

Baten faltan, helduen bi talde zelairatu ditu Doneztebe Futbol Taldeak denboraldi honetan. Oier Beltran koordinatzaileak aipatu digunez, «duela bizpahiru urtetik genuen ideia zen eta aurten, jubeniletatik jende dezente pasatu da eta iaz futbol-8an ari zen taldetik ere batzuk hartu ditugu». Helburua, futbolean jokatzen segitu ahal izatea da. «Beharbada jubeniletatik pasatutako batzuk Preferenten aritzeko pausoa ematea falta zuten eta Preferenteko fitxa eginez gero, jokatu gabe egotea gertatzen ahal zen. Hori ez gertatzeko, Erregionalean konpetituko dute, prest egonen dira eta goitiko taldeak behar duenean, hortik hartzen ahal ditu jokalariak», dio koordinatzaileak.

Preferenteko taldearen helburua, «iaz bezala igoera *play-offean* sartzea edo hurbilean ibiltzea, goiti egotea» dela aipatu digu Beltranek. Multzoko lehenbizikoa zuzenean igo litzateke Maila Autonomikora eta bigarrenak eta hirugarrenak *play-offa* jokatuko lukete. Orain artean, berdintasun handia dago multzoan –hamar partida jokatuta, lehenbizikotik azken sailkatura 9 puntuko aldea bertzerik ez dago– eta edozer gauza gerta daiteke. «Preferenten talde polita dugu –dio koordinatzaileak–, joan den urtekoaren antzekoa, bizpahiru jokalarik utzi (tartean Iker Irazokik) eta bertze hainbertze hasi dira eta oinarri hori berdina izanda, goitian ibiltzeko maila badela uste dugu».

BORDALARREA
BORDAKO Gure Haragia Nuestra Carne
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

DONEZTEBE FT ERREGIONALEKO LEHEN MAILA

Seniorren bigarren taldea ere zelairatu du lehen aldiz Donezteb Futbol Taldeak, Erregionaleko lehen mailan. FOTO ZALDUA

Marcos AZKARATE ELIZONDO DONEZ.
Ander ANDUEZA ETXEBESTE DONEZ.
Iñaki SAN MIGUEL ESCUDERO DONEZ.
Mikel GERENDIAIN SARRATEA DONEZ.
Eloy GARCIA OTXANDORENA DONEZ.
Aritz TAJADURA CABELLO LEGASA
Jon MIKELARENA SUBIZAR LEGASA
Imanol DE RUEDA GOÑI DONEZ.
Haritz NARBARTE BARANDIARAN DONEZ.
Daniel Pio GARCIA OTXANDORENA DONEZ.
Iñaki MAYLIN EZKURRA DONEZ.
Beñat MIGELTORENA MARITXALAR DONAM.
Julen OIARTZUN SARASIBAR ALKOTZ
Ander OIARTZUN SARASIBAR ALKOTZ
Eneko LORENTE AGIRRE GAZTELU
Xabier MARIEZKURRENA SOROZABAL SUNBILLA
Aitor LARUNBE MINDEGIA BURLATA
Iñigo MUGETA PATERNAIN BURLATA
Javier SALDIAS IRIGOIEN LABAIEN
Iñigo OSTIZ ESCALADA DONEZ.
Julen JUANKORENA IPARRAGIRRE SUNB.
Cristofer ALVAREZ GIRALDO ITUREN
Aaron SETUAIN INDURAIN BARAÑAIN
Alejandro RGUEZ MURUGARREN IRUÑA
Ent. Oier BELTRAN PAGAZAURTUNDUA

DONEZTEBE FT JUBENILAK 2. MAILA

Donezteb gazteak Nafarroako bigarren mailan ari dira. FOTO ZALDUA

Iñigo BELARRA OTEIZA DONEZ.
Carlos OSTIZ OLALLA DONEZ.
Aimar JABALERA JUANENA DONEZ.
Julen MIGELTORENA MARITXALAR DONEZ.
Unai SAN MIGUEL ZELAIETA DONEZ.
Enaitz IRIARTE JAUREGI DONAMARIA
Aimar ZESTAU CASTRO DONEZ.
Aimar SARRATEA ETXEKOLONEA DONEZ.
Gabriel RIBEIRO CORDEIRO SUNBILLA
Jon Mikel GAZTELUMENDI JORAJURIA SUNB.
Josu ARRASTIO PERIS DONEZ.
Aimar LEATXE PORTILLO DONAMARIA
Aritz ZULAIKA IRIGOIEN DONEZ.
Txomin OMAR PORROY DONEZ.
Eneko MAYLIN EZKURRA DONEZ.
Koldo HERRERA URROZ SUNBILLA
Xabier APEZETXEA IRIBARREN DONEZ.
Endika TELLETXEA MINDEGIA ITUREN
Unai ILARREGI RAMAJO HONDARRIBIA
Entrenatzailea:
Alex RODRIGUEZ MURUGARREN IRUÑEA

DONEZTEBE FT KADETEEN BIGARREN MAILA

Kadeteen bigarren mailan ongi ari dira kadeteak. FOTO ZALDUA

Ibai SANTOS LUZURIAGA	DONEZ.
Unai MONTIEL GUTIERREZ	NARBARTE
Pello SEIN IRIGOIEN	DONEZ.
Ander RUIZ JUANENA	DONEZ.
Odei MARIEZKURRENA FLORES	DONEZ.
Xuban ZELAIETA INDAGOETXEA	SUNB.
Egoitz IBARRA IRISARRI	ELGORRIAGA
Mikel BABAZE BULDAIN	URROZ
Mikel JUANOTENA EZKURRA	DONEZ.
Asier GELBENZU MAISTERRENA	DONEZ.
Iraitz AIESA REKARTE	SUNBILLA
Mikel MARIEZKURRENA SOROZABAL	SUNB.
Manex IPARRAGIRRE ZUNDA	SUNB.
Xabier MIGELTORENA MARITXALAR	DONAM.
Jon OTXANDORENA IRIGOIEN	LABAIEN
Urko OIARZABAL SOLABARRIETA	DONEZ.
David MITXEO ZOZAIA	DONEZ.
Oier APEZETXEA GOÑI	DONEZ.
Enaitz PORTU ZELAIETA	SUNBILLA
Oier AGIRRE ARRETXEA	SUNBILLA
Jokin OTEIZA OLLO	NARBARTE
Angel SIERRA LAZO	SALDIAS
Ent.: Juan RAMON SANTOS	DONEZ.

DONEZTEBE FT INFANTILEN LEHEN MAILA

Infantilen taldea. FOTO ZALDUA

Oihan ELIZONDO OLLO	DONEZ.
Ekaitz SAN MARTIN MAYLIN	DONEZ.
Joritz IRIBARREN LIZARDI	DONEZ.
Jokin AROZENA ILARREGI	DONEZ.
Ugaitz ALDABE TELLETXEA	DONEZ.
Eki ZULAIKA IRIGOIEN	DONEZ.
Xuban ERBITI BALEZTENA	DONAM.
Eneit BERTIZ APEZETXEA	SUNBILLA
Aitor AGESTA MENDIBURU	ZUBIETA
Aimar MIGELTORENA MUGIKA	SUNB.
Beñat ALBISU ETXEBERRIA	BEINTZA
Aitor LORENTE AGIRRE	GAZTELU
Mikel LORENTE AGIRRE	GAZTELU
Aimar ESPERANTE MARIEZKURRENA	DONEZ.
Eki ERASUN EZKURRA	DONEZ.
Oihan LUJANBIO SANCHEZ	SUNBILLA
Beñat OIAREGI SAGASETA	NARBARTE
Iraitz IPARRAGIRRE ZUNDA	SUNBILLA
Asier ARREGI PEREZ	DONEZ.
Endika SANTESTEBAN BENDOIRO	ZUBIETA
Hodei IRIARTE JAUREGI	DONAMARIA
Mattin RETEGI AZPIROZ	DONEZ.
Ent. Julio SANCHEZ HERNANDORENA	SUNB.

DONEZTEBE FT ALEBINAK A

Oinatz IBARRA IRISARRI ELGORRIAGA	Ugaitz ERBITI BALEZTENA DONAMARIA
Argoitz ERASUN ORTUOSTE DONEZ.	Aimar ELIZAGA NASURTDINOV DONEZ.
Aimar BERASATEGI ELIZONDO DONEZ.	Oier ERKIZIA AMOROS DONEZ.
Unax ZULAIKA IRIGOIEN DONEZ.	Urko REKARTE AGIRRE DONAMARIA
Aitor SEIN IRIGOIEN DONEZ.	Ander TELLETXEA ARIZTEGI ITUREN
Alejandro IRIGOIEN TELLETXEA DONEZ.	Izei ASTIBIA MARTIRENA LEGASA
Iban BAKEDANO JUANIKORENA DONEZ.	Iraitz ZELAIETA MARTIRENA LEGASA
Mikel URROZ GONZALEZ URROZ	Urki ARIZTEGI BEREAU ITUREN
Nerea AGESTA MARTIKORENA DONEZ.	Nerea APEZETXEA GOÑI DONEZ.
Zaira BENDOIRO TELLETXEA ZUBIETA	**Ent.:** Jose Luis AGESTA DONEZ.
Uxue SANTESTEBAN OTXANDORENA ZUBIETA	**Ent.:** Iñaki ZELAIETA LEGASA

DONEZTEBE FT ALEBINAK B

Ekaitz LOIARTE OTXANDORENA ZUBIETA	Koteto EZKURRA ARRETXEA SUNB.
Mattin AGESTA MENDIBURU ZUBIETA	Aimar SANCHEZ HERNANDEZ LEGASA
Lander INDAKOTXEA ZUBIALDE ZUBIETA	Unai LIZASOAIN ETXEBERTZ DONAM.
Jon Ander ETXEBESTE FUENTES ZUBIETA	Oinatz BALEZTENA ARREGI DONAM.
Ganix AZKARATE ERASO DONEZ.	Ekain TELLETXEA ODRIOZOLA DONAM.
Unai ERASO MITXELENA DONEZ.	Lander AROZENA ILARREGI DONEZ.
Hegoi GARTXITORENA ZABALETA DONEZ.	Ekaitz MITXELENA LEKUONA DONEZ.
Amets JAUREGI FLORES DONEZ.	**Ent.:** Jesus SANCHEZ LEGASA
Mikel ARREGI ETXARTE DONEZ.	**Ent.:** Xabi BENGOTXEA DONEZ.

DONEZTEBE FT BENJAMINAK A

Javier ZABALA SARASOLA DONEZ.	Alain BAZTERRIKA OBREGOZO SUNB.
Jon LARUNBE ZELAIETA DONEZ.	Xabi ARMENDARIZ AIZKORBE SUNB.
Eneko ZULAIKA IRIGOIEN DONEZ.	Eneko IBARRA OLAETXEA SUNB.
Iker ANZIZAR IRURUETA DONEZ.	Unai MENDIBURU ARGOTE ZUBIETA
Joel MAYLIN ETXEGIA DONAMARIA	Mattin OIAREGI SAGASETA NARBARTE
Iñaki BAZTERRIKA ILARREGI ITUREN	Ugaitz SALABERRI BERTIZ NARBARTE
Asier TELLETXEA ARIZTEGI ITUREN	**Entrenatzaileak:**
Rafael GUERTAN BERENDE ITUREN	Yenni SIERRA LAZO SALDIAS
Jose David SIERRA LAZO SALDIAS	Mikel MAIA HERNANDORENA SUNBILLA

DONEZTEBE FT BENJAMINAK B

Xabier OIARZABAL AGIRRE DONEZ.	Izei BEREAU MINDEGIA ITUREN
Aimar GARTXITORENA ZABALETA DONEZ.	Markel ARIZTEGI BEREAU ITUREN
Xabier BAKEDANO JAUNIKORENA DONEZ.	Mattin LEIZA BALEZTENA ITUREN
Urtzi MENDIBURU ERASUN DONEZ.	Oier REKARTE AGIRRE DONAMARIA
Mikel VILLAMEA SARALEGI DONEZ.	Mattin INDA LUZURIAGA DONAMARIA
Ibai ELIZONDO UTERGA DONEZ.	Asier HUARTE SANZ DONEZTEBE
Mikel URREAGA ELIZONDO DONEZ.	**Ent.:** Haritz NARBARTE BARANDIARAN
Ander RETEGI AZPIROZ DONEZ.	**Ent.:** Mikel GERENDIAIN SARRATEA

DONEZTEBE FT AURREBENJAMINAK

Oinatz EZKURRA IRAZOKI DONEZ.	Oinatz ELIZALDE LARRETXEA ITUREN
Aratz RETEGI ESKUDERO ERATSUN	Inhar AIOROA ERRAZKIN ITUREN
Lukas EZKURRA ARRETXEA SUNB.	Unai OTEIZA ELIZONDO OIZ
Jokin MARIEZKURRENA MIGELTORENA ELGORRIAGA	Cristino Robin ESCOBAR ORELLANA LEGASA
Irati OIAREGI SAGASETA NARBARTE	Eider ZELAIETA ARTIEDA LEGASA
Aritz IÑIGO LUJANBIO ITUREN	Aimar BERTIZ ETXEBERRIA ELGOR.
Ekaitz SEIN ARIZTEGI ITUREN	**Entrenatzailak:**
Peio MARIEZKURRENA ERREGERENA ITUREN	Beñat MIGELTORENA DONAMARIA
	Eneko LORENTE GAZTELU

Gorengoen maila eutsi nahizik Gure Txokoa

Maila igoera nabaritu du Berako taldeak, baina egoerari buelta emateko gogotsu dago

Gipuzkoako Gorengoen mailan azkena da oraingoz Gure Txokoa, baina buelta emateko gogoz daude. JOSE MARI TELLETXEA

GIPUZKOAKO PREFERENTE

Iñigo ALDAZABAL ZAMARREÑO	BERA
Mikel ALDAZABAL ZAMARREÑO	BERA
Bittor TXANTRE IRAZOKI	BERA
Jon DE LA CRUZ ETXEGARAI	BERA
Iñaki ESKUDERO OLAZIREGI	BERA
Mikel ESNAOLA URKIA	BERA
Jimmy Joel FREIRE GOMEZ	BERA
Iker GARCIA IRAZOKI	BERA
Jon IRAZOKI ZELAIETA	BERA
Alain MORCILLO ARTIEDA	BERA
Mikel MORCILLO ARTIEDA	BERA
Asier OSES GAINZA	BERA
Ruben PEDROSA MEDINA	BERA
Jeremias PEREZ CONTELL	BERA
Mikel MORENO ALUNDA	BERA
Iker AMANTEGI VILLAFRANCA	IRUN
Jon AROZENA BULDAIN	IRUN
Iñaki OTAÑO AGINAGA	IRUN
Joseba TELLETXEA ZAMORA	LESAKA
Jokin TIRAPU URTXEGI	DONOSTIA
Entrenatzailea:	
Javier ESCAGUES DOZAGARAT	BERA
Julen ERRANDONEA MARTIN	BERA

Horrelako helbururik ez bazuten ere, Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailatik Gorengoen edo Preferente mailara igotzea lortu zuen azken denboraldian Berako Gure Txokoako futbol talde nagusiak. Eta salto hori sumatu dute aurten. Hau idazterakoan, sasoiko lehen eta azken partida irabazi badituzte ere, tarteko guztiak galdu egin dituzte eta sailkapenaren zuloan daude. Javier Escagues entrenatzaileak aipatu digunez, «joan den urtean aritu ziren lauzpabortz jokalari garrantzitsuk taldea utzi dute eta hori nabari da». Halere, egoera horri buelta emateko itxaropentsu ageri da: «partida batzuk xehetasun ttiki batzuengatik galdu dugu, kontrarioek gauza guttirekin aski dute gola egiteko eta guri, berriz, aunitz kostatzen zaigu. Akats horiek zuzenduta, pixkanaka goiti egiteko asmoa dugu. Taldea gogotsu dago».

Beraz, aurtengo helburua garbi dauka Escaguesek: «maila mantentzea da gure helburua, salbazioa». Azken biak zuzenean jautsiko dira eta azken hirugarrenak bertze multzokoarekin jokatuko du mailari eustea. Lan horiek saihestu nahi dituzte beratarrek. Horretarako, jubenile-tatik pasatutako bizpahiru jokalari, Beti Gaztetik bueltatu den Jon Irazoki eta Irun aldeko jokalari bat edo bertze ere etorri dira.

ugaldea
AHOLKULARITZA FISKALA KONTABLEA
ASESORIA FISCAL CONTABLE
Rafa Pombar Sainz
Sara karrika 1, 31780 BERA(Nafarroa)
tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO JUBENILEN LEHEN MAILA

Gipuzkoako lehen mailan ari dira Gure Txokoako gazteak. AITOR AROTZENA

Beñat ARRAZTOA LAZKANOTEGI	BERA
Iban AZKARATE SEBASTIAN	BERA
Xumar BIURRARENA BERTIZ	BERA
Jon ETXALAR ALTZUGUREN	BERA
Unax ELEXPURU MITXELENA	BERA
Markel ESCAGUES MARTIARENA	BERA
Jon ETXENIKE PRIETO	BERA
Ethan GARCIA CURTO	BERA
Iraitz IÑIGO LEAL	BERA
Mikel IRIGOIEN IRAZOKI	BERA
Aimar LEKUONA LAZKANO	BERA
Xiker LIZARDI ARTOLA	BERA
Iñaki RUIZ MARTIKORENA	BERA
Asier TELLETXEA APEZTEGIA	BERA
Urko TELLETXEA ETXANDI	BERA
Haiz TELLETXEA ANDUEZA	BERA
Alvaro CUADRADO HIGUERAS	MADRIL
Entrenatzailea:	
Jose Javier CANTERO VEGA	ASTURIAS

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO KADETEEN LEHEN MAILA

Urko ADURIZ ZUÑEDA	ERRENTERIA
Ganix AGUILAR MATXIARENA	BERA
Unai ALTZUGARAI ARANBILLET	BERA
Josu ALTZUGARAI ETXEBESTE	BERA
Alexander ALTZUGUREN GOIA	BERA
Gorka ARAKUES ARRIBILLAGA	BERA
Martxel ARTIEDA ARRIETA	BERA
Ismail BENSAID BIURRARENA	BERA
Unai ETXEGARAI ELGORRIAGA	BERA
Mikel ERRANDONEA Gª-LARRATXE	BERA
Urtzi FAGOAGA ALVAREZ	BERA
Jefferson FELIX RICHARDSON	BERA
Eneko GARCIA SAN MIGUEL	BERA
Unai GARRO UNSION	BERA
Adur HUIZI MATXIARENA	BERA
Beñat IRAZOKI TELLETXEA	BERA
Asier LATORRE OSUA	BERA
Amets LIZASO PIKABEA	BERA
Unai LLUCIA BEORLEGI	BERA
Andoni TELLETXEA APEZTEGIA	BERA
Julen UBIRIA MENDEZ	BERA
Unax VILLAMEA IZAGIRRE	BERA
Ent. Angel ARANIBAR ALMANDOZ	BERA
Ent. Patxiku ARTIEDA APEZTEGIA	BERA

GURE TXOKOA INFANTILAK GIPUZKOAKO LEHEN MAILA

Alain ZELAIETA BERASATEGI	BERA
Unai ETXEBERRIA GOIA	BERA
Enaitz ERKIZIA LASAGA	BERA
Ion ERRANDONEA GARBALENA	BERA
Urtzi ETXEGARAI TABERNA	BERA
Kenai GARCIA CURTO	BERA
Iker IPARRAGIRRE IRIARTE	BERA
Suharri IRATZOKI SENPER	BERA
Jokin IRATZOKI TELLETXEA	BERA
Andoni LATORRE OSUA	BERA
Eneko LOIARTE OIARTZABAL	BERA
Martxel MATXIKOTE ZOKO	BERA
Ivan NUÑEZ PEREZ	BERA
Iker PETRIRENA PIKABEA	BERA
Oihan PIKABEA ELIA	BERA
Ekai POMBAR HERNANDORENA	BERA
Joel PRENDES PIKABEA	BERA
Kemen RUIZ ZAPIAIN	BERA
Luka TRILLO GOIA	BERA
Adei VILLAMEA IZAGIRRE	BERA
Aritz GARCIA GARRAUS	BERA
Joanes ARISTIMUÑO MUTUBERRIA	BERA
Ent. Raul GARCIA TERAN	BERA
Ent. J.Luis IRAZOKI ALTZUGUREN	BERA

TXOMIN IRAZOKI
FISIOTERAPEUTA
MASAJEA · BIZKORTZE ARIKETAK
ESKU TERAPIA
KIROL LESIOAK · LANEKO LESIOAK
Eztegara 28 behea • BERA | 670 471 200

GURE TXOKOA ALEBINAK A

Hurritz ANZIZAR SENPER	BERA	Peio MARTIKORENA ETXANDI	BERA
Mikel POMBAR HERNANDORENA	BERA	Erlaitz LASAGA MARTIKORENA	BERA
Mikel ZOZAIA IÑARREA	BERA	Luka ALTZUGURREN GOIA	BERA
Ion URKIOLA REBOLLO	BERA	Xanti AGIRRE GONZALEZ	BERA
Ninbe LIZARDI ARTOLA	BERA	Urtzi USTARIZ PEREZ	BERA
Noah UBIRIA MENDEZ	BERA	**Entrenatzaileak:**	
Aitor ETXEBERRIA OSUA	BERA	Mikel ESNAOLA URKIA	BERA
Eneko ETXEBERRIA OSUA	BERA	Xiker LIZARDI ARTOLA	BERA

GURE TXOKOA ALEBINAK B

Oihan TELLETXEA IRIARTE	BERA	Bruno MONCALVILLO GARCIA	BERA
Aiur JIMENEZ PRIETO	BERA	Eluska POMBAR LARRALDE	BERA
Ortzadar IRATZOKI SENPER	BERA	Inhart TABERNA MARTINEZ	BERA
Martxel SALGADO IGUARAN	BERA	Peru LEKUONA MOLINERO	BERA
Oier LLUCIA BEORLEGI	BERA	Mattin PEREZ TAPIA	BERA
Jon GOÑI OTAMENDI	BERA	Peio MORATE ANDUEZA	BERA
Julen GOÑI OTAMENDI	BERA	Enaut KORTA BIKUÑA	BERA
Moussad SELHI	MAROKO	**Entrenatzaileak:** Angel POMBAR SAINZ	
Ibai LEKUONA HUIZI	BERA	eta Sergio MORATE BERGARA	BERA

GURE TXOKOA BENJAMINAK A

Andoni APEZTEGIA ALMANDOZ	BERA	Unax OIARTZABAL LAKASTA	BERA
Jokin BENGOETXEA LEIZAGOIEN ZUGARRAM.		Ioritz TAPIA ALVAREZ	BERA
Unax AIZPURU IBARGARAI	SARA	Xiker RUIZ ZAPIAIN	BERA
Gexan SAN JUAN AROZENA	BERA	Oier MARTIN FAGOAGA	BERA
Xan VILLAMEA IZAGIRRE	BERA	Oier BARCENILLA LANCHAS	BERA
Ibai MATXIKOTE ZOKO	BERA	Thiago MECEIRO	ERRUMANIA
Iñaki UGALDE PERUGORRIA	BERA	**Entrenatzaileak:** Jose RAMIREZ	BERA
Martxel ZELAIETA BERASATEGI	BERA	J.Migel MATXIKOTE ALTZUGUREN	BERA

GURE TXOKOA BENJAMINAK B

Haizea OTAEGI DE PRIETO	BERA	Kaiet ERKIZIA ORDOKI	BERA
Aritz GARMENDIA SEBASTIAN	BERA	Oihan DE CRUZ PIZZIO	BERA
Unai ALAPONT ETXEGOIEN	BERA	Xabier CASTILLO FRANCO	BERA
Jon AROSTEGI IRAZOKI	BERA	Limber ALBERCA	BERA
Iker ETXEPARE VIVANCO	BERA	Gorka MARTINEZ HERRERO	BERA
Eneko TELLETXEA APEZTEGIA	BERA	**Entrenatzaileak:**	
Andoni OFFROY SAHARREA	BERA	Xabi DE CRUZ	LEZO
Ekhiotz IRATZOKI SENPER	BERA	Mikel AROSTEGI	ASTIGARRAGA

Kopan ongi eta ligan gaizki hasi dira futbol ttikian

Berako taldea Gipuzkoako bigarren mailako txapeldun izan ondotik lehen mailan lehian ari da denboraldi honetan, baina oraindik ez du partida bakar bat ere irabaztea lortu

GURE TXOKOA ARETO-FUTBOLA GIPUZKOAKO 1. MAILA

Gipuzkoako bigarren mailako txapeldun izan ondotik, lehen mailan ari da aurten Berako Gure Txokoa areto-futbol taldea. Denboraldi hasiera hau gazi-gozoa izaten ari dela laburbil daiteke. Gazia ligan, orain arte emaitzek ez baitute lagundu eta hau idazterakoan, oraindik ez zuten partidarik irabazi, zazpi jokatu ondotik, bi puntu bertzerik ez dituzte, bi berdinketei esker.

Bertzelakoa da kopan orain arte egin duten ibilbidea. Lehen kanporaketan berdindu egin zuten Arrasaten eta penaltietan lortu zuten bigarrenera pasatzea. Bigarren kanporaketa honetan Beran 5-3 irabazi zioten Lauburu taldeari, final zortzirenetarako txartela eskuratuz. Zozketan, zuzenean final laurdenetan aritzeko eskubidea egokitu zaie. Kanporaketa honetan, 2.B Maila nazionaleko taldeak ere sartuko dira eta horietako bat egokitu zaio Gure Txokoari, Laskorain taldea. Partida abenduaren 5ean, 20:30ean jokatuko dute Berako Toki Ona kiroldegian. Zaleen babesa eskatu dute finalerdietarako txartela eskuratzen lagun izateko eta hemendik aitzinera ere, ligan, pixkanaka emaitza hobeak lortzen hasteko.

Fernando GOMEZ COLINA	BERA
Igor PANDO ARAMENDI	BERA
Sabino GOMEZ DOMINGUEZ	BERA
Andoni RIOPEDRE HUIZI	BERA
Aitzol IRIZAR ARIZTIA	BERA
J.Manuel RAMIREZ BURGUILLO	BERA
Iñigo ZELAIETA ALONSO	BERA
Asier GARCIA ERRANDONEA	BERA
Eneko AGIRRE ARRIETA	BERA
Unai URROZ GELBENZU	DONEZTEBE
Gorka RETEGI ERRANDONEA	BERA
Gustavo A. ORELLANA JARAMILLO	EKUADOR
Iñigo ALDAZABAL ZAMARREÑO	BERA
Jon IRAZOKI ARANBURU	BARAKALDO
Aritz ARBELAITZ IGOS	BERA

Menditarrak-BRT, 40 urtez errugbian lanean

Senior taldeaz gain, harrobi sendoa mantentzen du, Iruñeko La Única eta Irungo taldeekin lanean

Menditarrak-BRT errugbi taldeko seniorrak euskal ligan ari dira. MENDITARRAK BRT

Iaz mailari eutsiz, Euskal Ligako lehenengo mailan ari da parte hartzen Menditarrak BRT senior taldea. Partaidetza handiagoa izaten ari dira, jokalari berri nahiz gazteen sartzeari esker. Honek taldearen lana hobetzen laguntzen du eta, martxa hartu behar bazaio ere, indartuko duela espero da. Taldearen sorreratik 40 urte bete den urte honetan, helburua maila mantentzea da, taldea sendotu eta esperientzia hartu. Giro aparta dago eta etorkizuneko potentzial handia ikusten da.

Gazteagoak Iruñeko La Unica (18 urtez beheitikoak) eta Irungo Txingudi taldearekin (sub-16 eta 2ub-14) batera osatu dituzte taldeak. Seigarren urtez, errugbi eskola martxan dago Lekarozen eta Ultzaman.

Goitik beheiti, 16, 14 eta 12 urtez beheitiko taldeak. MENDITARRAK BRT

SENIORRAK

Aimar LASITIR	SUNBILLA
Alex SANTESTEBAN	IRURITA
Ander ORBEGOZO	ZIGA
Ander OSKOZ	DONEZTEBE
Andoni JAKA	IHABAR
Beñat ARREGI	ORONOZ-MUGAIRI
Egoitz GAMIO	NARBARTE
Fermin LARRALDE	ELIZONDO
Hasier IRAZOKI	ETXALAR
Iñaki IRAIZOZ	ETSAIN
Iñaki PERURENA	ELIZONDO
Iñigo LIZASOAIN	ELIZONDO
Ioseba ARIZMENDI	ORONOZ-MUGAIRI
Ioseba MITXELENA	IRURITA
Iosu MARTINEZ	ELIZONDO
Ivan MUTILVA	ANOZIBAR
Joanes MOLINUEVO	ELBETE
Jokin MAIA	ELIZONDO
Jon IRIARTE	ARIZKUN
Jon ZUBIRI	ARIZKUN
Joxepo RAZKIN	BERRIOZAR
Juan Angel PEROTXENA	ELIZONDO
Julen ANCIZU	LIZASO
Julen LINZOAIN	IRAGI
Manex ETULAIN	ARIZKUN
Mattin APEZETXEA	ORONOZ-MUGAIRI
Migeltxo SOBRINO	ARIZKUN
Mikel EUGI	BEUNTZA
Pello GASTEARENA	ORONOZ-MUGAIRI
Ruben OZKARIZ	OLAGUE
Xabier IRURETAGOIENA	ELIZONDO
Xabier REDIN	ARRAITZ
Youssef EL HAOI	NARBARTE

Ent.: Manex AIZPURU-Pello OBREGOZO

Delegatuak: Aitor MUTILVA, Oscar VILLABONA eta Gorka ALTZUARTE

SUB-18

Aimar AROZENA MITXEO	ALMANDOZ
Haritz URZAIZ CUARTERO	ELIZONDO
Eñaut BERISTAIN IRIARTE	ARIZKUN
Aimar RGUEZ. ETXANDI	ORONOZ-M.
Eneko FREIRE PEROTXENA	OLAGUE
Xabier MITXELENA LARZABAL	IRURITA
Oier NEOL BURLADA	ARIZKUN
Julen IRIARTE AZKARRAGA	ARIZKUN
Jokin BEIKA PAGAZAURTUNDUA	ARIZKUN

Ent.: Aitor MUTILVA RUIZ DE AZUA

SUB-16

Unai AGINAGA ETXAMENDI	ELIZONDO
Mikel GOROSTIDI JAIMERENA	ARIZKUN
Urki NEOL BURLADA	ARIZKUN
Ellande ALTZUGARAI ARIZTEGI	ELBETE
Beñat VIELA MENA	IRURITA
Iñaki JUBERA IDOATE	LEKAROZ
Junes ALTZUGARAI PERNAUTE	ARIZKUN
Julene ETULAIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Asier EZKURRA ITURRALDE	URRITZOLA
Julen ARRIADA IRIGOIEN	AZPILKUETA
Unai ITURBIDE LAZARO	ELIZONDO
Beñat MORTALENA LIBANO	ELIZONDO
Aitor ADIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Markel ADIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Gorka JAURENA IRISARRI	ARIZKUN
Julen PEREZ LOPEZ	ELIZONDO
Mikel BIDEGAIN ITURRALDE	IRURITA

Ent.: Iñaki EZKURRA OSAKAR URRITZOLA

SUB-14

Antton FERNANDEZ BIDEGAIN	ARIZKUN
Alex IRIARTE ARRIETA	ARIZKUN
Xabat ALTZUGARAI ARIZTEGI	ELBETE
Unai MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Beñat NEOL BURLADA	ARIZKUN
Iker EZKURRA NAVARRO	ARRAIOZ
Joseba BIDEGARAI ITURRALDE	IRURITA
Julen URRUTIA TELLETXEA	ARRAIOZ
Urlei ETXANDI LAURNAGARAI	ELIZONDO

Entrenatzailea: Jon ZUBIRI ARIZKUN

SUB-12 (ESKUALDEKOAK)

Mattin FERNANDEZ BIDEGAIN	ARIZKUN
Julen REKARTE ETXEPARE	ARIZKUN
Eñaut OTEIZA LARRE	ELIZONDO
Aimar TRINIDAD	ELIZONDO
Kaiet ALEMAN UNANUA	ELIZONDO
Axular ALEMAN IRISARRI	ELIZONDO
Oier MIGELTORENA	BERROETA
Kemen SAGARZAZU LATASA	SUNBILLA
Jon IRIGOIEN INBULUZKETA	ELIZONDO
Xabi GORRIA ELIZONDO	SUNBILLA
Alberto LATASA IGLESIAS	SUNBILLA
Lur GAITE LOIRA	GAZTELU
Saioa SAGASETA URROZ	DONAMARIA
Enaitz LAZKANO URTIZBEREA	ARRAIOZ
Ander LARRABURU HERNANDORENA	SUNB.
Cristofer DE OLIVEIRA CORTEZ	ELIZONDO
Eneko SAGARZAZU LATASA	SUNBILLA
Aiert FAGOAGA BEOLA	ARRAIOZ
Ganix ALUNDA HUALDE	ARRAIOZ
Gartxot IRIBARREN ALEMAN	AMAIUR
Ekain ELIZALDE MENA	ARIZKUN
Oier IBAÑEZ ARRAZTOA	IRURITA
Eñaut ALTZUGARAI ARIZTEGI	ELBETE
Lorea ETXEPARE REKARTE	ARIZKUN
Beñat EZKURRA NAVARRO	ARRAIOZ
Laurentx LARRALDE	ARIZKUN
Unax LARRABURU HERNANDORENA	SUNB.
Egoi SAN MILLAN	ARIZKUN

Monitoreak: Jon IRIARTE, Maika IRAIZOZ, Joseba ARIZMENDI, Johanes MOLINUEVO

«Behar larrian dauden 1.247 pertsona artatu genituen iaz Paris 365en»

PATXI LASA GIZAKIA HERRITAR FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

Martin Legarra eta Pello Apezetxearen gidaritzapean urtero-urtero Paris 365en aldeko janari-bilketan parte hartzen duten Arantza, Igantzi eta Etxalarko taldeak eskertu ditu bereziki

Zer da Paris 365?

Ahuldadean eta baztertuta bizi diren pertsonentzat Gizakia Herritar Fundazioak jartzen dituen premiazko baliabideak eskaintzen ditu Paris 365ek, bereziki Nafarroan, Iruñean eta Iruñerrian bizi diren pertsonei.

Eta zer da zehazki pertsona horiei Paris 365ek eskaintzen diena?

Aproposa den mantenu-irizpidearekin, egunero hiru otordu eskaintzen dizkiegu premian dauden pertsonei urteko 365 egunetan eta euro bakar baten truke; gainera, jaki-toki edo despentsa solidarioa ere badugu, eta supermerkatu ttiki baten antzera, nutrizio aldetik orekatua den saski bat eramateko aukera ematen diegu etxean kozinatzeko modua izan eta euren kargura adingabeak dituzten familiei (arraina, fruta, haragia, esnekiak, barazkiak, pasta, lekaleak eta abar); eta neguan, azarotik martxora, karrikan bizi diren pertsonei zopa beroa eta larrialdi kita banatzen diegu (lo-zakua, estera eta motxila); bertzalde, Paris Etxea programaren baitan, 21 logela ditugu etxe duin bat arrazoizko prezioan izateko zailtasunak dituztenentzat; 2017an *Garabato* Ikasketa Komunitatea jarri genuen martxan, haurrentzat ludoteka, hirikanpamentuak, eskola-laguntza eta gurasoen eskola eskainiz haurrak dituzten familiei; eta Txokoan, azkenik, prestakuntza eta aisialdirako gune multifuntzionala dugu, liburutegi, prentsa, internetera konektatuta dauden ordenagailuak eta bertze hainbat kultur jarduera eskaintzeko.

Patxi Lasa, Gizakia Herritar Fundazioko presidentea. UTZITAKO ARGAZKIA

Nola lortzen duzue premiazko baliabide horien finantzaketa?

2017an 1.247 pertsona artatu genituen, horietatik %42 emakumezkoak eta %38 adingabeak eta, egia erran, gogorra eta zaila da finantzaketa. Bazkideek ematen diguten eta gauzei esker, eta Paris 365eko laguntzaile eta boluntarioekin iritsi gara honaino. Egiazko miraria. Aurtengoa ekonomikoki urte ikaragarri gogorra da eta 80.000 euroko defizita aurreikusten dugu.

Bereziki eskertu nahi nituzke Arantza, Igantzi eta Etxalarko herritarrak eta laguntza-taldeak, Martin Legarra eta Pello Apezetxea buru dituztela, urtero Paris 365i ematen dioten laguntzarengatik.

PARIS 365 .ORG

2017ko EMAITZAK

JANTOKI SOLIDARIOA

21.569 bazkari eta afari
10.502 gosari
303 pertsona artatuak
%38 adingabeak

PARIS ETXEA

17 logela
21 plaza
42 pertsona artatuak
Egonaldia batez beste 6,8 hilabete

DESPENTSA SOLIDARIOA

2.793 oinarrizko saski
402 pertsona artatuak
109 familia
%57,5 adingabeak

GARABATO HAUR TXOKOA

58 haur ludotekan
48 haur kanpamentuetan
61 haur eskola-laguntzarekin

ZOPA BEROA

234 zopa banatuak
58 pertsona artatuak
21 larrialdi kit banatuak

TXOKO

2.247 egonaldi
348 pertsona erabiltzaile
42 kultur jarduera
10 prestakuntzako jarduera

Hainbat txoko bisitatzeko aukera izan dute. FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko 46 kide Kanaria Handian izan dira

Datorren irailean Mallorcara joatea erabaki dute normalki tenore horretan eguraldi ederra izan ohi delako

FERNANDO ETXEBERRIA

Azaroaren 6an abiatu ziren, Bilbotik. Hasiera batean zortzi egunak Las Palmas uhartean pasatzea pentsatu bazuten ere, eguraldiaren iragarpenengatik lau egun hor eta bertze lau Playa del Inglesen pasatu zituzten.

Ez batean ez bertzean ez zuten aparteko eguradiaz gozatzeko aukerarik izan. Izan ere, egunero eguzkia eta itzala tartekatu ziren. Tenperatura aldetik, egonaldi atsegina izan zuten. 17-23 gradu bitartean izan ziren termometroak. Horri esker, tokiak bisitatzeko parada izan zuten. Alde zaharra, katedrala, museoak... ikusi zituzten. Areago, batzuek inguruko herriak ikusteko edota Maspalomaseko dunak bisitatzeko baliatu zuten bidaia.

Datorren irailean Mallorcara

Heldu den urtera begira hasiak dira eta zehazki irailean Mallorcara joanen direla erabaki dute. Normalki eguraldi ederra eta eguzkitsua izaten da garai horretan. Aitzitik, ikusiak ikusi, elkarteko kideek eguraldi iragarpenak ez direla guztiz fidagarriak uste dute.

FERNANDO ETXEBERRIA

Eratsunen ibili dira 55 mendizale

Azaroaren 20an Eratsunen izan ziren mendizaleak. Lau orduko ibilbidea egin zuten. Ez ziren Otsolaraino goititu. Bide erditsuan mokadutxo bat jan zuten eta ondotik, elkartean bazkaldu zuten. Hurrengo irteera abenduaren 18an izanen dute, Donezteben.

Lizarrara eta Lodosara ateraldia egin dute 154 bazkidek

F. ETXEBERRIA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, azaroan Lodosan izan dira 154 lagun. Hiru taldetan banaturik, joan ziren: leitzarrak 10:00etarako; donezteberrak eta bortziriarrak 11:00etarako; etbaztandarrak 12:00etarako.

Bisitariek, zuzendariak emaniko azalpenak aditu ondotik, bertako produktuak erosteko aukera izan zuten. Ondotik, Lizarrako azokan barrena ibili ziren. Buelta eginda, guztiak bildu eta Larrion jatetxean bazkaldu zuten. Ohi bezala, Joseanen musikak girotu zuen bazkalondoa. Batzuk kantuan eta bertzeak dantzan ibili ziren. Guztien artean giro ederra jarri zuten.

Joan den urteko bazkarian.

Artisauek egindako lanak plazaratu dituzte

Donezteko ferien aitzakiapean, Arkupeak elkarteko eskulangileek beraien lanak plazaratu zituzten: koadroak, argazkiak, margolanak, egurrean egindako lanak... Ikusmira sortu zuten.

Añana eta Gasteiz bisitatuz agurtu dute azaroa

102 kide, bi taldetan banaturik, Añanan eta Gasteizen izan ziren azaroaren 22an, joan den ortziralean. Batzuek zuzenean Añanara jo zuten eta bertzeek Gasteizera. Ttipi-Ttaparen hurrengo zenbakian bilduko dira ateraldiari buruzko xehetasunak.

Elkarteak Ttipi-Ttapa zoriondu nahi izan du

Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazteagatik Ttipi-Ttapa zoriondu nahi izan dute. Bide batez, hamabortzero elkarteko berriak zabaltzeagatik eskerrak eman nahi izan dizkiote: «propagandarako hedabide hoberena da eta arrakastaren lekuko dira 29.000 irakurleak».

'Irakurzaleen txokoa' egitasmoa abian da

Proiektuaren helburua irakurzaletasuna sustatzea da eta horretarako liburu ibiltari bat dute herrian

JAIONE ZABALO

'Irakurzaleen txokoa' egitasmoa abiatu dute herrian. Proiektuaren helburua irakurzaletasuna sustatzea da eta horretarako liburu ibiltari bat dute herrian.

Pertsona ezezagun batek liburua autobus geltokian utzi zuen, beste batek hartu eta irakurtzeko. Liburua hartu duenak irakurtzez akitzen duenean beste txokoren bat bilatu eta bertan utzi beharko du, hurrengo irakurle batek aurkitzen duenean hartu eta prozesua errepikatu beharko du. Herritarrek parte hartzeko deia egin dute: «gozatuz irakurri eta liburuak herriz herri ibiltari!».

Autobus geltokitik abiatu da liburua.

Jubilotekakoak Martineko bordan izan dira

Egun ederra pasa zuten: goizean kirol ariketak egin zituzten, ondotik mahai-inguru goxoan bildu ziren. Lerroon bidez, eskerrak eman nahi izan dizkiete Mila eta Peiori euren etxea uzteagatik.

Malerreka Kantuz abenduaren 1an herrian

Abenduaren 1ean, larunbatean, Malerreka Kantuz egitasmoaren urteko azken saioa izanen da. Herrian izanen da bederatzigarren eta azken saioa. 12:00etan hasiko da, herriko frontoitik abiatu eta karrikak kantuz alaituko dituzte.

Lehen sorospenak ikasiko dituzte Jubilotekan

Ostegunean, azaroaren 29an, Kristina Urrutiak, herriko erizainak, lehen sorospenak egiteko erabilgarri izan daitezkeen ariketa praktikoak erakutsiko dizkie jubilotekako kideei. Ariketa errazak eta praktikoak izanen dira, larrialdi egoeretatik ateratzeko baliagarriak.

Udaletxean egin zuten topaketa. UTZITAKO ARGAZKIA

Parte-hartze topaketak segida izanen du Garesen

Helburua «herritarren parte-hartzeak duen garrantziaz jabetzea eta hori sustatzea» da

JM BARRIOLA

Nafarroako Gobernuak eta Cederna Garalurrek antolatuta, Nafarroa iparraldeko hogeita hamar ordezkari inguru bildu ziren azaroaren 16an Leitzako udaletxean, Mendialdeko parte-hartzeari buruzko topaketan.

Herritarrek elkarteetan duten parte-hartzea sustatzea eta horren garrantziaz jabetzea da helburua eta horretarako, topaketan esperientziak partekatu zituzten. Ana Ollo kontseilariak, Mikel Zabaleta alkateak eta Maite Iturre Cederna Garalurko lehendakariak aurkeztu zuten batzarra eta bertan herritarren parte-hartzearen garrantzia azaldu zuten. Hizlarien artean, bertzeak bertze, Markel Azkargorta zinegotziak *Leitza Kontsumituz* proiektua aurkeztu zuen. 2017an onartutako agiria azaldu zuten, Gobernuaren eta herrien arteko plana jasotzen duena. Era berean, Baztango Zaporeak elkarteak ere bere ekarpena egiteko parada izan zuen.

Azaroaren 16an herrian abiatu zen prozesuak heldu den urte hasieran segida izanen du, Garesen.

387 lagunek parte hartu dute Euskaraldian

Azaroaren 15ean aurkeztu zen Euskaraldia herrian. Kristina Urrutiak adierazi zuenez, 357 Ahobizik eta 32 Belarriprestek emana zuten izena egun horretan eta hartutako konpromisoa betetzen ari dira egunotan. Hizkuntza-ohiturak aldatzera bidean da herria...

Haur-eramaile tailerra azaroaren 29an

Haur-eramaile tailerra izanen dute azaroaren 29an, ostegunean, herrian. Udaletxeko ludoteka gelan dute hitzordua, 17:30ean. Dohainik izanen da eta izena emateko 948 51 08 40 telefonora deitu edo 681 26 51 88 zenbakira Whatsappa idatzi behar da.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekoizleen azoka jendetsua

Leitza eta Aresoko ekoizleek mimoz landutako produktuak plazaratu zituzten azaroaren 11n. Azokaren bueltan, ekitaldi gehiago ere izan zituzten: ostiralean pintxo-potea izan zuten eta, igandean, jatetxeek bertako jakiekin egindako menu bereziak eskaini zituzten.

IZASKUN ZUBIALDE

125 arropa kaxa errefuxiatuentzat

Erleta eskolako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek eta Amazabal institukoek, elkarlanean, errefuxiatuentzako arropa bilketa egin dute. Guztira 125 kaxa inguru bete dituzte. Lerro hauen bidez, bai herritarren borondatea, baita ikasleen lana ere eskertu nahi izan dituzte.

Euskararen Egunerako egun osoko pesta antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 3rako, astelehenerako, egun osoko pesta antolatu dute. Lerro hauek idazterakoan azken xehetasunak lotzekoak dituzte baina haur, gazte zein helduek lagunartean biltzeko proposamena dute esku artean. Goizean kalejira egingo dute herrian barna, euskal kantak abestuz. Mahaiaren bueltan bilduko dira gero, banabarrak, kontsumo taldeak emandako aza, odolkia eta saiheskia eta postrea izango dira bazkaltzeko. Herri osoarentzat antolatutako pesta izanik, lanerako ere denei egin diete gonbidapena: mahaiak jarri, banabarrak prestatu... ezin baita beti batzuek lan egin eta besteak jai. Bazkalondoan, mus txapelketa azkarra antolatu dute eta haurrentzat sorpresaren bat ere izango omen da. Pesta giroa soinean ere nabaritu dadin, baserritarrez janzteko ohitura berreskuratu nahi izan dute, jantzirik dotoreenari saritxo bat emango diote. Era berean, herritar askorentzat Euskaraldia borobiltzeko eguna ere izanen da.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Herritarrak azokan saltzen eta erosten

Areso eta Leitzako ekoizleen azokara beraien aleak eraman zituzten aurten ere Olatxetako Genok, Felipe Bordako Trinik eta Alpaiteneko Jexux eta Lourdes Artolak. Barazkiak, marmelada eta gozoak, intxaurrak eta txekor haragia... Eroslerik ez zen falta izan, herritar asko joan ziren goiz pasa.

ARANTXA ANSA

Tailer saio bikoitza sanmartinetan

San Martin Egunean hainbat ekitaldik girotu zuten herria. Gaztetxoek, paper birziklatua erabiliz, saski-tailerra egin zuten Maisuenean. Eguna borobiltzeko taloak egin eta dastazteko parada izan zuten. Haur, gazte eta helduendako hitzordu polita izan zen.

UTZITAKO ARGAZKIAK

'Munduko emakumeak' kontaketa ederra

Azaroaren 18an Ameli eta Xirrikituen jostunak bikotearen eskutik *Munduko emakumeak* kontaketa musikatua izan zen Maisuenean. Munduko hainbat emakumeren istoriotxoak izan zituzten ardatz eta kantuz hornitutako emanaldi ederra eskaini zuten.

'Gurean' dokumentala ikusgai ostiralean

Festetan animaliek jasaten duten «zapalkuntza» ageri da Askekintzak egindako dokumentalean

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, egitarau betearekin doa azaroa eta abendua ere halaxe izanen da. Aipatzekoa da joan den urtean sekulako arrakasta izan zuen Katarrapikaka lehiaketa oraingoz atzeratzea erabaki dutela antolatzaileek, baina gainerakoan, aurreikusi bezala egiten ari dira ekitaldiak.

Aste honetan ere izanen da ekitaldirik. Ostiral honetan, azaroak 30, *Gurean* dokumentala ikusteko aukera izanen da Ganbaran. Animaliek Euskal Herriko festetan jasaten duten tratua salatzeko lana da *Gurean*, Askekintzak egina. 18:30ean eskainiko dute.

Abenduaren 15ean errege opila egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute. Ceban ostalaritza eskolak emanen du eskolako jangelan eta interesatuek Amaia kafetegian eman beharko dute izena.

Abenduaren 22an, bestalde, nazioarteko jaia eginen dute eta abenduaren 30ean haurrentzat zinema izanen da. Xehetasun gehiago TTIPI-TTAPAren abenduko zenbakian agetuko dira.

1,2 kiloko onddoa aurkitu du Joxe Mari Zubirik

Dagoeneko askok egin izanen dute otordu ederren bat onddoak bilduta. Baina horietako gutxi izanen ziren Joxe Mari Zubiri *Xubiri*k aurkitutakoaren adinakoak. 1,2 kiloko perla ahogozagarria bildu zuen!

UTZITAKO ARGAZKIA

FELIX LOIARTE

Giro ederra abesbatzen saioaren bueltan

Emanaldi ederra eskaini zuten joan den azaroaren 11ko eguerdian Umore Ona eta Oiartzungo Lartaun abesbatzek elizan. Emanaldiaren ondotik, Umore Ona elkartean bildu ziren bazkaltzeko eta hor ere kantuan segitu zuten, baina topa eginez.

FELIX LOIARTE

Hondarribiko alardea hizpide

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, *Irailaren 8an ez dira aterako* izenburupean hitzaldia eskaini zuen Ilargi Bengoetxea Gartziak azaroaren 16an Ganbaran. Hondarribiko alardea eta indarkeriaren normalizazioa izan zituen hizpide.



Bizitegiak zaharberritzea errazago egitea nahi du Udalak. ARTXIBOKOA

Etxeak berritzeko dekretua aldatzea eskatu dute Iruñean

Udal ordezkariak Parlamentuan izan ziren azaroaren 14an, eta talde guztiek egokitzeko borondatea agertu zuten

TTIPI-TTAPA

Udaleko ordezkariak Nafarroako Parlamentuan izan ziren azaroaren 14an, eta etxeen zaharberritzea errazago egiteko bizitegien bizigarritasun baldintzak arautzen dituen foru dekretua aldatzeko eskatu dute. Gaiari buruz solastatzeko espresuki egin zen lan-saioan Joseba Otondo alkatea, Florentino Goñi zinegotzia eta Xabier Lopez de Uralde eta Gotzon Olarte udaleko hirigintza aholkulariak izan ziren. Parlamentuko talde guztietako ordezkarien aitzinean, etxe zahar handiak berritzeko tenorean bizigarritasun baldintzak arautzen dituen foru dekretuaren mugak aipatu zituzten eta udaleko hirigintza aholkularitzak egindako txostena aurkeztu zuten. Lopez de Uraldek etxe zahar handien zaharberritzeko arazoak aztertu zituen, eraikitako paisaiaz gogoeta egin zuen eta bertze autonomia erkidegoetako arauekin alderaketa eginda foru dekretua aldatu beharra azpimarratu zuen. Alkateak zehaztu zuenez, etxeen zaharberritzea lehentasunezko gaia du Udalak eta horri buruz martxoan Eusko Ikaskuntzarekin egin zen gogoetaldia aipatu zuen. Bertan, bizigarritasun baldintzak arautzen dituen foru dekretua egokitu beharra ikusi zen. Horrela, joan den apirilean Nafarroako Gobernuari dekretua aldatzeko eskaria egitea ahobatez onartu zuen Udalak. Hortaz, dekretua aldatzea Udalak abiatutako ekimenen artean dago. Lan-saioa ongi joan zela erran zuen alkateak, talde guztiek dekretua aztertzeko eta, hala behar izanez gero, egokitzeko borondatea agertu dutelako.

Ester Fernandez Casasen margo erakusketa

Ester Fernandez Casas margolariaren lanak ikusgai izanen dira abenduaren 1etik 15era Arizkunenea Kultur Etxean. Astelehenetik ortziralera, 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izanen da ikusgai.

Nafarroaren Eguneko kontzertua eta Boluntariotza Eguna

Abenduaren 3an, Nafarroaren Eguneko kontzertua eskainiko du Elizondoko Musika Bandak 13:00etan Arizkunenean. Nafarroako Gobernuak antolatu du emanaldia, Baztango Udalaren laguntzarekin. Sarrera doan izanen da, lekua bete arte. Bertzetik, abenduaren 10ean ospatuko den Nazioarteko Boluntariota Egunaren baitan, *Boluntariotza Baztanen* kafe-tertulia eginen dute 17:30ean Arizkunenean. Benito Menni ospitaleak eta Bidelagun elkarteak antolatu dute ekitaldia.

Asteburu Kulturala izanen dute Anizen abenduaren 8 eta 9an

Larunbatean herri inguruan ibiliko dira, leku-izenak ikasiz eta igandean argazki emanaldia eta talo ikastaroa dute

MAITANE MARITORENA

Heldu den abenduaren 8an eta 9an Asteburu Kulturala izanen dute Anizen, ekitaldiz betea aurten ere.

Abenduaren 8an, larunbatean, 11:00etatik 13:00ak artio herri inguruan dauden belagi eta parajeetan barna itzulixka eginen dute, eta bidenabar belagi eta tokien izenak paratuko dituzte dagokion lekuan. Izan ere adin batetik beheitiko haur eta gaztetxoek parajeen izenak zeinek diren ez baitakite. Itzuliskan Anizko adineko jendea ere egonen da, izenaren berri emateaz gain, azalpen gehixeago ere emateko. Hazitik Hozie elkarteak eta aniztarrek elkarlanean antolatu dute ateraldia.

Bazkalondoan, 15:00etan haurrendako ginkana eta jokoak izanen dituzte. Jokoen oinarrian Anizko ohiturak, etxe izenak, jendea... egonen dira. Jostetan aritu ondotik txokolatada izanen da elkartean. Txokolatea jan bidenabar bideo emanaldia izanen da elkartean. Eguna ongi akitzeko, bertso afaria antolatu dute Anizko herriak eta Mendiarte kultur elkarteak, Aitor Sarriegi eta Oihana Iguaran bertsolariekin. Afariko txartelak egunotan edozein aniztarri eskatuta erosten ahalko dira 30 eurotan.

Aniztarrak, kulturaldian.

Argazkiak, taloak eta gaztainak iganderako

Biharamunean, igandean, 11:30ean argazki emanaldia eta 12:00etan talo ikastaroa izanen dituzte. Taloak egiten ikasi ondotik, horixe bera bazkalduko dute aniztarrek. Postrerako, Anizko haurrek Asteburu Kulturalerako espreski bildu dituzten gaztainak janen dituzte. Asteburua akitzeko modu ezin hobea.

TESTUA ETA ARGAZKIA: MAIALEN IANTZI

San Martin Eguna ospatu dute Berroetan

Urte andana dira Berroetan bestak San Martinetatik udaberrira aldatu zirela. Hala ere, herrian azaroaren 11 ospatzeko ohitura ez da galdu. 50 lagunetik goiti elkartu ziren elkartean afaltzeko, Salaberriren akordeoiaren doinua lagun izan zuten. Biharamunean bazkaria izan zuten.

UTZITAKO ARGAZKIA

Agote izatearen harrotasuna aldarrikatuz

El orgullo de ser agote (Agote izatearen harrotasuna) liburua aurkeztu dute Xabier Santxotena eta Josu Legarretak azaroaren 14an Arizkungo Bozate auzoko Gorrienea museoan. Liburuak dokumentazio zehatza aurkezten du, ikuspegi akademikoa eta emozionala uztartuz.

Nekazari gazteei aitortza instituzionala egin die Udalak

Lanbide horretan ari diren baztandarren kasik erdia 55 urtetik goitikoa da

TTIPI-TTAPA

30 urtez beheitiko Baztango nekazari gazteei aitortza instituzionala egin zien Udalak azaroaren 21ean Balleko Etxean. Bertan aipatu zutenez, gaur egun hamabi nekazari gazte ditu Baztanek, baina bi gehiago izanen dira laster. Joseba Otondo alkatearen erranetan, «Nafarroako mendialdeko gainerako tokiekin konparatuz gero alimaleko zifra. Alta, Baztanek nekazari gehiago behar ditu». Sektorea gaztetzeko eta berritzeko beharra azpimarratu nahi izan dute, «zeren Baztango nekazari profesionalak 233 baldin badira, %47ak 55 urte baino gehiago baititu». Horregatik, eskerrak eman dizkiete gazteei, «herritarrendako jatekoak egiteagatik, ingurua zaintzeagatik eta nekazal kultura mantentzeagatik. Nekazaririk gabe jatekorik ez dago, zaindutako ingururik ere ez. Esker mila hartutako konpromisoarengatik. Eutsi baserriari!».

30 urtez beheitiko nekazariak, udal ordezkriekin. JUAN MARI ONDIKOL

Euskaraldiaren azken ekitaldiak eginen dituzte egunotan

TTIPI-TTAPA

Euskaraldiaren azken txanparako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Azaroaren 30ean, *Bertsolaritza puntuagarria. Nola epaitzen da bertsoa* hitzaldi-tailerra eskainiko du Arkaitz Goikoetxeak Arizkunenean (20:00).

Abenduaren 2an, igandean 19:00etan Arizkunenean, Mikel Bermejoren *Euskaldun light* monologoa antolatu du Baztandarren Biltzarrak.

Abenduaren 3an, azkenik, Baztango Euskalgintzak antolatuta, Euskararen Eguna ospatuko dute, astelehenean 11:00etatik aitzinera Elizondoko plazan. Kalejira, dantzak, kantuak, bertsoak, zopak… izanen dituzte.

TIRIKITRAUKI
EUSKAL JANTZIETAN
TALDERA HAUNDIA

Zuloaga Kalea 16
20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 644 270
emaila: denda@euskaljantziak.com
www.euskaljantziak.com

tirikitrauki
www.tirikitrauki.com
ESKU-SOINU DENDA

TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN,
SALMENTA eta ALOKAIRUA.

DISEINU EZBERDINETAKO
PANDEROEN SALMENTA.

Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE
Tel.: 943 372 817
emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com

«Xaboi naturalak osasuntsuagoak dira azalerako»

MONTSE BUENO AGOIZKO XABOI-EGILEA

Montse Bueno, feria batean xaboia saltzen. UTZITAKO ARGAZKIA

NATALIA ETA ANDREA ELIZONDO LE (IIP)

Agronomia-ingeniari ikasketak dituen Agoizko Montse Bueno, 47 urteko xaboi-egilea elkarrizketatu dugu.

Xaboiak egitea: afizioa edo ofizioa?

Ofizio eta afizio asko ditut. Eta inportantena, egiten dudan guztiekin gozatzen dut. Batez ere, mometu honetan xaboi-egile sentitzen naiz. Baita nekazari ere, nire baratzea baitut. Nire paradisua da. Nire barazkiak, fruituak, landare usaintsu eta sendagarriak landatzen ditut. Animaliak ere baditugu , etxerako elikagaiak izateaz gain, baratzea ekologikoan ongarritzea ere lortzen dugu. Asteburuetan, 112an lan egiten dut.

Nola hasi zinen abentura honetan?

Orain dela bortz urte *Landare usaintsu eta sendagarrien* ikastaro batean apuntatu nintzen. Jardueretako bat xaboiak egitea izan zen. Izugarri gustatu zitzaidan eta orduz geroztik, nire bizitza erabat aldatu zuen.

Xaboiak egiten dituzunetik saltzen duzun artio, zenbat denbora pasatu behar da?

Egiten dudan xaboi bakoitzaren prozesuak denbora dexente behar du. Erabiltzen ditudan landare gehienak nik lantzen ditut. Biltzen ditudanean potoetan sartzen ditut olioarekin eta hilabete bat beratzen uzten ditut. Behin eginda xaboia gutxienez beste hilabete batean itxaron behar da erabili ahal izateko.

Xaboia hotzean ala beroan egiten da. Zer prozesu erabiltzen duzu?

Normalean hotzean egiten ditut. Egiten ditudan xaboiak solidoak direnez soda kaustikoa erabiltzen dut. Urarekin ia beti nahasten ditut, nahiz eta batzuetan infusioak erabili, bai landareenak baita zerealenak: oloa, esnea, garagarra... Ondoren, olioekin batera nahasten dut eta saponifikazioa gertatzen da, solidotuz eta xaboia eratuz. Miraria dirudi! Likidoak diren bi gauza elkartuz egiten da xaboi solidoa.

Zure xaboiak guztiz naturalak dira. Nola erreakzionatzen du azalak xaboi natural batekin?

Merkatuan saltzen dituzten xaboi aunitzi glizerina ateratzen diete, saponifikazioan eratzen den produktua da. Azala hidratatu eta babestu egiten du. Harekin kremak egiten dituzte gero. Horregatik, saltzen dituzten hainbat xaboik normalean azala lehortzeko eta babesgabe uzteko joera dute. Alderantziz, eskuz egindako xaboiek saponifikazioan ematen den glizerina guztia mantentzen dute eta zenbat eta gehiago erabili, gehiago hidratatzen dute eta azalerako osasuntsuagoak dira. Gainera, landare usaintsu eta sendagarriak edukitzen dituztenez, gure azalerako opari bikaina dira.

ABENDUAREN 13AN ELIZONDON IZANEN DA: DIRUA IKAS-BIDAIARAKO

Xaboiaz gain, beste kosmetika-produktu batzuk egiten duzu?

Krema bat egiten dut arazoak dituzten azalendako. Oso krema hidratatzailea da, azala berritu eta elikatzen du, osasuntsu eta babestuta mantenduz. Arazorik ez duen jendeak ere asko ere erabiltzen du.

Hemen, Baztanen, non lortu ahal ditugu zure xaboiak?

Abenduaren 13an, Elizondoko merkatuan egonen naiz Elizondo ikastetxeko Andrea eta Nataliarekin. Elkarrekin salduko dugu. Eskerrak eman nahi dizkiet aukera hau emateagatik. Etortzera eta erostera animatzen zaituztegu. Inoiz ikusi duzuen posturik politena izanen dugu eta produktua ezin hobea. Gabonak hor ditugu. Aukera polita opari bat egiteko. Ateratzen den diruarekin ikas-bidaia bat egiteko asmoa dute.

'Dublindarrak' helduendako antzerkia abenduaren 9an izanen dute Iruritan

TTIPI-TTAPA IRURITA

Ados teatroa taldearen eskutik, *Dublindarrak* antzezlana ikusgai izanen dute abenduaren 9an, igandean 19:00etan Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Udalak antolatu du emanaldia, 2019ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan eta sarrera doan izanen da, lekuak bete arte.

Dublindarrak ('Dubliners'), James Joycen kontakizun sinple baina sakona da, bizitzaren suntsikortasuna, gazte garaiko maitasun galduak eta oroimin eta iruzurrak zikindutako bizitza batzuen inguruan.

Eguberrietako saskiak prest dituzte Arraiozen

Abenduaren 24an zozketatzen diren bi saskiak prest dituzte Arraiozen. Zenbakiak abenduaren 3tik aitzinera eskuragai izanen dira Zubiondo ostatuan. Haurrek ere zenbakiak izanen dituzte saltzeko. Zenbaki bakoitzak 0,50 euro balioko du.

Bi saski prestatu dituzte Arraiozen.

Antzerkiko eszena bat. UTZITAKO ARGAZKIA

Sorgin Haizea taldeak Logroñon egin zuen emanaldia

Duela 408 urteko gertakariak antzeztu zituzten eta biharamunean omenaldian parte hartu zuten

JOSEBIÑE ETA KORO

Azaroaren 3an Logroñon izan zen Sorgin Haizea taldea. Duela 408 urteko gertakariak antzeztu zituzten eta biharamunean epaitu zituzten lagunen aldeko omenaldi batean parte hartu zuten.

Logroñoarrekin adiskidetzea

Oroimen beltzeko hiria izan da zugarramurdiarrendako Logroño. Dena dela, 400. urteurrena bete zenean bi herrien arteko adiskidetzea egin zen eta garai haietan hainbertze sufritu zuten herritarren omenez hainbat ekitaldi antolatu ziren.

Bertzeak bertze, Logroñon Ebro ibaiaren bazterrean hamaika zumarrondo landatu zituzten erre zituzten hamaika lagunen oroigarri bezala. Horri Oroimenaren oihana deitu zieten eta hamaika izenekin erdian monolito bat paratu zuten. Toki horretan, hain zuzen, izan zen azaroaren 4ko omenaldia; eta bertzeak bertze, 'Txoria txori' kanta kantatu zuten.

UTZITAKO ARGAZKIA

Azketako aparkalekuan marrak margotuta

Aparkalekuan marrak margotu dituzte. Kotxeak aparkatzeko zentzua aldatu da. Hemendik aitzinera baterian aparkatuko da eta toki zabalagoak utziko da maniobrak errazago egiteko. Udaberrian egin ziren handitze lanekin autoendako 72 plaza, autobusendako bortz eta ezinduendako bi geldituko dira.

'Jolasten, jolasten, unibertso berri bat sortzen' emanaldia

Azaroaren 23an, aitzineko ortziralean, Jon Zabaleta marrazkilari eta ilustratzailea eta Agurtzane Anduetza artista izan ziren Sorginen Museoko protagonistak. Anduetzaren *Oro* erakusketa –poesia eta arte erakusketa– ilargi beteko egun horretan zabaldu egin zen eta Zabaletak horrekin «jolasten, jolasten unibertso bat sortu zuen». Anduetzaren mundu ikuskera eta Zabaletaren artea lagun, bertaratu ziren ikusleek arratsalde ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

Pontx pailazoa abenduaren 8an Urdazubin

Urte bukaera umorez bukatzeko, Pontx pailazoaren saioak girotuko du abenduko zubia Urdazubin. *Mendian* ikuskizuna eskainiko du, bertze urte batez, Kultur Etxean ariko da pailazo gaztea. 17:00etan dute hitzordua eta sartzea urririk izanen da. Herriko eta inguruko gaztetxoek arratsalde goxoa pasatzeko aukera ederra izanen dute. Emanaldiaren nondik norakoak ezagutu nahi izatekotan, Pontx pailazoaren Facebook orrialdean laburpentxo bat ikusi ahal izanen da.

H2OGurea egitasmoko batzorde teknikoaren bilera, Kultur Etxean. IÑIGO IMAZ

Ur-hornidura sarea berritzeko lanak epean egiten ari dira

H2Ogurea proiektuan aurreikusitako obren %76,74a gauzatu da dagoeneko, Udalak jakitera eman duenez

IÑIGO IMAZ

Udal Gobernuak igorritako ohar baten arabera, H2Ogurea proiektuan aurreikusitako obren %76,74a gauzatu da dagoeneko, horretarako 2018ko aurrekontuetan onartutako epeak bete direlarik.

H2O Gurea proietuaren helburu nagusia, muga arteko arro hidrografikoen ikuspegi orokorra lantzea da, hau da Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdin kokaturiko Bidasoa, Urdazubi, Urumea, Leitzaran eta Araxes ibaiak biltzen dituen lurraldeetako erakundeekin elkarlanean, uraren kudeaketari buruzko zuzentarau edo direktiba europarretan jasotako helburuak lortzeko neurriak ezartzea.

Ekimen hori aldi berean finantzatu du Herrialde-Garapenerako Europar Fondoak, %65arekin; Programa Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) egitasmoaren bitartez. Parte hartu duten erakundeak aunitz dira: Gipuzkoako Foru Aldundia, Uraren Euskal Agentzia (URA), Txingudiko Zerbitzuak S.A., Gestión Ambiental de Navarra (GAN-NIK) S.A., Euskal Hirigune Elkargoa eta Urdazubiko Udala. Erakunde horiekin batera, elkarlanean ari dira Nafarroako Gobernua, Agence de l'Eau Adour Garonne eta Pirinio Atlantikoen Departamentua ere.

Batzorde Teknikoaren azken bilkura irailaren 18an ospatu zen, bertan, Udalak berari zegokion proiketuaren zatiari buruzko informazioa zabaldu zuen, eta beste erakundeek gauza bera egin ondoren, 2018ko urte amaiera bitarteko lanen programazioa zehaztu zen, baita 2019ko egutegia.

Udal agintarien oharrean emandako datuen arabera, eta Urdazubiri dagokionean, 2018ko uztailaren 1ean egindako gastuen aitorpenak lanen %76,74a gauzatu dela jasotzen du. Hortaz, aurreikusitako epeak eta norabideak errespetatuz gauzatzen ari dira lanok. Egutegian ezarritako epeak jarraitu dira, proiektuan adierazitako lanak betez. Fite akituko dira azken lanak, Urdazubi eta Ainhoako edateko ur-horniketa sareen interkonexioari dagozkien obrak.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetako bat, herrian izanen da

IÑIGO IMAZ

Nafarroako Bertsozale Elkarteak 2019ko Txapelketako final-laurdenetako bat Urdazubin egitea proposatu dio Udalari. Azaroaren 19an ez ohiko bilkura egin zuen Udalak eta, bertze gai batzuen artean Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzeko proposamena ontzat eman zen. Urdazubirako data zehatz bat adostu gabe oraindik erabakitzeke dagoelako. Otsailaren 9,10,16 eta 17an izanen dira lau final-laurdenak, eta horietako egun bat hautatuko da (aretoaren erabilgarritasun eta gainerako herrien aukeren arabera) Urdazubiko saioa egiteko. Txapelketako saio hori antolatzeko Nafarroako Bertsozale Elkarteak Udalari bi gauza eskatu dizkio: batetik, saioa egiteko aretoa uztea; bertzetik, saioa herrian egiteagatik 600 euroko diru-laguntza ematea (diru-laguntza izaten ahal da, saioaren kontratazioa edo beste formularen bat). Gainerakoan, Txapelketaren antolaketa osoa Nafarroako Bertsozale Elkarteak hartzen du bere gain. Saioak hartzen dituzten udalak laguntzaile izaten dira. Bertsolaritzaren inguruko ekimen osagarriak ere antolatzen dira eta Udalak ekimen hauek interesgarritzat jo ditu.

Soliha batasunak adineko herritarrak bildu ditu Karrikarten

PIERRE BASTRES

Camille Bourlier Herriko langilea da, eta honek du Soliha batasunaren tailerra antolatu. Hain zuzen Karrikarte bizitokiaz arduratzen da, eta argi eta garbi utzi du «Karrikarte bizitokia ez da zahar etxe bat! Zerbitzu zonbait partekatuak izanagatik, egoiliar guziek beraien apartamendua dute. Oro har autonomian bizi dira. Hemen sartzeko 65urtez goiti izan behar da, eta gure 26 egoiliaretarik zaharrenak 94 urte bete ditu. Bertzalde gauza ainitz elgarrekin egitea proposatzen diegu: nahi dutenak eramaiten ditut ortzilare guziz erosketen egiterat, astelehen oro ibilaldirat ateratzen gara etab...».

Senpere auzo herri batek Karrikarte bezalako zerbait sortu nahi zuelakoz, galdegin zioten Solihari egitasmoaz arduratzeko. Honenbertzez Senpererat joan ziren ikusterat nola zen, eta hartu-eman arras onak izituzten Camile eta bizitzaileekin, eta adiskidetu ziren. Honbertzetaraino non Karrikartekoei proposatu zieten lau mintzaldi-ikastaldi egitea. Camillek dioen bezala «Egoiliar zein kanpokoeri idekia zaizkiote lau tailerrak. Egun 12 partzuer izan ditugu, aski polita da: sei bertako eta sei kanpoko. Solihako pertsonek adierazi diote nola aldatu gauza arrunt batzuk hobeki mugitzeko eta bizitzeko, arrisku guttiago hartuz. Hala nola, batek aldi bateko edo betiko nekezia badu bainuontzian sartzeko, ez du obra handirik egin behar : erraz emaiten eta kentzen ahal den urrats bat erosten ahal du, prezio xumean. Holako jakin behar ainitz ikasi ditugu. Lan handiagorentzat, nola diruztatu ere ikasiko dugu».

AFM Telethon elkartearen aldeko hitzordua abenduan

Abenduaren 8ko elkartasun egunean bildutako dirua AFM Telethon elkartearentzat izanen da

TTIPI-TTAPA

Aurten ere ez du hutsik eginen abendu hastapeneko elkartasun egunak. Abenduaren 8an AFM Telethon elkartearen aldeko eguna izanen da eta horren karietara, pastiza salmenta, Larunera trenez igateko hitzordua eta krakada antolatu dituzte.

10:30ean plazan pastizak saldu ondotik, 14:30ean San Inazioko lepoan biltzeko deia egin dute. Hamar euro ordainduta, Larunera trenez igateko aukera izanen da eta itzulera oinez egiten ahalko da.

Telethonaren alde trenean. ARTXIBOKOA

16:00etatik aitzinera, berriz, Pikassaria jatetxean krakada antolatua dute. Ekitaldietan bildutako diru guztia AFM Telethon elkartearentzat izanen da.

PANTXIKA PATERNE

Ikastolako haur eta burasoen kantaldia

Oren bat eta erdiko kantaldi ederra eskaini zuten Olhain ikastolako haurrek eta burasoek joan den hazilaren 17an Lur Berri gelan. Neska-mutikoek bi kanta abestu zituzten eta ondotik, burasoek nahi adina kantatzeko aukera izan zuten. Jatekoa eta edatekoa ere bazen, eta giro polita sortu zen.

Ongi Izaite Eguna antolatu dute abenduaren 9rako

TTIPI-TTAPA

Aurten bigarren aldiz, Sarako 15 bat terapeuta eta sendagile elkartuko dira abenduaren 9an eginen den Ongi Izaite Egunean. Egun horretan, 09:00etatik 19:00etara, tailerrak eta solasaldiak eskainiko dituzte Lur Berri gelan, sartzea euro bat ordainduta. Hainbat alorretan ari diren adituak izanen dira: erlaxazio-masajea, masaje-energetikoa, Thai, oinerreflexologia, terapia emozionala, auto-masajea, Chi-Gong, kinesologia, sofrologia, shutaido, basa-medikuntza, Hatha Yoga...

Goitian bilkuran elkartutakoak eta beheitian finaletan aritu diren pilotariak. GANEX

Urteko balantze positiboa egin du Sarako Izarra pilota elkarteak

TTIPI-TTAPA

Ehun bat lagun bildu ziren hazilaren 9an Lur Berri gelan, Sarako Izarra pilota elkartearen biltzar nagusiaren karietarat. Guy Mounho lehendakariak hainbat azalpen eman zituen eta horren arabera, gaur egun, 110 pilotarik dute lizentzia Izarrarekin. Aurten 24 final jokatu eta horietatik erdiak irabazi dituzte: Euskal Herriko txapelketan 11 partidetatik bortz, Union Basquen lautik bi eta Frantziako txapelketan bederatzitik bortz. Bertze datu bat ere eman zuten: 2018an 464 partida jokatu dituzte.

Egoera ekonomiko onean

Bruno Martin diruzainak, bere aldetik, kontuak azaldu zituen eta positiboki finitu dute denboraldia. Hala, elkartetik eskerrak eman nahi izan dizkiete Herriko Etxeari, herriko langileei, burasoei eta diruz laguntzen dieten guztiei. «Herrian badira pilotariak, eta horiek ongi entrenatu eta segitzeko laguntza behar da». Laguntzeko prest den guztia «ongietorria» izanen dela ere adierazi zuen lehendakariak. Bere irudiko, «balio du gazte horiek laguntzeak, herriaren geroa baitira».

«Partiden erritmoa bizitzen dut baina beti ez da onerako»

UGAITZ ELIZALDE ITURENGO PILOTARIA

Ugaitz Elizalde, pilota astintzeko prest. UTZITAKO ARGAZKIA

TTIPI-TTAPA ITUREN

Txaruta, Erreka eta Zugarralden aritu ondotik, azaroaren 3an Garferekin debutatu zuen Ugaitz Eizaldek. «Ilusioz» hartu du deia eta patidetan «onena» ematen ahaleginduko da iturendar gaztea.

Noiz hasi zinen pilotan?

Etxekoei aunitz gustatzen zaien kirola da eta familian afizio haundia dago. Entrenamenduetan sei urte inguru nituela hasi nintzen, Donezteben; baina lehendik herriko plazan eta Aurtizko frontoian ere aritzen nintzen.

Erreka elkartean eman zenituen lehenbiziko urratsak...

Lehenbizi Txarutan jokatu nuen. Orduan Erreka eta Txaruta bat ziren. Banandu eta denboraren buruan Errekara joan nintzen. Joan den urtean Zugarraldetik estatuko txapelketa jokatzeko abisatu zidatenean beraiekin hasi nintzen; hor nabil. Orain entrenamenduak serioagoak direla erranen nuke.

Lehenbiziko txapela noiz jantzi zenuen?

Ez naiz oroitzen noiz izan zen. Guztira 27 inguru lortu ditut. Horien artean bereziena Zumarragako lau eta erdiko Goñi Memoriala txapelketakoa izan zen. Ordezko sartu nintzen eta inork ez zuen espero nik irabaztea.

Beti oroituko duzun partida bat?

Mikel Goñiren aurka jokatu nuen lehenbiziko hura erranen nuke, Irujorekin batera nire idoloa da.

Garferekin debutatu berri duzu...

Ez nuen firmatzeko erranen zidatenik espero, poz haundia hartu nuen. Debuta Arnedon jokatu nuen, Urmeneta Sainzen aurka. 22-19 galdu arren, egin nuen partidarekin kontent gelditu nintzen.

Xala, Titin III.a, Merino... izen eta izan handia duten pilotariekin...

Hasieran errespetua ematen badute ere, arront atseginak dira eta bertze edozein bezain arruntak.

Zenbatetan entrenatzen duzu?

Frontoian egun bat edo bi egiten ditut astero; eta bertze bi egunez fisikoa egiten dut, baina guztia asteburuan ditudan partiden arabera antolatzen dut.

Lana eta entrenamenduak... nola uztartzen dituzu?

Egia erran suerte haundia dut. Beti goizez aritzen naizenez, arratsaldetan entrenatzeko nahikoa denbora izaten dut.

Abenduan Merinorekin jokatuko duzu...

Bai, Prado eta Zabalaren aurka. Arront partida gogorra izanen da, eta irabazteko lan handia egin beharko dugu. Baina egia erran ilusio handia dut, eta ea partida guztietan edo gehienetan nire onena emateko gai naizen.

ABENDUAREN 3AN BEROIZEKIN TITIN ETA MERINOREN KONTRA ARIKO DA

Baduzu zehaztutako bertze partidarik?

Bai abenduaren 3an Lerinen Titin eta Merino II.aren aurka ariko naiz, Beroizekin bikote eginda eta hilaren 6an Brionesesen jokatuko dut.

Zein da zure indargunea?

Nire ustez bolearekin egiten dut min handiena eta partiden erritmoa bizitzen saiatzen naiz. Halere, badut zertan hobetu. Batzuetan gehiegi berotzen naiz eta horregatik aunitzetan partidak eskuetatik joaten zaizkit.

Zein dira denboraldi honetarako erronkak?

Izen handia duten pilotariekin ahalik eta partida gehien jokatzea eta bertako herritarrei ahalik eta gehien gustatzea.

Euskadiko hirugarren mailako aizkora txapelketan bosgarren Jesus Etxeberria

TTIPI-TTAPA BEINTZA-LABAIEN

Larrabetzun jokatu zen azaroaren 18an Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapelketaren finala. Barakaldoko Julen Larrea izan zen bizkorrena hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako enbor mozten (13:29). Bigarren Arratiako Hodei Ezpeleta izan zen (13:55). Biak ariko dira bigarren mailan datorren urtean. Hirugarren Goizeder Beltza izan zen (14:19), laugarren Jokin Alkizalete (14:53), bosgarren Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria (16:29) eta seigarren Beñat Lekue (16:39).

Niko Mindegia urriko jokalari onena Frantzian

Frantziako eskubaloi liga nagusian, Chambery taldean ari da Niko Mindegia jokalari doneztebarra. Ederki ari ere. Horren erakusgarri, ligako urriko jokalari onena izendatu zuten eta azaroaren 7an jaso zuen saria, egindako lan bikainaren adierazle.

Niko Mindegia saria jasotzen.

Rekondo, Vicente eta Etxeberria aizkorako podiumean eta Onsalo eta Eugi arpanako txapeldunak Donezteben. IBON ERRAZU

NAFARROAKO TXAPEL.

LEHEN MAILAKO AIZKORA

GIZONEZKOAK

1. Iker VICENTE	**32:35**
2. Jon REKONDO	**35:58**
3. Joxean ETXEBERRIA	**38:18**
4. Oier KAÑAMARES	**39:43**
5. Ruben SARALEGI	**39:53**

ARPANA TXAPELKETA

MISTOA

1. I. ONSALO-M. EUGI	**04:58**
2. A. IRAIZOZ-J. BARBERENA	**05:29**
3. E. GASTEARENA-U. BERTIZ	**06:44**
4. I. BIURRUN-E. GARAI	**07:04**
5. A.COBO-T.UGARTE	**11.11**

Iker Vicentek laugarren txapela lortu du Donezteben

Nafarroako arpana txapelketa mistoan Aresoko Itxaso Onsalo eta Beuntzako Mikel Eugi nagusitu dira aurtengoan ere

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Donezteben ferietako ohiko herri-kirol saioan, Nafarroako aizkora txapelketa nagusia eta Nafarroako arpana txapelketa mistoa erabaki ziren azaroaren 16an. Iker Vicente laugarrenez txapeldun suertatu zen aizkoran, eta arpanan, berriz ere Aresoko Itxaso Onsalo eta Beuntzako Mikel Eugi izan ziren txapeldun.

Espero bezala, Otsagiko Iker Vicente jaun eta jabe izan zen. Hasieratik aldea egin zuen, eta alde horri arazorik gabe eutsi zion, eroso. Azkenean 32 minutu eta 35 segundo behar izan zituen, lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbikoak mozteko eta Nafarroako bere laugarren txapela segidan janzteko. Jon Rekondo leitzarra bigarren izan zen, ia 3 minutu eta erdira (35:58) eta Zigako Joxean Etxeberriak osatu zuen podiuma (38:18). Azken postua saihesteko borroka izan zen finaleko lehiatuena, hamar segundoko aldea bertzerik ez baitzen izan laugarren gelditu zen Arostegiko Oier Kañamares (39:43) eta bosgarren izan zen Ruben Saralegi leitzarraren artean (39:53).

Arpana mistoa

Arpana txapelketa mistoan, berriz ere bikote sendoa osatzen dutela erakutsi zuten Aresoko Itxaso Onsalok eta Beuntzako Mikel Eugik. 45 ontzako enborrari hamar epai emateko eta txapela janzteko 5 minutu baino guttiago behar izan zuten (4:58). Bigarren izan ziren Iraizotzko Josetxo Barberena eta Eltsoko Ainhoa Iraizoz (5:29), hirugarren Sunbillako Unai Bertiz eta Iruñeko Esti Gastearena (6:44), laugarren Antsoaingo Endika Garai eta Irune Biurrun (7:04) eta Antsoaingo bosgarren Tasio Ugarte eta Alba Cobo (11:11).

UTZITAKO ARGAZKIA

Beola nagusi Malerrekako Rallysprintean

Bigarren urtez Malerrekako Rallysprinta egin dute. Guztira 36 bikotek hartu zuten parte eta bizkorrenak Joseba Beola eta Jose Luis Iratzoki (37:54) izan ziren. Aitor Aristregi eta Mikel Izko izan ziren bigarrenak (39:17) eta Iker Seinek eta Miren Maiak (39:51) lortu zuten podiumeko hirugarren koxka.

UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazte txapeldun Euskadiko 4x4koan

Beti Gazteko laukoak (Aitziber Goienetxe, Udane Loidi oiartzuarra, Joxe Angel Mitxelena eta Gerardo Telletxea) Euskadiko txapelketa mistoa irabazi zuen azaroaren 18an Artziniegan (Araba), 280 kiloko kategorian. Berriozar izan zen bigarren eta Gaztedi hirugarren.

AGENDA

AZAROAK 29 - ABENDUAK 14

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO
Kafe-tertulia
Nazioarteko Boluntariotza Egunaren harira.
Arizkunenean, abenduaren 10ean, 17:30ean.

IKASTAROAK

EZKURRA
Lehen sorospenak
Azaroaren 29an, jubilotekan.

LEITZA
Haur-eramaile tailerra
Udaletxeko ludoteka gelan, azaroaren 29an, 17:30ean.

ELIZONDO
'Bertsolaritza puntuagarria'
Arizkunenean, azaroaren 30ean, 20:00etan.

Sormen taierrak
Arizkunenean, urtarrilaren 3an eta 4an. Izen-ematea: azaroaren 29a bitarte (10 euro).

DONEZTEBE
Indarkeria sexistari aurre egiteko tailerra
Mankomunitatean, azaroaren 30ean.

ARANTZA
'Begirada morea sortzeko espazioa'
Gizarte Zerbitzuen eskutik.
Baskulan, azaroaren 30ean, 18:00etan.

Antzerki topaketak prestatzeko tailerra
Abenduaren 14an.

BERA
Olentzero ea Mari Domingi entseguak
Abenduaren 12an, musika eskolan, 18:00etan.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

SARA Ongi Izaite Eguna
Automasaje tailerra, gorputza indartzea, hezkuntzari buruzko hitzaldia...
Abenduaren 9an, Lur Berri Gelan, 09:00etatik 19:00etara.

KONTZERTUAK

EZKURRA
Euskaraldia Kantuz
Abenduaren 1ean, 12:00etan, plazatik abiatuta.

ELIZONDO
Recreo musika banda
Arizkunenean, abenduaren 3an, 13:00etan.

BERA
Nafarroaren Eguneko saioa
Elizan, abenduaren 3an, 13:00etan.

Biolin entzunaldia
Musika eskolan, abenduaren 11n, 18:00etan.

Trikitilari eta akordeoilariak
Musika eskolan, abenduaren 14an, 18:00etan.

ZIGA
Eguberrietako kontzertua
Elizan, abenduaren 15ean, 17:30ean.

SUNBILLA
Mendi abesbatza
Elizan, abenduaren 3an, 13:00etan.

OSPAKIZUNAK

ZUBIETA
Talo jatea
Estalpean, azaroaren 30ean.

NARBARTE
Sanandresak
Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean.

DONEZTEBE
Euskaraldiaren bukaera
Abenduaren 3an, 17:30ean.

Mendiaren Eguna
Abenduaren 15ean.

LESAKA
San Nikolas eguna
Abenduaren 6an.

ANIZ
Asteburu kulturala
Abenduaren 8an eta 9an.

BERA
Josu Goiari omenaldia
Kultur Etxean, abenduaren 16an.

SARA
Ongi Izaite Eguna
Lur Berri gelan, abenduaren 9an.

AFM Telethon elkartearen aldeko hitzordua
Abenduaren 8an.

BERA
Mintzodromoa
Rikardo Barojan, abenduaren 3an.

ETXALAR
Larraburua Eguna
Abenduaren 3an.

IGANTZI
Kultur Egunak
Abenduaren 5etik 9ra.

SUNBILLA
Kanpineko denboraldi bukaera
Abenduaren 15ean.

AZOKAK

ELIZONDO
Baztango artisauak
Plazan, abenduaren 8an, 10:00etatik 14:00etara.

BERA
Bertako ekoizleen merkatua
Rikardo Barojan, abenduaren 15ean, 10:00etan.

IRTEERAK

ELIZONDO
Durangora
Solaslaguna egitasmoak antolatua. Geldialdia eginen dute Beran.
Abenduaren 8an.

Mendi-irteera Alkurruntzera
Plazatik abiatuta, abenduaren 2an, 07:30ean.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

ANIZ Asteburu kulturala

Mendi itzulia, haur jokoak, txokolate jatea, solasaldia, bertso afaria...
Abenduaren 8an eta 9an.

San Antonera

Plazatik, abenduaren 9an, 07:00etan.

Iparlara

Plazatik, abenduaren 16an, 07:30ean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO
Margo erakusketa

Esther Fernandezen eskutik.
Arizkunenean, abenduaren 1etik 15era, astelehenetik larunbatera.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE
'Volar'

Zineman, azaroaren 30ean, 19:00etan.

BERA
'Gudua' antzerkia

Errekalde ostatuan, azaroaren 30ean, 22:30ean.

'Zubilanak eginez' ikuskizuna

Areto Nagusian, abenduaren 7an, 15:00etan (15:30ean ibilaldi-erakusketa).

GOIZUETA
'Gurean' dokumentala

Ganbaran, azaroaren 30ean, 18:30ean.

LESAKA
'Mendebalde' antzerkia

Harriondoan, abenduaren 1ean, 19:30ean.

'Zazpi senideko' antzerkia

Harriondoan, abenduaren 1ean, 20:00etan.

URDAZUBI
'Mendian' haurrendako ikuskizuna

Pontx pailazoaren eskutik.
Kultur Etxean, abenduaren 8an, 17:00etan.

IRURITA
Dublindarrak antzerkia

Gizarte Bilgunean, abenduaren 9an, 19:00etan.

Nire aukera

«Beintzan lasaitasuna eta giro ona da nagusi zer hoberik hori baino?»

AINARA ESANDIA ALDAYA BURLATAN BIZI DEN LABAIENDARRA

«Neska alaia, abenturazalea eta animalien maitalea» da Ainara Esandia. Burlatan sortu zen eta bertan bizi da astegunez. «Asteburuetan, Eguberrietan, udan... eta oro har, oporrak dituenean», berriz, Beintza-Labaienen pasatzen ditu egunak. «Ttikitatik» hasi zen joan-etorriak egiten: «atautxi-amatxiak hor bizi dira eta bisitatzera joaten ginen, asteburu pasa». Dena dela, lotura «11 urte» zituela errotu zitzaion: «atautxik Luna izeneko behor bat oparitu zidan». Une hartantxe «ametsa egia» egin zitzaion. Hortaz, «gehiagotan eta gusturago» joaten hasi zen. Zaldi gainean lehenengo aldiz «sei urterekin» jarri bazen ere, «hamar urte inguru» zituela hasi zen ikasten: «Uharteko zaldi tegian hasi nintzen, bi urte eman nituen hor. Orain, berriz, Añezkarreko zaldi tegian nabil, laugarren urtea da». Zaldi tegian ikasitakoa ibilian-ibilian sendotu du: «zaldi tegiko zaldietatik etxekora eta pista laukizuzenetik mendira asko aldatzen da eta beharrak erakusten du». Gaur egun, lehiaketetan ere ibiltzen da: «irakasleak bultzatuta hasi nintzen eta emaitzak onak izan zirenez jarraitzea erabaki nuen». Azken lehiaketa Ultzaman, Zenotzen, egin zuen eta hurrengoa Zolinan izanen du. Datorren denboraldian zortzi lehiaketetan parte hartuko du: «Zenotzen, Zolinan, Zizurren, Falcesen, Labianon, Tafallan, Zildotzen eta Añezkarren». Asteburu ederrenak «behor gainean bueltatxo bat emanez» hasten direnak dira beretako: «Bonozorrotzko kaxkoan barrena ibili eta lagunekin afaritxo bat egitea ederra da». Afalondoa luzatzen zaie maiz. Abendua ate joka ari denez, hasiak dira egun horiei begira: «egun politena 24a izaten da, herritarrak baserritarrez jantzi eta Olentzerori ongietorria egiten diogu. Gauean Donezte bera joaten gara». Lagun artean «tragoxka batzuk eginez eta tertulian» ederki pasatzen dute. Areago, hori da zoriontasunaren iturria labaiendar gaztearentzat: «maite dudan jendeaz inguraturik egotea eta haien ondoan momentu zoriontsuak partekatzea».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatu gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎ 608 77 79 26.

LESAKA. Etxe dotorea salgai (hobekuntza aunitz ditu). Salmenta presazkoa da. Eskaintzak onartuko dira. ☎ 609 47 72 77.

GOIZUETA. Pisua salgai, 3. solairuan. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Balkoi ederra du, trasteleku ttiki bat ere badu eta garaje ttiki bat. ☎ 948 51 03 69.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kosta tropikalean, partikular batek lagun bat edo birentzako aparthotela errentan emateko du, neguan. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. Abenduaren 15etik martxoaren 31ra errentan emateko. ☎ 658 94 37 02.

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎ 609 97 33 06.

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko jende bila. ☎ 602 82 23 74.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Jubilazioagatik janari-denda bat traspasatzen da. ☎ 948 63 04 52 (deitu 18:00etatik 20:00etara).

LESAKA. Jubilazioagatik Garbi-Leku garbitegia edo labanderia errentan emateko. ☎ 948 63 74 38 / 600 65 70 20.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LANA

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Maspormenos-en lan egiteko jendea behar dute. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterketetakoak, kanpoko jardueretarako... Interesatuek bidali curriculuma: *info@maspormenos.net* helbidera.

LESAKA. Atxaspi Hotelean, gosariak prestatu, garbiketa eta harrerarako langile bat behar dute. ☎ 673 33 99 20.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute lanaldi osoan aritzeko. ☎607 82 73 09.

LEITZALDEA. Komertzialak behar dituzte. Bidali curriculumak *RRHH@logikaline.com*era edo deitu telefonoz. ☎943 31 86 06.

ESKARIAK

Emakumea lan bila, adinkoak edota haurrak zaintzeko. Interna moduan nahiago baina orduka lan egiteko prest. Erabateko prestutasuna, arduratsua eta esperientzia zaintza lanetan. ☎ 644 82 99 46.

BAZTAN. Mutila lan bila. Abeltzaintzan, pintura lanetan edota eraikuntzako peoi bezala lan bila. Zerbitzu anitzetan esperientzia, baita saltzaile bezala ere. Pintura, pladur eta igeltserotza ikastaroekin. Erabateko prestutasuna eta kotxearekin. ☎ 634 29 47 41.

Neska bat lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna, garbiketa lanetan eta ostalaritzan interesatua. Adinekoak zaintzeko interna edota orduka lan egiteko prest. ☎ 644 93 62 74.

Gizonezkoa lan bila. Ostalaritza arloan esperientzia handia duena, koktelak egiten ezagutza handia, baita sukalde lanetan ere. Adinekoak zaintzen ere ezagutza eta esperientzia. Ostalaritza eta adinekoak zaintzeko pertsona arduratsua behar izanez gero, deitu. ☎ 644 93 62 74.

Gizonezkoa lanean aritzeko prest. Pertsona adinduak zaintzen, nekazaritzan eta garbiketa lanetan interesatua. ☎ 631 14 26 85.

BAZTAN. Emakumea lan bila, egunez adinekoak zaintzeko baita garbiketa edota haurren zainketarako ere. Esperientzia lan esparru horietan. ☎644 77 82 12.

Mutila lan bila: garbiketan aritzeko, ostalaritzan zerbitzari edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko eta pertsona adinduak zaintzeko, interno moduan edo egunez. Zerbitzari bezala urtebeteko esperientzia. Mutil arduratsua eta trebetasun sozialekin. ☎ 631 72 01 08.

Neska gaztea lan bila. Haurrak zaintzeko, mendekotasun haundirik ez duten adinekoak interna gisa edo egunez zaintzeko eta garbiketarako prest. Etxeko animalien zaintzan esperientziaduna eta horretan lan egiteko ere interesatua. Arduratsua, trebetasun sozialekin eta ikasteko prest. ☎ 644 85 81 34.

BERA. Emakume euskalduna lanean ariko litzateke: haurrak edo adineko jendea zaintzen, etxeak garbitzen... ☎ 948 63 06 17 / 679 51 48 37.

Ekuatoriar emakumea interna moduan adinekoak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin adineko pertsonen zaintzan. ☎ 689 27 85 29.

Mutil gaztea eraikuntzan, abeltzaintzan edota adineko pertsonei konpainia egiteko lan bila. Esperientzia eraikuntzako laguntzaile bezala baita nekazaritzan ere. ☎ 684 07 44 73.

ELIZONDO. Neska lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko edota ostalaritzan zerbitzari bezala aritzeko prest. Adinekoen eta haurren zaintzan esperientziaduna, baita ostalaritzan zerbitzari bezala ere. Arduratsua eta erreferentziekin. ☎ 631 96 33 75.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	4,29
• 1.koa	4,07
• 2.koa	3,93

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,31
• 1.koa	4,17
• 2.koa	4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
• (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

• Urruxak	168,00
• Idixkoak	240,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	150,00
• Idixkoak	170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	3,29/3,39
• Zaldi-behorrak	1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	7,70/8,20
• 8-10 kilokoak:	6,40/7,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 37 €
Zerri gizena 1,041 €
Zerramak 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (azaroaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

PSIKOANALISTAK

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
650 268 301
Jaime Urrutia, 42-2.D **ELIZONDO**

ANIMALIAK

BERTZELAKOAK

100 ardirendako **ganbela** bere atrapaderarekin salgai, moduluka. Tokiz aldatzeko erraza. Berri-berria bezala. ☎ 948 58 10 39.

SALGAI

BERA. 6 ardi salgai, bildotsekin edo gabe aukeran. ☎ 948 63 04 19.

SARA. 40 ardirentzat bazka salgai. ☎ (00 33) 559 54 23 37 (deitu iluntzetan).

DENETARIK

SALEROSKETAK

Soro hesia edo dena delakoa sagar baxatiarekin egin nahi duenak badut planta gaztea ugari. ☎ 948 61 50 05.

Garraio zerbitzua egiteko norbait behar da

Astelehenetan Bortzirietatik Leitzara joaten zara? Garraio zerbitzua egiteko norbait behar da, gidatzeko baimena eta autoa duena.

Deitu 948 63 54 58 telefonora.

KONTATU KONTUAK

UTZITAKO ARGAZKIA

Osasunako jokalariei harrera jendetsua Leitzan. Leitzako Udaletxeko areto nagusia txiki gelditu zen joan den azaroaren 15ean, Osasuna Futbol Taldeko jokalarien bisitarekin. Unai Garcia eta Endika Irigoien jokalariak Leitzan izan ziren eta horiekin batera, kolore gorriak hartu zuen udaletxea. Gaztetxoek baloiak sinatzeko eta eskaintzak jasotzeko aprobetxatu zuten. Aurpegietan irribarreak izan ziren nagusi. Bertzalde, hainbat maiterial zozketatu zituzten bildutakoen artean, eta Fidel Medrano Osasunako ordezkariak esker ona adierazteko oroigarria eman zion Eneko Andueza udal ordezkariari.

MIKEL LARRETXEA

Fernando Otanori agur hunkigarria Arantzan. Bertze behin, Txamukos mariatxi taldeak emanaldi ederra eskaini zuen azaroaren 16an Arantzan. Fernando Otano taldeko kantariaren hondarreko saioa izan zen eta une hunkigarriak izan ziren. Herrian maitatua den seinale, aranztarrek hainbat opari eta oroigarri egin zizkioten Oibarko kantariari eta honek bihotzez eskertu zituen. Jendetza bildu zen Burlada jatetxean egindako ospakizunean eta aunitzentzat goizaldera arte luzatu zen besta.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaiguzu!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua *info@ttipi.eus* helbidera edo whatsappez 744 484361 zenbakira.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitez Ttipi-Ttaparen bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Mattin Ehret**, Sarakoa, azaroaren 4an.
- **Lea Goikoetxea Arrobarren**, Lesakakoa, azaroaren 10ean.
- **Alicia Dacosta Dasilva**, Lesakakoa, azaroaren 11n.
- **Aimar Zubieta Gartzia**, Berakoa, azaroaren 3an.

EZKONTZAK

- **Tristan Sage Marianne Gueguen**, Sarakoak, urriaren 27an Saran.
- **Jose Ignacio Irigoien Reclusa** eta **Maria Gema Ubiria Andueza**, Lesakakoak, azaroaren 15ean Lesakan.

HERIOTZAK

- **Justine Beobide,** Sarakoa, urriaren 26an, 91 urte zituela.
- **Anuntxi San Sebastian Telletxea,** Berakoa, azaroaren 6an, 99 urte zituela.
- **Juan Perurena Loiarte,** Aranokoa, azaroaren 7an, 66 urte zituela.
- **Damian Lopez Lorente,** Elizondokoa, azaroaren 8an, 88 urte zituela.
- **Juan Belaunzaran Arraiago,** Aresokoa, azaroaren 9an, 71 urte zituela.
- **Felisa Agara Maritorena,** Lesakakoa, azaroaren 9an, 94 urte zituela.
- **Juan Telletxea Elzaurdia,** Berakoa, azaroaren 9an, 100 urte zituela.
- **Juana Alcasena Saharrea,** Elizondokoa, azaroaren 15ean, 84 urte zituela.
- **Ignacio Bikondoa Bikondoa,** Iruritakoa, azaroaren 15ean, 81 urte zituela.
- **Francisco Javier Txibite Pedrosa,** Doneztebekoa, azaroaren 16an.
- **Lourdes Aleman Sarratea,** Elizondokoa, azaroaren 17an, 50 urte zituela.
- **Juliana Mutuberria Indakoetxea,** Zubietakoa, azaroaren 19an, 87 urte zituela.
- **Manuel Etxebeste Legasa,** Lesakakoa, azaroaren 19an, 90 urte zituela.
- **Mª Mercedes Juanikotena Mortalena,** Arraiozkoa, azaroaren 20an, 92 urte zituela.
- **Clara Sanzberro Iparragirre,** Etxalarkoa, azaroaren 20an, 76 urte zituela.

URTEURRENA

Iker
ESPELOSIN GOIZUETA

Sunbillan, 2017ko abenduaren 17an
I. urteurrena

Iker, zure oroitzapena
betirako gordeko dugu
bihotzean.

AURTIZKO ETA SUNBILLAKO FAMILIA

OROIGARRIA

Juliana
MUTUBERRIA INDAKOETXEA

Zubietan, 2018ko azaroaren 19an, 87 urte zituela

Guztiok dugu samin handia
Juliana agurtzean
Eta gehiago ama, amatxi
Maitatua faltatzean
Nahiz eta malkoak isuri orain
Gure artetik joatean
Irribar batez egonen gara
Denok zutaz oroitzean.

ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak
24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04
BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA
TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak
BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortziritan eta Malerrekan
IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
Hurbiltasuna eta begirunea
T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

URTEBETETZEAK

Aimar Laspidea Mutuberriak azaroaren 22an urte bat bete du. Zorionak eta muxu bat familia guziaren eta berexiki Iker era Anderren partetik.

Aunitz urtez **Intza**! Abenduaren 5ean 6 urte beteko dituzulako, 6 muxu haundi zuretzat! Zeinen ongi pasatu behar dugun zure eguna!

Intza Iribarren Elizaldek azaroaren 28an 4 urte beteko ditu. Zorionak prexioxa eta muxu aunitz denon partetik.

Urdiainen bizi baina arraioztarra den **Alaitz Olmedillo Mindegia**k urte bat bete du azaroaren 15ean. Aunitz urtez aitatxi-amatxi eta osaba-izebaren partetik!

Berako **Nahia Endara**k 9 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik.

Zorionak zure lehen urtebetetzean, **Unax** amatxo, atta eta bereziki Hegoi anaiaren partetik. Muxu handi asko etxeko pottokoarentzat.

Oinatz Sein Etxebestek 5 urte beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak familia guziaren partetik etxeko erregeari. Zorionak txapeldun!!

Zorionak **Aimar**! Azaroaren 29an 18 urte beteko dituen mutil katxarroa. 18 muxu handi familia osoaren partetik. Ongi ospatu eta hobeki gozatu!

Margari Olaizola Caminok azaroaren 20an urteak bete ditu. Aunitz urtez Urdazubitik zure kusina Pablo Olaizola eta bere familiaren partetik.

Igantziko **Izaro Urtxegi Rodrigo**k 5 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik eta berexiki Unax eta Enara anaia eta ahizparen partetik!!

Unax Zelaieta Urriza gure txekorrak azaroaren 6an urtea bete zuen! Zorionak Hegoi, amona, attona, Garaile eta Laurendiren partetik. Muxutxo asko, Unax!

Manzanoseko **Nahia Martin Portu**k 8 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez gure pataterari familia osoaren eta bereziki Lesaka eta Leitzako lehengusu eta lehengusinen partetik.

MARIPURTZIL

PELLOZIRI

PLAZAN BAZAN

PUZZLEA

Zeintzuk dira puzzlea osatzeko falta diren hiru piezak?

Egilea: **Garbine Ubeda (Aiurri)**

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

berako agenda .eus

Abendua

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus

BERAKOUDALA

berako kultur batzordea

3 ASTELEHENA | KONTZERTUA
NAFARROAKO EGUNAREN KONTZERTUA:
Ahots Baxuen Abesbatza (Irunea)
13:00 San Esteban Elizan
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

Euskal mitologia inguruko proposamen artistikoak Berako Kultur Etxean

7 ORTZIRALEA | ZUBILANAK EGINEZ IKUSKIZUNA
15:00 Areto nagusian

IBILALDI-ERAKUSKETA ESTREINALDIA
15:30 Erakusgelan

15 LARUNBATA | MERKATUA
BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA
10:00-13:30 Ricardo Baroja eskolako arkupeetan

22 LARUNBATA | BERAKO ABESBATZA ETA TXISTULARIEN KONTZERTUA
19:30 Kultur Etxean

Olentzero eta Mari Domingi
ENTSAIOAK

12 ASTEAZKENA | Kalejiran parte hartuko duten musikarien entsaioa
18:00 Musika eskolako areto nagusian

17 ASTELEHENA | Abestien entsaioa Haurrak + Musika eskolako trikitilariak
18:00 Kultur Etxean

24 ASTELEHENA | KALEJIRA HERRIKOIA
16:30 Merkatu plazan (hasiera)
Herriko Herriko Etxeko plaza (bukaera)
Ibilbidea: Merkatu plaza (Altzateko parkea), Altzateko plaza, Altzate karrika, Eztegara pasealekua, Kanttonberri karrika, San Jose zahar-etxea, Eztegara pasealekua, Iturlandeta karrika, Foruen plaza, Gernikako arbolaren zeharbidea, Herriko etxeko plaza)
Eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan 17:15ean.
Ilunabarrean, helduak kalejiran ibiliko dira kantari, Gure Txokoak antolatua

31 ASTELEHENA | GLIN-GLAN
15:00 Herriko karriketan barna
DIOSTESALBE
18:00 Herriko karriketan barna

ISIDORO FAGOAGA
Musika Eskolako Emanaldiak

11 ASTEARTEA | BIOLIN ENTZUNALDIA
18:00 Musika eskolan

14 ORTZIRALEA | TRIKITIXA ETA AKORDEOI ENTZUNALDIA
18:00 Musika eskolan

18 ASTEARTEA | PIANO KONTZERTUA
18:00 Musika eskolan

19 ASTEAZKENA | EGUBERRIETAKO KONTZERTUA
18:00 San Esteban Elizan

Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

HIPERSIMPLY

ZORIONAK

Nafar Mendi Merkatalgunea
Arraioz - Baztan - T: 948.452.656 - 09:00 - 21:00

jostailuak & turroiak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T **948 63 54 58** | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

722 aleko irabazleak >

Baztan Abentura Park - 2 tiket
Iñigo Barriola Eugi | LEITZA
Lesakako Udal Kiroldegia - 2 sarrera
Leire Hualde Zabalza | ARANTZA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Isabel Lakar Telletxea | DONEZTEBE
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Elixabet Santesteban Iturralde | BERROETA
Buatxabal - Kamiseta bat
Fermin Urrutia Irigoien | AZPILKUETA
Martiko - Lote bat
Sabino Cuadra Lasarte | ELGORRIAGA
Baga Biga - CD bat
Belen Juanikorena Juanikorena | IRUÑEA
Baga Biga - CD bat
Pablo Olaizola Espelosin | URDAZUBI

ZOZKETAK

RUPER ORDORIKAREN 2 CD



Hodeien azpian + Azukre koxkorrak
www.elkar.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com

Lote bat

LIBURUAK

Astroak gara
2 liburu

elkar
www.elkar.eus

LAGUNTZAILEAK

www.katxiporreta.eus

www.onddotapunto.com